 - d) Proyectos industriales de inscripción voluntaria de transformación energética o de reconversión de procesos productivos orientados a la descarbonización.
 - e) Proyectos de infraestructuras energéticas que permitan impulsar el proceso de transición energética.

- | | |
|---|---|
| <p>f) Karbono dioxidoa xurgatzeari buruzko proiektuak, lurzorua erabilera edo haren kudeaketa aldatuz karbono dioxidoa xurgatzen dela egiaztatzen duten proiektuak inskribatzeko; bateragarriak izan behar dute biodibertsitatearen kontserbazioarekin eta erregelamendu bidez ezarritako beste alderdi batzuekin.</p> <p>g) Karbono-aztarnaren konpentsazioa, karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen edo araubidez ezartzen diren beste proiektu batzuen atalean inskribatutako erakundeek xurgatze bidez karbono-aztarna konpentsatzeko egiten dituzten ekintzak inskribatzeko.</p> <p>h) Klima-aldaketara egokitzeko ekintzak, zaurgarritasunari eta klima-arriskuari buruzko analisia inskribatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko garatutako ekintzei buruz informatzeko.</p> | <p>f) Proyectos de absorción de dióxido de carbono, para inscribir proyectos que acrediten la absorción de dióxido de carbono a través de un cambio de uso del suelo o un cambio en su gestión compatible con la conservación de la biodiversidad, y otros que se establezcan reglamentariamente.</p> <p>g) Compensación de huella de carbono, para inscribir acciones de compensación de huella de carbono mediante absorciones realizadas por las organizaciones inscritas en la sección de proyectos de absorción de dióxido de carbono u otros que se establezcan reglamentariamente.</p> <p>h) Acciones de adaptación al cambio climático, para inscribir el análisis de vulnerabilidad y riesgo climático e informar sobre las acciones desarrolladas en materia de adaptación al cambio climático.</p> |
| <p>4. Erregelamenduz ezarriko dira erregistro horren funtzionamendua eta edukia eta bertan inskribatzeko baldintzak. Bestalde, erregistro hori publikoa izango da, bat etorrita ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justiziarako sarbiderako eskubideak zehazten dituen araudiarekin eta albo batera utzi gabe legeak datu pertsonalak babesteari buruz xedatzen duena.</p> <p>5. Kontratazio-organismoek aukera izango dute kontratazio-prozeduraren barruan ezarritako ingurumen-arloko kontsiderazioen artean jasotzeko artikulua honetan arautzen den erregistroan inskribatzeari buruzko kontsiderazioak, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean edo haren ordezkoko arauan ezarritakoarekin.</p> | <p>4. Se establecerá reglamentariamente el funcionamiento, contenido y condiciones para la inscripción en dicho registro, que será público en los términos que establece la normativa que regula los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente, sin perjuicio de lo que establece la legislación sobre protección de datos de carácter personal.</p> <p>5. Los órganos de contratación podrán incluir, entre las consideraciones de tipo medioambiental que se establezcan en el procedimiento de contratación, las relativas a la inscripción en el registro que se regula en este artículo, de conformidad con lo que establece la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, o norma que la sustituya.</p> |

43. artikulua. (56.a izango da) Ekonomia deskarbonizatzeko digitalizazioa

Artículo 43. (pasa a ser 56) Digitalización para la descarbonización de la economía

- | | |
|---|--|
| <p>1. EAEko administrazio publikoek ekonomiaren digitalizazioa bultzatzeko ekintzak hartuko dituzte lege honetan aurreikusitako klima-neutraltasuneko xedeak lortzeko.</p> <p>2. Ekintza horien artean honako hauek egongo dira, besteak beste:</p> <p>a) Muturreko meteorologia-gertakariak aurreikusteko gaitasuna hobetzea, klima-aldaketa ebaluatzea eta hondamendi naturalak eta ingurumenekoak kudeatzea.</p> | <p>1. Las administraciones públicas vascas adoptarán acciones para impulsar la digitalización de la economía con el fin de alcanzar los objetivos en relación con la neutralidad climática previstos en esta ley.</p> <p>2. Las acciones que se adopten incluirán, entre otras:</p> <p>a) La mejora de la capacidad para predecir eventos meteorológicos extremos, la evaluación del cambio climático y la gestión de las catástrofes naturales y ambientales.</p> |
|---|--|



- | | |
|---|---|
| <p>b) Energia-efizientzia eta errendimendua sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorean ekonomia zirkularra ardatz hartuta, gailu digitalak berrerabiliz eta horen osagaiak berreskuratuz.</p> <p>c) Digitalizazioaren eta teknologia berritzaileen erabilera sustatzea emisioak neurtzeko, efizientzia energetikoa bultzatzeko, airearen kalitatea hobetzeko, ekosistemak babesteko eta gizarteko eta ekonomiako sektore guztietan emisioak murriztea lortzeko.</p> <p>d) Kontsumitzaileei eta industriari informazioa ematea produktuen jatorriari, konposizioari, bizi-zikloaren azken kudeaketari eta birziklapenari buruz.</p> <p>e) Datu-zentroetan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako azpiegituretan energia-efizientzia handiagoa sustatzea, eta hondar-energia berrerabiltzea eta energia berriztagarrien iturriak baliatzea.</p> <p>f) Garraio automatizatua eta konektatua babestea, mugikortasuna hobetzeko.</p> <p>g) Digitalizazioa bultzatzea, eragile eta sektoreen karbono-aztarna kalkulatzeko beharrezko tresna gisa.</p> <p>h) Teknologia digitalak eta datuen partekatzea bultzatzea, energia-azpiegituren eta -aktiboen diseinua, monitorizazioa eta operazio optimizatua errazteko energia-efizientzian, kontsumoen elektrifikazioan, energia berriztagarrietan eta hidrogeno berriztagarria eta karbono gutxikoa biltegitratzeko eta ekoizteko sistemetan.</p> | <p>b) El impulso de la eficiencia energética y el rendimiento en términos de economía circular del sector de las tecnologías de la información y la comunicación, reutilizando dispositivos digitales y recuperando sus componentes.</p> <p>c) El fomento del uso de la digitalización y de tecnologías innovadoras para la medición de las emisiones, con el objetivo de impulsar la eficiencia energética, mejorar la calidad del aire, proteger los ecosistemas y conseguir la reducción de las emisiones en todos los sectores sociales y de la economía.</p> <p>d) La facilitación a las personas consumidoras y a la industria de información sobre el origen, composición, gestión final del ciclo de vida y reciclado de productos.</p> <p>e) La promoción de una mayor eficiencia energética, de la reutilización de la energía residual y de la utilización de fuentes de energía renovables en los centros de datos y en las infraestructuras de las tecnologías de la información y la comunicación.</p> <p>f) El apoyo del transporte automatizado y conectado con el fin de mejorar la movilidad.</p> <p>g) La promoción de la digitalización como instrumento necesario para estimar la huella de carbono de los agentes y de los distintos sectores.</p> <p>h) El impulso de las tecnologías digitales y la compartición de datos para facilitar el diseño, la monitorización y la operación optimizada de las diversas infraestructuras y activos energéticos en los ámbitos de eficiencia energética, electrificación de consumos, energías renovables, sistemas de almacenamiento y producción de hidrógeno renovable y bajo en carbono.</p> |
|---|---|

44. artikulua. (57.a izango da) Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna

1. EAEko administrazio publikoen eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio-organismoek lizitazioen xede diren produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna jasotzeko betebeharra ezarriko dute kontratuen administrazio-klausulen eta preskripzio tekniko partikularren agiritan, betiere betebehari hori kontratuaren xedearekin lotzen bada eta bateragarria bada kontratazio publikoaren printzipio informatzaileekin.

Artículo 44. (pasa a ser 57) Huella de carbono de productos, servicios y suministros en la compra pública

1. Los órganos de contratación de las administraciones públicas vascas y de las demás entidades del sector público incluirán en los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas particulares de sus contratos la obligación de disponer de la huella de carbono de los productos, servicios y suministros cuya contratación se licite.



Ondorio horietarako, erakunde lizitatuak, karbono-aztarnaren datua dutela justifikatzeko, lege honetan aurreikusitako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroko inskripzioaren indarraldia baliatu ahal izango dute egiaztatuz, edo, bestela, ingurumen-kudeaketako neurri baliokideen beste frogabide batzuk erabili ahal izango dituzte.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa nahitaezkoa izango da Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua onesten dituen erregelamendu-arauak finkatzen den epean.

45. artikulua. (58.a izango da) Energia kontrolatzeko, emisioak murrizteko eta egokitzeko teknikak eta teknologiak bultzatzea

1. EAEko administrazio publiko eskudunek teknika eta teknologia egokiak sustatu eta bultzatuko dituzte, jarduera ekonomikoaren ekoizpen-prozesuetan txertatuta lagungarri gerta daitezkeen dena delako produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan energia-kontsumoa kontrolatu ahal izateko eta berotegi-efektuko gasen emisioak kuantifikatzeko moduan murriztu ahal izateko.

Horretarako, aldi-aldi teknologia garbier zerrenda bat onetsi eta eguneratuko da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan edo haren ordezkari arauak aurreikusitako moduan.

2. Energia-hobekuntzarako edo ingurumena babesteko proiektuak edo jarduketak egiteko dirulaguntzak eta bestelako laguntzak emateko arauetan edo oinarri arautzailetan, ekoizpen-prozesuei buruzko balorazio-irizpideak ezarri ahal izango dira, horien bidez zehazteko ea ekoizpen-prozesuek bide ematen duten hain kutsagarriak ez diren energiak modu progresiboan sartzeko, berotegi-efektuko gasak murrizteko edo efektu murriztaile edo egokitzaile bera duten ekipamendu-ondasunak eskuratzeko.

46. artikulua. (59.a izango da) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorreko fiskalitatea

1. EAEko administrazio publikoek, trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren prozesuan, lankidetzan eta koordinazioan arituko dira, batetik, zaurgarritasuna areagotzen edo berotegi-efektuko gasen emisioa handitzen duten jardueren gaineko karga jakin batzuk ezartzea ebaluatzeko, eta, bestetik, fiskalki sustatzeko berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten, gutxitzen edo xurgatzen edo klima-

A estos efectos, las entidades licitadoras podrán justificar la disposición de la huella de carbono mediante la acreditación de la vigencia de la inscripción en el Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático previsto en esta ley u otros medios de prueba de medidas equivalentes de gestión medioambiental.

2. Lo establecido en el apartado anterior tendrá carácter obligatorio en el plazo que se fije en la norma reglamentaria que apruebe la organización y funcionamiento del Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático.

Artículo 45. (pasa a ser 58) Promoción de técnicas y tecnologías para el control energético y la reducción de emisiones y la adaptación

1. Las administraciones públicas vascas competentes promoverán e impulsarán técnicas y tecnologías cuya introducción en los procesos productivos de las actividades económicas permitan el control de los consumos energéticos y la reducción cuantificable de emisiones de gases de efecto invernadero a lo largo de todo el ciclo del producto o proceso considerado.

A tal fin, se aprobará y actualizará periódicamente un listado de tecnologías limpias en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, o norma que la sustituya.

2. Las normas o bases reguladoras de la concesión de ayudas o subvenciones para la realización de proyectos o actuaciones destinados a la mejora energética y la protección del medio ambiente podrán establecer criterios de valoración relativos al empleo de procesos productivos que permitan la progresiva penetración de energías menos contaminantes, la reducción de gases de efecto invernadero o la adquisición de bienes de equipo con el mismo efecto reductor o de adaptación.

Artículo 46. (pasa a ser 59) Fiskalitatea en materia de transición energética y cambio climático

1. Las administraciones públicas vascas, a lo largo del proceso de transición energética y climática, colaborarán y se coordinarán entre ellas para evaluar el establecimiento de determinados gravámenes sobre las actuaciones que hagan aumentar la vulnerabilidad o incrementen las emisiones de gases de efecto invernadero, así como para incentivar fiscalmente las actuaciones que favorezcan la mitigación, la



- aldaketara egokitzen laguntzen duten jarduketak, teknikoki eta ekonomikoki posible den heinean.
2. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorreko fiskalitateak helburu hauek izan behar ditu, besteak beste:
- a) Energia berriztagarriak sustatzea.
 - b) Sareen deszentralizazioa eta autokontsumo energetikoa.
 - c) Energetikoki efizienteak diren eraikinak eta etxebizitzak.
 - d) Mugikortasun jasangarria.
 - e) Ura aurrezteak.
 - f) Biodibertsitatea hobetzeko edo biodibertsitatea ez galtzeko jarduketak.
 - g) Osasunaren gaineko inpaktuak murriztea.
 - h) Ekipamendu efizienteagoak.
 - i) Ekoizpen-prozesuak aldatzea, berotegi-efektuko gasen emisioak eta bestelako agente kutsatzaileak murrizteko eta klima-aldaketara hobeto egokitzeko.
 - j) Ekonomia zirkularreko ereduak bultzatzea, deskarbonizazioa lortzeko.
 - k) Basogintza- eta nekazaritza-kudeaketa jasangarria.
 - l) Hondakinen sorkuntzan prebenitzea eta hondakinen balorizazioa.
 - m) Arrantza, akuikultura eta itsaski-bilketa jasangarriak bultzatzea.
 - n) Sektore ekonomikoak eta sistema naturalak egokitzea eta horien zaurgarritasuna murriztea.
3. Era berean, EAEko administrazio publiko guztiek, beren zerga-eskumenen barruan, ingurumen-kalteak eragiten dituzten jarduketan gaineko kargak ezarri ahal izango dituzte, bai eta hobariak emateko pizgarrien eta zerga-neurrien mekanismoak ere, energia-efizientzian eta energia berriztagarrien ekoizpenean eta kontsumoan eta zero emisioak ibilgailuak erosi eta erabiltzean egindako inbertsioak direla eta, eta lehentasuna izango dute aurrezpen handiena, sektoreen deskarbonizazioa eta klima-aldaketara egokitzea lortzen duten erabilerekin.
- reducción y la absorción de emisiones, y la adaptación al cambio climático, cuando sea posible técnica y económicamente.
2. La fiscalidad en materia de transición energética y cambio climático deberá tener, entre otros, los siguientes objetivos:
- a) El fomento de las energías renovables.
 - b) La descentralización de redes y el autoconsumo energético.
 - c) Los edificios y viviendas energéticamente eficientes.
 - d) La movilidad sostenible.
 - e) El ahorro de agua.
 - f) Las actuaciones para mejorar la biodiversidad o para evitar su pérdida.
 - g) La reducción de impactos sobre la salud.
 - h) Los equipamientos más eficientes.
 - i) La modificación de los procesos de producción para reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y otros agentes contaminantes y mejorar la adaptación al cambio climático.
 - j) El impulso de los modelos de economía circular para la descarbonización.
 - k) La gestión forestal y agrícola sostenible.
 - l) La prevención en la generación de residuos y su valorización.
 - m) La pesca, la acuicultura y el marisqueo sostenibles.
 - n) La adaptación y reducción de la vulnerabilidad de los diferentes sectores económicos y sistemas naturales.
3. Igualmente, todas las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias fiscales, podrán establecer gravámenes sobre las actuaciones que causen daños ambientales, así como mecanismos de incentivos y medidas fiscales para bonificar las inversiones en eficiencia energética, producción y consumo de energías renovables y adquisición y uso de los vehículos de cero emisiones, priorizando los usos donde se logren los mayores ahorros y la descarbonización de los sectores y la adaptación al cambio climático.

46 bis artikulua. (berria, 60.a izango da) Ikuspegi energetikoa eta klimatikoa araudian eta plangintzan

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sustatzen edo onartzen dituzten legeak eta xedapen orokorrak egiteko prozeduretan eta plangintza-jardueran, klima-ikuspegia txertatu beharko da, lege honetan eta trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza estrategikoan adierazitako helburuekin bat etorritz.
2. Araugintzako edo plangintzako edozein ekimen izapidetzeko ardura duen organoak klima-inpaktuaren ebaluazio bat txertatu beharko du nahitaez, klima-aldaketa arintzean eta klima-aldaketara egokitzean proiektuak eragina aztertzekoa.

47. artikulua. (61.a izango da) Energiari eta klimari buruzko ikuspegia aurrekontu publikoetan

1. Energiari eta klimari buruzko ikuspegia txertatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuan, aurrekontuen % 2,5 ekintza klimatikorako neurrietara bideratuz. EAEko gainerako administrazio publikoek beren aurrekontu publikoetan, bereziki diseinu-fasean, energiari eta klimari buruzko ikuspegia txerta dadin sustatuko dute.
2. Aurrekontuetan, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eragin positiboa duten jarduerak identifikatuko dira, arintzekoak zein egokitzekoak, ezartzen diren gidalerroen arabera.

Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, gauzatze-, jarraipen- eta ebaluazio-gidalerroak ezarri beharko dira, baita egoki diren gaikuntza-prozesuak ere.

3. (berria) Bost urtean behin, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren inpaktua eta ekarpena aztertu beharko da, isuriak murrizteari, kalteberatasuna eta arriskuak gutxitzeari, energia-politikari, adierazle sozioekonomikoei eta lehiakortasunari dagokienez. Azterketa hori Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoak egingo du.

47 bis artikulua. (berria, 62.a izango da) Klimaren Gizarte Funtsa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Artículo 46 bis. (nuevo, pasa a ser 60) Perspectiva energética y climática en normativa y planificación

1. En los procedimientos de elaboración de leyes y de disposiciones de carácter general y en la actividad planificadora que promuevan o aprueben las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se deberá incorporar la perspectiva climática, de conformidad con los objetivos indicados en esta ley y en la planificación estratégica en materia de transición energética y cambio climático.
2. El órgano encargado de tramitar cualquier iniciativa normativa o planificadora deberá incorporar, con carácter preceptivo, una evaluación de impacto climático, que tendrá por objeto analizar la repercusión del proyecto en la mitigación y adaptación al cambio climático.

Artículo 47. (pasa a ser 61) Perspectiva energética y climática en los presupuestos públicos

1. Se deberá incorporar la perspectiva energética y climática en el proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destinando el 2,5 % de dichos presupuestos a la adopción de medidas de acción climática. El resto de las administraciones públicas vascas promoverán la integración de la perspectiva energética y climática en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño.
2. Los presupuestos identificarán aquellas actuaciones con impacto positivo en materia de transición energética y cambio climático, tanto para la mitigación como para la adaptación, de acuerdo con las directrices que se establezcan.

A los efectos previstos en el apartado anterior, se deberán establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación.

3. (nuevo) Se deberá analizar, con periodicidad quinquenal, el impacto y la contribución de los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en términos de reducción de emisiones, disminución de vulnerabilidad y riesgos, política energética e indicadores socioeconómicos y competitividad. Dicho análisis será elaborado por la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático.

Artículo 47 bis. (nuevo, pasa a ser 62) Fondo Social Climático

1. La partida presupuestaria de los presupuestos



orokorraren urteko aurrekontuetan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 86. artikulua lehengo paragrafoan xedatutakoaren arabera sortzen den aurrekontu-partida Europako Klimarako Gizarte Funtsetik datozen baliabide ekonomikoek hornitu ahal izango da, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko, baita bidezko trantsizioa sustatzeko politikak eta ekintzak gauzatzeko tresna gisa erabiltzeko helburuarekin.

2. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezarriko ditu, gehienez ere urtebeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Funts Klimatikoa hornitzeko, kudeatzeko, antolatze eta banatzeko irizpideak.
3. Klimaren Gizarte Funtsetan baliabide ekonomikoak honako hauetara bideratuko dira:
 - a) Energia eredu berri bateranzko trantsizioaren eta klima-aldaketa arintzearen eta horretara egokitzearen eremuetan jarduketak egitea, ekosistemak monitorizatzea eta leheneratzea barne.
 - b) Bidezko trantsizio-neurriak hartzea, energia-ongizaterik ezarekin eta energia-trantsizioaren ondoriozko eraldaketa sozioproduktiboak eragindako sektoreen konpentsazioarekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako neurriei dagokienez.

48. artikulua. (63.a izango da) Administrazio-izapidetzeak

1. EAEko administrazio publikoek administrazio-prozeduren sinplifikazioa, arintzea eta gardentasuna sustatuko dituzte lege honetan ezarritako helburuei laguntzen dieten proiektuak garatzeko, beren eskumenak kaltetu gabe.
2. EAEko administrazio publiko guztiak modu efizientean koordinatuko dira dagozkien administrazio-izapidetzei lotutako betebeharrak betetzeko.

48 bis artikulua. (berria, 64.a izango da) Lehentasunezko inbertsioak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren esparruan, eta energia berriztagarriak sustatzeko, lehentasunezko eta presazko inbertsioetat hartuko dira, plangintzaren,

anuales de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco que se cree de conformidad con lo dispuesto en el apartado primero del artículo 86 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, se podrá dotar de los recursos económicos que, en su caso, provengan del Fondo Social para el Clima europeo, con el objetivo de servir de instrumento para la ejecución de políticas y acciones de mitigación y adaptación al cambio climático, así como para promover una transición justa.

2. El Gobierno Vasco establecerá reglamentariamente, en el plazo máximo de un año, los criterios de provisión, gestión, organización y distribución de los recursos económicos previstos en el apartado anterior.
3. Los recursos económicos del Fondo Social Climático estarán destinados a:
 - a) La realización de actuaciones en los ámbitos de la transición hacia un nuevo modelo energético y la mitigación y la adaptación al cambio climático, incluyendo el monitoreo y la restauración de los ecosistemas.
 - b) La adopción de medidas de transición justa vinculadas a la ausencia de bienestar energético y a la compensación de sectores afectados por la transformación socioproduktiva derivada de la transición energética y las medidas vinculadas a la lucha contra el cambio climático.

Artículo 48. (pasa a ser 63) Tramitaciones administrativas

1. Las administraciones públicas vascas promoverán la simplificación, agilización y transparencia de los procedimientos administrativos para el desarrollo de los proyectos que contribuyan a los objetivos establecidos en esta ley, sin menoscabo de sus competencias.
2. El conjunto de las administraciones públicas vascas se coordinará de forma eficiente para el cumplimiento de sus obligaciones en el ámbito de las tramitaciones administrativas correspondientes.

Artículo 48 bis. (nuevo, pasa a ser 64) Inversiones prioritarias

En el marco de lo establecido en el artículo 33 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y para la promoción de las energías renovables, tendrán el carácter de inversiones



administrazio-izapideen eta laguntza publikoak esleitzearen ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak halakotzat jotzen dituen jarduketak hauek:

- a) Energiaren erregulazioa edo biltegiatzea aurreikusten dutenak.
- b) Esperimentalak.
- c) Parke eolikoak berrindartzea aurreikusten dutenak.
- d) Energia berriztagarrien instalazioak hibridatzekoak.
- e) Jabetza publikoan gauzatutakoak sortzekoak, baldin eta eragindako toki-erakundeen, irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo instalazioa kokatu nahi den udalerrian edo haren mugakide diren udalerrietan bizi diren pertsonen gutxienez % 20ren partaidetza ekonomikoa badute.
- f) Energia berriztagarrien komunitateena, herritarren energia-komunitateena eta tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuena, lege honen XX. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Gas-sisteman gas berriztagarria sortzeko eta injeztatzekoak.
- h) Basogintzako biomasa eta erabilera termikorako nekazaritzako azpiproduktuak aprobetxatzeko enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak.
- i) Tokiko energia-komunitateen eta herritarren energia-komunitateen proiektuak. Tokiko erakundeek Jasangarritasun Energetikoaren Funtsetik finantzaketa biguna lortu ahal izango dute energia berriztagarrien proiektuetarako.
- j) Guztizko energia-kontsumoaren murrizketan oinarrituta kalkulaturako nekazaritza-ekoizpena handitzen laguntzen duten proiektuak.
- k) Basogintzako biomasa eta erabilera termikorako nekazaritzako azpiproduktuak aprobetxatzeko enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak.
- l) Erregai fosilak erabiltzeko alternatiba desberdinak eta iraunkorrak garatzen dituzten edo karbono-hustubideak handitzen laguntzen duten erakunde publikoek bultzatutako proiektuak.
- m) Ekonomia zirkularreko eta jarduera ekonomikoko proiektuak ekoizpen- eta banaketa-ziklo laburretan.

prioritarias y urgentes a efectos de planificación, tramitación administrativa y asignación de ayudas públicas las siguientes actuaciones cuando sean declaradas como tales por el departamento competente en materia de energía del Gobierno Vasco:

- a) Las que contemplen la regulación o el almacenamiento de energía.
- b) De carácter experimental.
- c) Las que contemplen la repotenciación de parques eólicos.
- d) De hibridación de instalaciones de energías renovables.
- e) De generación ejecutados en propiedad pública que cuenten con la participación económica de al menos un 20 % de las entidades locales afectadas, de entidades sin ánimo de lucro, o de personas residentes en el municipio en el que se pretende situar su instalación, o de los municipios limítrofes.
- f) De comunidades de energías renovables, comunidades ciudadanas de energía, y los proyectos de generación renovable con participación local, de conformidad con lo establecido en el artículo XX de esta ley.
- g) De generación e inyección de gas renovable en el sistema gasista.
- h) Proyectos de pequeñas empresas o cooperativas para el aprovechamiento de la biomasa forestal y de subproductos agrícolas para usos térmicos.
- i) Proyectos de comunidades energéticas locales y comunidades ciudadanas de energía. Las entidades locales podrán obtener financiación blanda del Fondo de Sostenibilidad energética para sus proyectos de energías renovables.
- j) Proyectos que ayuden a la desintensificación de la producción agrícola calculada sobre la base de reducción de consumo de energía total.
- k) Proyectos de pequeñas empresas o cooperativas para el aprovechamiento de la biomasa forestal y de subproductos agrícolas para usos térmicos.
- l) Proyectos impulsados prioritariamente por organismos públicos que desarrollen alternativas diferentes y sostenibles al uso de combustibles fósiles o contribuyan al aumento de sumideros de carbono.
- m) Proyectos de economía circular y de actividad económica en ciclos cortos de producción y distribución.



- n) Hondakinak jatorrian bereizteko, ontziak berrerabiltzeko eta materialak berreskuratzeko proiektuak.
- o) Minizentral hidraulikoak berreskuratzea, hobetzea edo indartzea aurreikusten dutenak.
- p) Eraikinetan edo hiri-egituretan integratutako sorkuntza-instalazio esperimentalak edo berritzaileak.

**Lehenengo atala bis (berria, 2.a izango da)
Energia berriztagarrien kanona**

Artikulu berria. (65.a izango da) Kanonaren xedea eta izaera

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzea energia berriztagarrien kanon batez zergapetuko da, ingurune naturalean eta lurraldean eragin dezaketen afekzio eta inpaktu kaltegarriak direla eta. Kanona kanonaren helburuari buruzko 72. artikuluan aurreikusitako jarduketak garatzeko bideratuko da.
2. Atal honen ondorioetarako, energia berriztagarriko instalaziotzat hartuko dira energia elektrikoa sortzeko parke eolikoak eta fotovoltaiakoak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzeagatik kanona zerga zuzena, aldizkakoa eta izaera strafiskalekoa eta benetakoa da, konpentsazio-izaerakoa eta lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarriko instalazioak zergapetzen ditu.
4. Kanonak lege hau indarrean sartu aurretik Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako energia berriztagarriko instalazioei eragiten die, bai eta lege hau indarrean jarri ondoren ezartzen direnei ere, ustiapenean egon ala ez.

Artikulu berria. (66.a izango da) Zerga-egitatea

Zerga-egitatea da Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzearen ondorioz ingurune naturalean eta lurraldean ikusizko eta ingurumen-inpaktu kaltegarriak sortzea.

Artikulu berria. (67.a izango da) Salbuespenak

1. Kanonetik salbuetsita egongo dira autokontsumo elektrikoko instalazioak, energia elektrikoaren autokontsumoa arautzen duen

- n) Proyectos de separación de residuos en origen, reutilización de envases y recuperación de materiales.
- o) Los que contemplan la recuperación, mejora o repotenciación de minicentrales hidráulicas.
- p) Las instalaciones experimentales o innovadoras integradas en edificios o en estructuras urbanas para la generación.

**Sección primera bis (nueva, pasa a ser 2.ª)
Canon de energías renovables**

Artículo nuevo. (pasa a ser 65) Objeto y naturaleza del canon

1. La implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables, por las afecciones e impactos adversos sobre el medio natural y sobre el territorio que pudieran ocasionar, será gravado con un canon de energías renovables, que estará destinado a financiar el desarrollo de las actuaciones previstas en el artículo 72 relativo al destino del canon.
2. A los efectos de esta sección, se entenderá por instalaciones de energías renovables los parques eólicos y solares fotovoltaicos para la generación de energía eléctrica.
3. El canon por la implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables es un impuesto directo, periódico y de naturaleza extrafiscal y real, con carácter compensatorio, que grava las instalaciones de energías renovables en suelo no urbanizable.
4. El canon afecta tanto a las instalaciones de energías renovables implantadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley como a aquellas que se implanten una vez producida esta, independientemente de que se encuentren o no en explotación.

Artículo nuevo. (pasa a ser 66) Hecho imponible

Constituye el hecho imponible la generación de afecciones e impactos visuales y ambientales adversos sobre el medio natural y sobre el territorio derivados de la implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables.

Artículo nuevo. (pasa a ser 67) Exenciones

1. Estarán exentas del canon las instalaciones de autoconsumo eléctrico, definidas de acuerdo con la normativa en vigor que regula el



indarreko araudiaren arabera definituta, eta 5 MW-etik beherako potentzia sortzen dutenak, salbu eta pertsona fisiko edo juridikoaren edo erakunde beraren beste instalazio batzuekin lotuta edo lotutako beste pertsona edo erakunde batzuekin lotuta dauden instalazio horiek sareari, ebakuazio-linea beraren bidez, 5 MW-eko edo gehiagoko potentzia ematen badiote.

2. Ondorio horietarako, lotutako pertsona edo erakundetzat hartuko dira zerga-araudian ezarritakoak.

Artikulu berria. (68.a izango da) Zergadunak

1. Abenduaren 17ko Tributuen 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikuluko pertsona fisiko edo juridikoek edo entitateek ordaindu beharko dute kanona, baldin eta, edozein tituluren pean, zerga-egitatea sortzen duten parke eolikoak edo eguzki-parke fotovoltaikoak ustiatzen badituzte, nahiz eta horiek instalatzeko administrazio-baimenaren titularrak ez izan. Kontrako frogarik ezean, parke eoliko edo eguzki-parke fotovoltaiko baten ustiapena hura instalatzeko dagokion administrazio-baimenaren titular gisa agertzen den pertsonak edo erakundeak egiten duela ulertuko da.
2. Ustiapena eteten bada, zergaren zerga-egitatea sortzen duten energia berriztagarrien instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak edo erakundeak izango dira kanonaren zergadun.
3. Kanonaren zergadunak dira erantzule solidario gisa, honako hauek:
 - a) Parke eoliko edo eguzki-parke fotovoltaiko bat instalatzeko administrazio-baimenen titularrak diren pertsonak edo erakundeak, ustiapena egiten duena baimenaren titularra den pertsona edo erakundearekin bat ez datorrenean.
 - b) Instalazio eoliko edo eguzki-instalazio fotovoltaikoen pertsona edo erakunde titularrak, titulartasuna ez bada ustiapenaren pertsona edo erakunde titularra, ezta administrazio-baimenaren pertsona edo erakunde titularra ere.

Artikulu berria. (69.a izango da). Zergaldia eta sortzapena

1. Kanonaren zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, eta urte bakoitzeko lehen egunean sortuko da.

autoconsumo de energía eléctrica, y las de generación de potencia inferior a 5 MW, salvo que dichas instalaciones unidas a otras de la misma persona física o jurídica o entidad, o unidas a otras de personas o entidades vinculadas, entreguen a la red, a través de la misma línea de evacuación, una potencia igual o superior a 5 MW.

2. A estos efectos se considerarán personas o entidades vinculadas las establecidas en la normativa tributaria.

Artículo nuevo. (pasa a ser 68) Contribuyentes

1. Son contribuyentes del canon las personas físicas o jurídicas o entidades del artículo 35.4 de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, que, bajo cualquier título, lleven a cabo la explotación de parques eólicos o solares fotovoltaicos que generen el hecho imponible del impuesto, aunque no sean titulares de una autorización administrativa para su instalación. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que la explotación de un parque eólico o solar fotovoltaico es realizada por la persona o entidad que figure como titular de la correspondiente autorización administrativa para su instalación.
2. En caso de que cese la explotación, serán contribuyentes del canon las personas físicas o jurídicas o entidades que ostenten la titularidad de las instalaciones de energías renovables que generan el hecho imponible del impuesto.
3. Son contribuyentes del canon en calidad de responsables solidarios:
 - a) Las personas o entidades titulares de autorizaciones administrativas para la instalación de un parque eólico o solar fotovoltaico, cuando quien lleve a cabo la explotación no coincida con la persona o entidad titular de la autorización.
 - b) Las personas o entidades titulares de las instalaciones eólicas o solares fotovoltaicas, cuando dicha titularidad no concorra en la persona o entidad titular de la explotación ni en la persona o entidad titular de la autorización administrativa.

Artículo nuevo. (pasa a ser 69) Periodo impositivo y devengo

1. El periodo impositivo del canon coincidirá con el año natural y se devengará el primer día de cada año.



2. Instalazio berrien kasuan, zerbitzuan jartzen den egunean sortuko da zerga, eta zergaldia sortzapenetik dagokion urte naturaleko azken egunaren arteko aldia izango da.
3. Zerga-kuota zehazten duten elementuak aldatzen dituzten instalazioen kasuan, zergaldi berri bat irekiko da aldaketak zerbitzuan jartzen diren egunetik eta dagokion urte naturaleko azken egunaren arte.
4. Instalazioak behin betiko desegitearen kasuan, zergaldia sortzen denetik parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaikoa desegiten den egunera arteko aldia izango da.

Artikulu berria. (70.a izango da) Deklarazioak eta autoliquidazioak aurkeztea

1. Kanona aplikatzeari dagokionez, zergadunak behartuta daude tributua kuantifikatzeko beharrezkoak diren datuak, ezaugarriak eta inguruabarrak hasieran aitortzera, bai eta alde zuzenetik aitortutako datuetan egindako aldaketak ere, erregelamendu bidez zehaztutako moduan, epeetan eta lekuan.

Era berean, baja-deklarazioa aurkeztu beharko dute parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaikoa desegiten bada.

Administrazioak parke eolikoen eta eguzki-parke fotovoltaikoen erregistro bat izango du. Erregistro horren egitura, edukia eta konfigurazio- eta mantentze-prozedurak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

2. Zergadunak behartuta daude kanonaren autoliquidazioa aurkeztera, dagokion zerga-zorra zehaztuta, eta haren zenbatekoa erregelamendu bidez ezarritako moduan, epeetan eta lekuan ordainduko dute.
3. Kanona kudeatzen duten organoek, egoki iritziz gero, ofizioz behin-behineko likidazioa egin ahal izango diete zergadunei.

Artikulu berria. (71.a izango da) Zerga-oinarria

1. Eguzki-parke fotovoltaikoei aplikatu beharreko kanonaren zerga-oinarria instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan eragindako azalera izango da, besteak beste, egiturak eta panelak, sartzeko bideak eta egitura-errenkaden eta panelen arteko bideak barne hartuta, hala badagokio, ustiatzeko administrazio-baimenak ezartzen duenarekin bat etorriz.

2. En el caso de instalaciones nuevas, el impuesto se devengará el día de su puesta en servicio y el periodo impositivo se entenderá por el periodo existente entre el devengo y el último día del año natural correspondiente.
3. En el caso de instalaciones en las que se modifiquen, los elementos que determinan la cuota tributaria, se abrirá un nuevo periodo impositivo entre el día en que entren en servicio las modificaciones y el último día del año natural correspondiente.
4. En caso de desmantelamiento definitivo de las instalaciones, el periodo impositivo se entenderá por el periodo existente entre el devengo y la fecha de desmantelamiento del parque eólico o solar fotovoltaico.

Artículo nuevo. (pasa a ser 70) Presentación de declaraciones y autoliquidaciones

1. A los efectos de aplicación del canon, los contribuyentes están obligados a declarar inicialmente los datos, características y circunstancias necesarias para la cuantificación del tributo, así como las modificaciones de los datos previamente declarados, en la forma, plazos y lugar que se determinen reglamentariamente.

Asimismo, estarán obligados a presentar una declaración de baja, en el supuesto de desmantelamiento del parque eólico o solar fotovoltaico.

La Administración llevará un registro de parques eólicos y solares fotovoltaicos, cuya estructura y contenido, así como los procedimientos para su configuración y mantenimiento se determinarán reglamentariamente.

2. Los contribuyentes están obligados a presentar autoliquidación del canon determinando la deuda tributaria correspondiente, e ingresarán su importe en la forma, plazos y lugar que se establezcan reglamentariamente.
3. Los órganos gestores del canon podrán, si lo consideran conveniente, liquidar de oficio de forma provisional a los contribuyentes.

Artículo nuevo. (pasa a ser 71) Base imponible

1. La base imponible del canon aplicable a los parques solares fotovoltaicos será la superficie afectada por la instalación dentro de territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, incluyendo, entre otros elementos, las estructuras y paneles, los caminos de acceso y los caminos entre filas de estructuras y paneles, de acuerdo, en su caso, con lo que establezca la autorización administrativa de explotación.



2. Parke eolikoei aplikatu beharreko kanonaren zerga-oinarria Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatutako parke eoliko bakoitzean instalatutako aerosorgailuen kopurua eta horien potentzia izango da, ustiatzeko administrazio-baimenak ezartzen duenaren arabera.
3. Kanona kudeatzen duten organoek zeharkako zenbatespenaren bidez kalkulatu ahal izango dute zerga-oinarria, abenduaren 17ko Tributuen 58/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

Zerga-oinarriaren zeharkako zenbatespena egiteko, eskura dauden datu eta aurrekari garrantzitsuak erabili ahal izango dira, bai eta zerga-egitatea parametro arruntan arabera zeharka egiaztatzen duten elementu eta kasu antzekoetan edo baliokideetan dauden datu edo aurrekariaren arabera zergadunek dituzten magnitude, indize edo datuak ere.

2. La base imponible del canon aplicable a los parques eólicos será el número de aerogeneradores instalados en cada parque eólico, situados en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y su potencia, de acuerdo con lo que establezca la autorización administrativa de explotación.
3. Los órganos gestores del canon podrán calcular la base imponible por estimación indirecta en los casos previstos en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria.

Para la estimación indirecta de la base imponible podrán utilizarse los datos y antecedentes relevantes disponibles, así como aquellos elementos que indirectamente acrediten el hecho imponible conforme a los parámetros normales y las magnitudes, índices o datos que concurren en los contribuyentes según los datos o antecedentes que se posean de supuestos similares o equivalentes.

Artikulu berria. (72.a izango da) Kuota osoa

1. Eguzki-parke fotovoltaikoen kasuan, kuota osoa kalkulatzeko, 700 euroko karga-tasa aplikatuko da eragindako azalera-hektarea bakoitzeko.
2. Parke eolikoek kasuan, zerga-oinarriari aire-sorgailuko tarifa hauek aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa, hargatik eragotzi gabe x artikuluan salbuespenei buruz ezarritakoa:

Artículo nuevo. (pasa a ser 72) Cuota íntegra

1. En el caso de los parques solares fotovoltaicos la cuota íntegra resultará de aplicar un tipo de gravamen de 700 euros por cada hectárea de superficie afectada.
2. En el caso de los parques eólicos la cuota íntegra resultará de aplicar a la base imponible las siguientes tarifas por aerogenerador, sin perjuicio de lo establecido en el artículo x sobre exenciones:

Potencia aire-sorgailuko	Aerosorgailuen kopurua		
	1etik 5era	6tik 10era	11 edo gehiago
1 MW-era arte (barne)	2.600 euro	3.400 euro	4.200 euro
1 MW-etik eta 5 MW-era (barne)	3.200 euro	4.000 euro	4.800 euro
5 MW-etik gora	3.800 euro	4.600 euro	5.400 euro

Potencia por aerogenerador	Número de aerogeneradores		
	De 1 a 5	De 6 a 10	11 o más
Hasta 1 MW (incluido)	2.600 euros	3.400 euros	4.200 euros
Desde 1 MW hasta 5 MW (incluido)	3.200 euros	4.000 euros	4.800 euros
Desde 5 MW	3.800 euros	4.600 euros	5.400 euros



3. Instalazioak ustiatzen diren lehen urtean eta desegiten diren urtean, karga-tasak edo tarifak zergaldiko egun-kopuruaren arabera hainbanatuko dira.
4. Zerga-kuota zehazten duten elementuak aldatzen diren instalazioen kasuan, kuota osoa zergaldi bakoitzaren arabera kalkulatu da, zergaldiari dagokion egun kopuruarekiko modu proportzionalan.

Artikulu berria. (73.a izango da) Kanonaren helburua

Kanonetik eratorritako diru-sarrerak, kudeaketa-kostuak kenduta, ingurumena kontserbatu, birjarri eta leheneratzeko erabiliko dira, energia berriztagarrien instalazioek eragiten dieten Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetan, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

Era berean, diru-sarrera horiek erabiliko dira Euskal Autonomia Erkidegoan energiaren zentzuzko erabilera bultzatzeko eta sustatzeko jarduerak ezartzeko, energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamenduan efizientzia areagotzeko, lurraldea klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko, natura-ondarea kontserbatzeko eta natura-baliabideak jolaserako eta hezkuntzarako erabiltzeko.

Artikulu berria. (74.a izango da) Zehatzeko ahalmena

1. Tributuen arloko zehatzeko ahalmena administrazio arloko printzipio arautzaileen eta Tributuen Lege Orokorrean jasotako berezitasunen arabera gauzatuko da, eta lege horretan jasotako xedapen orokorrak aplikatuko dira.
2. Zerga-arloko arau-hausteen eta zehapenen sailkapena eta zerga-arloko zehapen-prozedura abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorrean eta hura garatzen eta osatzen duten gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Artikulu berria. (75.a izango da) Kanonaren kudeaketa

Kanona kudeatzea dekretuz zehazten den organoari dagokio, Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-aldaketaren arloan eta ogasunaren arloan eskumena duten sailek batera proposatuta.

3. Durante el primer año de explotación de las instalaciones y durante el año de desmantelamiento los tipos de gravamen o tarifas se prorratearán en función del número de días del periodo impositivo.
4. En el caso de instalaciones en las que se modifiquen los elementos que determinan la cuota tributaria, la cuota íntegra se calculará por cada periodo impositivo, de forma proporcional al número de días correspondientes a este periodo.

Artículo nuevo. (pasa a ser 73) Destino del canon

Los ingresos derivados del canon, deducidos los costes de gestión, se destinarán, en las zonas de la Comunidad Autónoma del País Vasco que resulten afectadas por las instalaciones de energías renovables de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente, a la conservación, reposición y restauración del medio ambiente.

Así mismo, dichos ingresos se destinarán a la implementación, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, de actuaciones de impulso y promoción del uso racional de la energía, dirigidas al incremento de la eficiencia en el aprovechamiento de los recursos energéticos renovables, a la adaptación del territorio a los efectos del cambio climático, a la conservación del patrimonio natural, y al uso recreativo y educativo de los recursos naturales.

Artículo nuevo. (pasa a ser 74) Potestad sancionadora

1. La potestad sancionadora en materia tributaria se ejercerá conforme a sus principios reguladores en materia administrativa y a las especialidades contempladas en la Ley General Tributaria, siendo de aplicación las disposiciones generales contenidas en ella.
2. La clasificación de las infracciones y sanciones tributarias y el procedimiento sancionador tributario se regirán por lo establecido en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, y en las demás disposiciones que la desarrollen y complementen.

Artículo nuevo. (pasa a ser 75) Gestión del canon

La gestión del canon corresponderá al órgano que se determine por decreto a propuesta conjunta de los departamentos competentes en materia de energía y cambio climático y de hacienda del Gobierno Vasco.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**Lehenengo xedapen gehigarria. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria eta lehenengo Estrategia**

Lege hau indarrean jarri eta gehienez ere 15 hilabeteko epean onetsiko ditu Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria eta Lehenengo Estrategia, zeinak lege honen 11. eta 12. artikuluetan arautzen baitira.

Bigarren xedapen gehigarria. Lurralde historikoetako eta toki-erakundeen klima- eta energia-planak

Lege hau indarrean jarri eta bi urteen barruan onartuko dira lurralde historikoetako eta toki-erakundeetako klima- eta energia-planak, zeinak lege honen 13. artikuluan zehazten baitira.

Hirugarren xedapen gehigarria. Aurrekontuen arloko gidalerroak

Lege honetan adierazitako helburuak lortzeko, ezartzen da ezen, legea indarrean jarri eta 18 hilabeteko epean, legea betetzeko bideratuko diren aurrekontu-partidak identifikatzeko eta sortzeko gidalerroak landuko dituztela Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak.

Bosgarren xedapen gehigarria. (laugarrena izango da) Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoaren funtzionamendu-erregelamendua onartzea

Eusko Jaurlaritzak lege hau onartu eta gehienez ere urtebeteko epean onartuko du Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoaren funtzionamendu-erregelamendua.

Bosgarren xedapen gehigarria bis. (berria, bosgarrena izango da) Energiaren arloko helburu eta betebeharrak sektorialak

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako helburu eta betebeharrak sektorialak gorantz berrikusi ahal izango dira, onartuko diren plangintza- edo legegintza-tresnen bidez.

Bosgarren ter xedapen gehigarria. (berria, seigarrena izango da) Helburuen berrikuspena

Lege honen 1, 16 eta 17. artikuluetan ezarritako helburu kuantitatiboak gorantz berrikusi ahal izango dira, onartuko diren plangintza- edo legegintza-tresnen bidez.

DISPOSICIONES ADICIONALES**Disposición adicional primera. Hoja de Ruta de Largo Plazo y la primera Estrategia de Transición Energética y Cambio Climático**

Epe ertainean, Estatuan Energia eta Klimaren 2021-2030 Plan Nazional Integratuak (PNIEC) ezartzen ditu 2030erako helburuak: energia berriztagarrien hartzea % 42koa izatea; efizientzia energetikoa hobetzea, energia primarioaren kontsumoa % 39,5 murriztuta; eta berotegi-efektuko gasen emisioak % 23 murriztea 1990ekoekin alderatuta. Gaur egun, helburu horiek gorantz berrikusten ari dira.

Bestalde, Klima Aldaketara Egokitzeko 2021-2030 urteetako Plan Nazionalaren helburu nagusia klima-aldaketaren eraginekiko ekintza koordinatua eta koherentea sustatzea da, horrela klima-aldaketatik datozen egungo eta etorkizuneko kalteak saihestu edo murrizteko eta ekonomia eta gizarte erresilienteagoak eraikitzeko.

IV

Eskualdeek eta toki-erakundeek klima-aldaketa arintzeko neurrien % 70 baino gehiago hartzen dituzte eta egokitzapen-neurrien % 90eraino, eta EBko legeria guztiaren % 70 baino gehiago aplikatzen dute; horretarako, gastu publikoaren heren bat eta inbertsio publikoaren bi heren bideratzen dira. Bestalde, dei egiten zaie enpresei, herritarrei eta sektore ekonomiko guztiei, lehen sektoreari ere bai, laguntza eman dezaten eta jardunbideak molda ditzaten, ezarri diren helburuak lortu ahal izateko. Hortaz, klima-neutraltasuna lehenbailehen lortzeko helbururantz jarraitu behar da, eta lortuko bada, eskualdeen eta toki-erakundeek laguntza eta lankidetzarekin izango da.

que establece un Régimen de Comercio de Derechos de Emisión (RCDE) y las revisiones de las directivas sobre eficiencia energética, energías renovables y fiscalidad de la energía.

III

A nivel estatal, la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de cambio climático y transición energética, que junto con la legislación europea constituye el marco de la presente ley, pretende alcanzar la neutralidad de emisiones, a más tardar en 2050. Para ello, en 2030, las emisiones del conjunto de la economía española deberán reducirse en al menos un 23 % respecto al año 1990. Los objetivos marcados por la presente ley son coherentes con el esfuerzo que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco para la consecución de dichos objetivos.

Así mismo, la Estrategia a Largo Plazo para una Economía Española Moderna, Competitiva y Climáticamente Neutra en 2050 (ELP 2050) muestra una senda que permitirá que en el Estado se reduzcan, no más tarde de 2050, las emisiones de gases de efecto invernadero en un 90 % respecto a 1990. El 10 % restante de las emisiones será absorbido por los sumideros de carbono, lo que supondría alcanzar la neutralidad climática.

A medio plazo, a nivel estatal, el Plan Nacional Integrado de Energía y Clima (PNIEC) 2021-2030 establece los objetivos para el año 2030 de penetración de energías renovables en un 42 %, de mejora de eficiencia energética reduciendo un 39,5 % el consumo de energía primaria y de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero en un 23 % respecto al 1990. En la actualidad, estos objetivos están siendo revisados al alza.

Por su parte, la planificación estatal con el Plan Nacional de Adaptación al Cambio Climático, PNACC 2021-2030, tiene como objetivo general promover la acción coordinada y coherente frente a los efectos del cambio climático, con el fin de evitar o reducir los daños presentes y futuros derivados del cambio climático y construir una economía y una sociedad más resilientes.

IV

Las regiones y entidades locales adoptan más del 70 % de las medidas de mitigación del cambio climático y hasta el 90 % de las medidas de adaptación, y aplican el 70 % de toda la legislación de la UE, lo que representa un tercio del gasto público y dos tercios de la inversión pública. Por otra parte, la ciudadanía y las empresas, junto con todos los sectores económicos, incluido el sector primario, están llamados a colaborar y modificar sus comportamientos para que sea posible alcanzar los objetivos fijados. Por consiguiente, el objetivo de alcanzar la neutralidad climática lo antes posible debe perseguirse y sólo se alcanzará con el apoyo y la colaboración de las regiones y entidades locales.



Euskadin, epe luzeko egungo ikuspegitik, energia-sistemak duen erronka eredu energetiko gero eta jasangarriagorantz aurrera egitea da, emisioak gutxitzeari, hornidurak bermatzeari eta lehiakortasunari dagokionez. Epe ertainean, indarrean dagoen Euskadiko 2030erako Energia Estrategiak (3E2030) garatu beharreko jarduketak zehazten ditu, 2030era arte, energia-eskaria kontrolatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko, bertako baliabide berriztagarrien ustiapena handitzeko eta erregai fosilen kontsumoa murrizteko. Plangintza hori lotuta dago, beste helburu batzuen artean, ekonomiaren deskarbonizazioarekin, garapen teknologikoarekin eta EAEko industriak nazioarteko merkatuan duen kokatzearekin.

Aldaketa klimatikoari buruzko esparru estrategikoaren azken eguneraketa 2015ean zehaztu zen, Klima 2050-Klima Aldaketaren Euskal Estrategia onestearekin, zeinak helburu bikoitza uztartzen du: alde batetik, berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 gutxitzea 2030erako eta % 80 gutxitzea 2050 urterako, 2005 erreferentziatzat hartuta, eta, bestetik klima-aldaketaren eraginetara egokitzea. Klima-larrialdiaren gaur egungo testuinguruan, helburu horiek gorantz berrikusi behar dira.

2019ko uztailan, Euskadik bat egin zuen mundu osoko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin, klima-larrialdiaren deklarazio formalaren bidez. Horren helburua da politika publikoak azkartzea lurraldea eta gizartea karbonoan neutroak eta erresilienteagoak izan daitezela. Era berean, Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historikoetako batzar nagusiek ere konpromisoa hartu dute behar diren ekimenak sustatu, bultzatu eta adosteko klima-larrialdiaren aurrean anbizioz eta urgentziaz ekite aldera.

Euskadik 2019ko abenduaren 11ko Europako Hitzarmen Berdearekin bat egin zuen Basque Green Deal (BGD) delakoaren bitartez, etorkizun jasangarriagoa lortzeko eta krisialdi itxi inor atzean utzi gabe ateratzeko. Basque Green Dealek emisioak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko helburuak jasotzen ditu, baina ez da eremu horietara mugatzen, ekonomia eredu gisa jaiotzen baita, industria eta teknologia ardatz nagusiak izanda. Horregatik, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikadura katea helburu berean lerrokatzen dira: garapen bidezko eta jasangarria.

2021eko urriaren 26an, Eusko Jaurlaritzak 2021-2024 Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana onetsi zuen. Plan horren xedeak hauek dira: berotegi-efektuko gasen emisioak % 30 murriztea 2005. urtearekin alderatuta, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea eta EAEren lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren aurrean.

En Euskadi, la visión actual a largo plazo del sistema energético tiene como reto avanzar hacia un modelo energético cada vez más sostenible, en términos de reducción de emisiones, garantía de suministros y competitividad. A medio plazo, la Estrategia Energética de Euskadi 2030 (3E2030), actualmente vigente, establece las actuaciones a desarrollar hasta el año 2030 para controlar la demanda energética, mejorar la competitividad, incrementar el nivel de aprovechamiento de los recursos autóctonos renovables y reducir el consumo de los combustibles fósiles. Esta planificación se vincula, entre otros objetivos, a la descarbonización de la economía y al desarrollo tecnológico y al posicionamiento de la industria vasca en el mercado internacional.

La última actualización del marco estratégico sobre el cambio climático se concretó con la aprobación, en 2015, de la Estrategia Vasca de Cambio Climático-Klima 2050, que integra el doble objetivo de reducir las emisiones de gases de efecto invernadero, en un 40 % de reducción para 2030 y un 80 % para 2050, respecto a 2005, y adaptarse a los efectos del cambio climático. El contexto de emergencia climática en el que nos encontramos hace que estos objetivos deban ser revisados al alza.

En julio de 2019, Euskadi se unió a instituciones políticas, sociales y académicas de todo el mundo con la declaración formal de emergencia climática, con el objetivo de acelerar las políticas públicas para lograr un territorio y una sociedad neutros en carbono y más resilientes. Adicionalmente, el Parlamento Vasco y las juntas generales de los territorios históricos también se han comprometido a promover, impulsar y acordar las iniciativas necesarias a fin de actuar con ambición y urgencia frente a la emergencia climática.

Euskadi se sumó al Pacto Verde Europeo, de fecha 11 de diciembre de 2019, mediante el Basque Green Deal (BGD), con el objetivo de lograr un futuro más sostenible, dando salida a la crisis sin dejar a nadie atrás. El Basque Green Deal recoge objetivos de reducción de emisiones y de generación de energía renovable, pero no se limita a esos ámbitos, ya que nace como modelo económico, con la industria y la tecnología como principales palancas, por lo que ciencia, tecnología, economía circular, industria, transición energética o la propia cadena de la alimentación se alinean con un mismo objetivo: el desarrollo justo y sostenible.

El 26 de octubre de 2021 el Gobierno Vasco aprobó el Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024, que busca reducir en un 30 % la emisión de gases de efecto invernadero respecto a 2005, lograr que la cuota de energías renovables represente el 20 % del consumo final de energía y asegurar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Euskadik ibilbide luzea du energiari eta klima-aldaketari buruzko politiketan. Industriak EAEko ekonomian duen garrantzia dela eta, industria-politika ezinbesteko tresna da trantsizioan, industria berritzailea eta aldaketaren motorra izan dadin. Horregatik, Administrazioak, industria-klusteren eta energia-enpresa nagusiekin laguntzarekin, Basque Net Zero Industrial Super Cluster delakoa jarri du abian, industriaren deskarbonizazioa eta energia-efizientzia azkartzea bilatzeko, aldi berean, garapen teknologikoan eta berrikuntzan oinarritutako merkatu-aukerak aprobetxatzea bideratuz. Euskadik bat egin du World Economic Forum (WEF) garatzen ari den programarekin, industria-trantsizioa bultzatzeko 2050ean zero emisio garbi lortzeko helburuarekin.

V

Gaur egun, Euskadik kanpoko energia-mendekotasun handia du, energia-kontsumo osoaren % 90 inguru. Petrolioaren eratorriak dira energia-iturri erabiliena, ondoren gas naturala dago, eta energiaren azken kontsumoan erregai fosilen portzentajea % 83,9 izan zen 2022an.

2022ko azken energia-kontsumoaren egiturari erreparatzen badiogu, energia-eskari handiena garraio-sektorekoa da, kontsumoaren % 44,6, eta, ondoren, industriakoa, kontsumoaren % 35,3. Bizitegi-sektoreak energiaren % 11,4 kontsumitu zuen, eta zerbitzuen sektoreak, berriz, kontsumitutako energiaren % 8,1. Bestalde, lehen sektoreak gutzitzkoaren % 0,6 baino ez zuen kontsumitu.

1990-2022 aldian, EAEko energia-eskariaren egitura nabarmen aldatu da: gas naturalak eta energia berriztagarriek matrize energetikoan duten parte-hartzea handitu egin da, petrolioaren eratorrien kaltetan, eta ikatza ia desagertu egin da. Amaierako kontsumo energetiko sektorialari dagokionez, industria-sektorearen gutxitzea kontsumoan duen partizipazioaren gutxitzean islatzen da, % 62tik % 35era igaro baita, besteak beste, efizientzia energetikoan izandako aurrerapenei esker; garraio sektoreari dagokionez, kontsumoa handitu egin da, % 22tik % 44ra igarota; eta eraikinetan areagotu egiten da, % 14etik % 20ra, batez ere zerbitzuen sektorearen handitzeak bultzatuta. Datu horiekin, lehenetsunezkoa da garraioaren sektorean ekitea, gaur egun Euskadin energia gehien kontsumitzen duen sektorea delako, bai eta berotegi-efektuko gasen isurle handiena ere. Hala, xedea da kontsumoak gutxitzea eta erregai fosilak atzean uztea da, pertsonen zein salgaien garraioan.

Euskadin, euskal politika energetikoak ingurumen-aldagaia txertatzen du, 1990etik, ondoko estrategia energetikoen diseinu eta garapenean, berotegi-efektuko gasen emisioak eta

Euskadi tiene un largo recorrido en políticas energéticas y de cambio climático. Debido al fuerte carácter industrial de la economía vasca, la política industrial se erige como una herramienta capital en la transición, con el objetivo de que la industria vasca sea innovadora y motor de cambio. Es por ello que, con el apoyo de los clústeres industriales y las principales empresas energéticas, la Administración ha lanzado el Basque Net Zero Industrial Super Cluster, buscando acelerar la descarbonización de la industria y la eficiencia energética, favoreciendo a su vez aprovechar oportunidades de mercado basadas en desarrollo tecnológico y la innovación. Euskadi también se ha unido al programa que está desarrollando el World Economic Forum (WEF) con el objeto de impulsar la transición industrial hacia emisiones netas cero en 2050.

V

En la actualidad, Euskadi presenta una alta dependencia energética exterior, en torno al 90 % del consumo total energético. Los derivados de petróleo son la fuente energética más utilizada, seguida del gas natural, y el porcentaje de combustibles fósiles en el consumo final energético constituyó, en 2022, un 83,9 %.

Si observamos la estructura del consumo energético final en 2022, la mayor demanda de energía provino del sector del transporte, con un 44,6 % del consumo, seguido de la industria, con un 35,3 % del consumo. El sector residencial consumió el 11,4 % de la energía, mientras que el sector servicios utilizó el 8,1 % de la energía consumida. El sector primario, por su parte, solamente consumió el 0,6 % del total.

En el periodo 1990-2022 la estructura de la demanda energética vasca se ha modificado sustancialmente, incrementándose la participación del gas natural y las energías renovables en la matriz energética, en detrimento de los derivados del petróleo, y la práctica desaparición del carbón. Respecto al consumo energético final sectorial, la reducción del sector industrial queda reflejada en una disminución de su participación en el consumo total del 62 % al 35 %, entre otros factores debido a avances en eficiencia energética, mientras que el aumento del consumo del sector transporte hizo que este pasara del 22 % al 44 %, mientras en las edificaciones se incrementó del 14 % al 20 % impulsado, sobre todo, por el aumento en el sector servicios. Con estos datos, es prioritario actuar sobre el sector del transporte, dado que en la actualidad es el mayor consumidor de energía en Euskadi y el mayor emisor de GEI, con el objetivo de reducir consumos e ir dejando atrás los combustibles fósiles, tanto en el transporte de personas como de mercancías.

En Euskadi, la política energética viene integrando la variable ambiental, desde 1990, en el diseño y desarrollo de sus sucesivas estrategias energéticas, estableciendo objetivos de reducción,



atmosfera kutsatzaileak murrizteko helburuak ezarri. Euskadin 2016-2030 aldirako indarrean dagoen energia-estrategiari lotutako helburuen artean, azpimarratzekoak dira 2030ean energiaren eskaria % 17 murriztea joera-agertokiari dagokionez, energiaren intentsitatea % 33 hobetzea, energiaren amaierako kontsumoan energia berriztagarrien erabilera % 13tik % 21era igarotzea, 2015 urtea erreferentziatzat hartuta, petroliotik eratorritakoak % 18 murriztea, eta energia-jatorria duten CO₂ emisioak 3 Mt apaltzen laguntzea.

Trantsizio energetikoak aldaketa sakona eragingo du energiaren sektorean. Azken helburua energia-matrize dibertsifikatua, berriztagarria eta deskarbonizatua lortzea da, energia-hornidura segurua ekarriko duena arrazoizko kostuan. Horretarako, kontsumoak murriztu behar dira aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurrien bidez, energia berriztagarriak ezarri behar dira eta lehen sektorean, erakuntzan, industrian eta garraioan eraldaketa garrantzitsua egon behar da.

Klima-neutraltasuna lortzeko energia-trantsizioa egitea eragile instituzional, sozial eta ekonomiko guztiei dagokie. Azken batean, gizarte osoa hartzen du erantzunkide. Sistema energetikoak baliabide energetiko banatuen aprobetxamenduan oinarrituta egon behar du, eta, horren barruan, aldizkako energia-iturri berriztagarrien aldizkako osagarri, energia nahikoa biltegitzeko sistemak erabili beharko dira, sare energetiko adimendunak garatu eta eskariaren kudeaketan jarrera aktiboa hartu. Gizarte osoak trantsizioan zeregin aktiboa izan dezala sustatuko da, bai kontsumoak murriztearen ikuspegitik, bai sorkuntzaren ikuspegitik. Horrela, lehentasunezkoa da autokontsumoa orokortzea, banakakoa zein kolektiboa, partikularrena zein enpresena, baita energia-komunitateak hedatzea ere.

Deskarbonizazioa lortzeko, beharrezkoa izango da elektrizitatearen azken kontsumoaren ehuneko handitzea eta sare energetikoen interkonexio eta integrazio handiagoa. Beharrezkoa izango da energia-politika egonkortuak, hala nola, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak, beste batzuekin uztartzea, energia-ereduan aurrerapen teknologikoak txertatu ahal izateko eta sektore guztietan pertsona eta enpresa kontsumitzaileak egokitzen laguntzeko.

Ezinbestekoa da proaktiboak izatea energia-irtenbide berriak garatzean, iturri berriak zein bektore energetikoak garatzeko orduan, deskarbonizazioan aurrera egiteko eta EAEko administrazio publikoak erreferente bihurtzeko jardueraren sektoreen eta herritarren aurrean, trantsizio energetikoari dagokionez. Halaber, lehentasunezkoa da EAEko industria arlo energetikoan nazioarteko erreferente teknologiko bihurtzea. Horretarako, berrikuntza-jarduerak erraztu eta sustatuko dira balio-kate osoan, eta EAEko zientzia- eta teknologia-sistemaren balioa

tanto de emisiones de gases de efecto invernadero como de contaminantes atmosféricos. Entre los objetivos asociados a la estrategia energética vigente en Euskadi para el periodo 2016-2030, destacan reducir la demanda energética en un 17 % en 2030 con respecto al escenario tendencial, mejorar la intensidad energética en un 33 %, pasar de un 13 % al 21 % en el uso de energía renovable en el consumo final, reducir un 18 % el consumo de derivados del petróleo respecto a 2015 y contribuir a la mitigación de 3 Mt de emisiones de CO₂ de origen energético.

La transición energética supondrá una transformación profunda del sector energético. El objetivo final es lograr una matriz energética diversificada, renovable y descarbonizada que dé lugar a un suministro de energía seguro a un coste asequible. Para ello se requiere reducir consumos a través de medidas de ahorro y eficiencia energética e implementar energías renovables y se requiere una importante transformación de los sectores primario, de la edificación, industrial y del transporte.

Realizar la transición energética con el objetivo de alcanzar la neutralidad climática concierne a todos los agentes institucionales, sociales y económicos. En definitiva, corresponsabiliza a toda la sociedad. Se tenderá a un sistema energético basado en el aprovechamiento de recursos energéticos distribuidos, en el que las fuentes de energía renovable de carácter intermitente se deberán complementar con suficiente almacenamiento de energía, con el desarrollo de redes energéticas inteligentes y con un papel activo en la gestión de la demanda, fomentando un papel activo de toda la sociedad en la transición, tanto desde el punto de vista de la reducción de los consumos como en la generación. De esta manera, resulta prioritario generalizar el autoconsumo, tanto individual como colectivo, tanto de particulares como de empresas, así como propagar las comunidades energéticas.

La descarbonización va a requerir un mayor porcentaje de consumo final de electricidad y una mayor interconexión e integración de las redes energéticas. Será necesario combinar las políticas energéticas consolidadas, como la eficiencia energética y las energías renovables, con otras que permitan ir incorporando avances tecnológicos en el modelo energético y facilitando la adaptación de las personas y empresas consumidoras en todos los sectores.

Es imprescindible ser proactivos en el desarrollo de nuevas soluciones energéticas, tanto en el desarrollo de nuevas fuentes como de vectores energéticos, para avanzar en la descarbonización, así como convertir a las administraciones públicas vascas en referentes de la transición energética respecto a los distintos sectores de actividad y ante la propia ciudadanía. También resulta prioritario posicionar a la industria vasca como referente tecnológico en materia energética a nivel internacional, facilitando e impulsando las actividades de innovación en toda su

azpimarratuko da. Era berean, ekonomia zirkularreko estrategiak, bizitza-zikloaren ikuspegia txertatuta, funtsezkoak izango dira deskarbonizazioaren helburua lortzeko.

VI

Ihobe sozietate publikoak argitaratutako berotegi-efektuko gasen azken inbentarioaren arabera, Euskadin berotegi-efektuko gasen isurketak, 17,6 milioi tona CO₂ baliokide izan ziren 2021ean, batez beste, 8 tona biztanle bakoitzeko, Europar Batasuneko batezbestekoa baino apur bat handiagoa. 1990. urtearekin alderatuta, % 15 murriztu dira isurketak, eta 2005. urtearekin alderatuta, % 31 murriztu dira.

Isurketak sektoreka aztertuta, energiaren eraldaketa % 31 da, industria % 20, garraioa % 35, bizitegi-sektorea % 5, zerbitzuak % 2, nekazaritza % 3 eta hondakinak % 4. Datu horiek gida gisa erabili behar dira klima-aldaketari aurre egiteko legezko neurriak ezartzeko orduan, arintzeari dagokionez. Horregatik, premiazkoa da arreta energia-sorkuntzan eta garraioan jartzea.

Industriatik eratorritako isurketak % 36 murriztu ziren, eta sektore energetikoarenak % 49, erreferentzia-urtea 2005 bada, eta % 52 eta % 31, hurrenez hurren, 1990 hartzen badugu oinarritzat. Hala ere, garraioaren isurketak % 9 igo ziren aldi horretan; % 119, 1990ekoekin alderatuta. Lurraren erabileren, luraren erabileren aldaketaren eta basogintzaren sektorean CO₂ xurgapen garbia egon da aztertutako urte guztietan, eta batez beste 1.922 kt CO₂ eq/urte finkatu dira, 415 eta 2.930 kt CO₂ eq/urte artean. Bestalde, BPGdeko unitate bat ekoizteko sortutako isurketak % 30 jaitsi dira 2005etik, eta % 35, berriz, 1990etik. Horrek esan nahi du EAEko ekonomia zenbateraino banandu den sortutako isurketetatik.

Nazio Batuetako Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldearen 2018ko Txosten Bereziak proposatutako murrizketa-helburuari dagokionez, Euskadiko emisioak % 19 jaitsi ziren 2010. urtearekin alderatuta, eta tenperatura globala 2 °C-tik behera mugatzeari dagokion 2010-2030 aldiko murrizketa-bidearen azpitik geratu ziren, baina 1,5 °C-tik gora; beraz, ahalegin handiagoa egin behar da bide horri heltzeko.

Klima-aldaketaren ondorioz Euskadin espero diren aldaketa nagusiei dagokionez, honako hauek aurreikusten dira: tenperaturak oro har igotzea, prezipitazio-erregimena aldatzea, uraren tenperatura berotzea, itsas maila igotzea eta fauna eta florako hainbat espezie aldaketetara ez egokitzeko arriskua,

cadena de valor y poniendo en valor el sistema vasco de ciencia y tecnología. Asimismo, las estrategias de economía circular, incorporando el análisis de ciclo de vida, serán fundamentales para la consecución del objetivo de descarbonización.

VI

Según el último inventario de emisiones de gases de efecto invernadero publicado por la sociedad pública Ihobe, las emisiones de gases de efecto invernadero de Euskadi correspondientes al año 2021 fueron de 17,6 millones de toneladas equivalentes de CO₂, emitiendo, en promedio, 8 toneladas por cada habitante, cifra ligeramente superior al promedio de la Unión Europea. Respecto al año 1990 supone una reducción de un 15 % y respecto al año 2005 las emisiones disminuyeron un 31 %.

Analizadas las emisiones sectorialmente, la transformación de la energía supone el 31 %, la industria supone el 20 %, el transporte el 35 %, el sector residencial el 5 %, los servicios el 2 %, la agricultura el 3 % y los residuos el 4 %. Estos datos deben servir de guía a la hora de implantar medidas legales para hacer frente al cambio climático en su vertiente de la mitigación. Por ello, poner el foco en la generación energética y en el transporte es primordial.

Las emisiones derivadas de la industria se redujeron un 36 % y las del sector energético un 49 % respecto a 2005, y un 52 % y un 31 %, respectivamente, respecto a 1990. No obstante, las emisiones del transporte aumentaron un 9 % en este mismo periodo, y un 119 % respecto a 1990. En el sector de usos de la tierra, cambio de usos de la tierra y silvicultura, Utcuts, ha habido una absorción neta de CO₂ en todos los años estudiados, con un promedio de 1.922 kt CO₂ eq/año fijadas, oscilando entre 415 y 2.930 kt CO₂ eq/año. Por otro lado, las emisiones generadas para producir una unidad de PIB, han descendido un 30 % respecto a 2005 y un 35 % respecto a 1990, lo que indica el grado de desacoplamiento de la economía vasca respecto a las emisiones generadas.

En relación con el objetivo de reducción propuesto por el Informe Especial del Grupo Intergubernamental sobre el Cambio Climático de las Naciones Unidas, de 2018, las emisiones en Euskadi disminuyeron un 19 % respecto al año 2010, quedando por debajo de la senda de reducción 2010-2030 correspondiente a la limitación de la temperatura global por debajo de 2 °C, pero por encima de la senda de 1,5 °C, por lo que son necesarios mayores esfuerzos para alcanzar esta senda.

En cuanto a los principales cambios esperados en Euskadi como consecuencia del cambio climático, se estima un incremento generalizado de temperaturas, un cambio en el régimen de precipitaciones, un calentamiento de la temperatura del agua, el ascenso del nivel del mar y un riesgo de



horien artean, gaur egun finkatuta dauden laboreak. Gertatzearen diren aldaketa horien tamaina eta garrantzia kontuan hartuta, beharrezkoa da lege hau onestea, EAEko lurralde-ordenamendu juridikoan klima-aldaketaren aldagaia gehitu dadin eta, modu horretan, trantsizio energetikorako oinarri egokiak ezar daitezzen. Bestalde, nahiz eta trantsizio hori osorik egin eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu, ebidentzia zientifikoak adierazten du klima-aldaketa bertan dugula eta ondorio saihetsezinak eragingo dituela hamarkada luzez; horregatik, gizarte osoa egokitzeko ahalegina egin behar da eta, bereziki, sistema instituzional eta ekonomikoa egokitzeko ahalegina, epe ertain eta luzean ondorioak eta kostuak arintzeko eta lurraldearen erresilientzia hobetzeko.

Erronka horri eman beharreko erantzunak esparru juridiko bat behar du, esparru horren barruan estrategiak, ekintza-planak eta tresnak zehaztu eta abian jartzeko, 2050erako berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lor dadin, 2030ean eta 2040an tarteko helburuak ezarrita, eta gure lurraldea klima-aldaketaren aurrean erresilienteagoa izan dadin, eta, horretarako, erakunde arteko koordinazio-mekanismoak eta -organoak aktibatu behar dira trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan.

Halaber, Europako Itun Berdearekin lerrokaturik, trantsizio energetikoak eta klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak ekoizpen-sektoreen eta sektore publikoaren eraldaketa digitalaren eskutik etorri behar dute, esparru horietan bietan egindako aurrerapenak optimizatzeko. Horrenbestez, administrazio publikoek aprobetxatu behar dituzte bi trantsizio horiek, trantsizio berdeak eta trantsizio digitalak, eskaintzen dituzten aukerak, helburu klimatiko eta energetikoak betetzeko, teknologiak eta digitalizazioak eskaintako aurrerapenak txertatuz.

VII

Gizarte jasangarria lortzeko aldaketa-prozesua tamaina handiko erronka da ingurumen, energia eta gizartearen esparruetan. Hiru hamarkadaren buruan, errotik aldatu beharko da EAEko energia-sistema, eta erabateko eraldaketa beharko da EAEko ekonomiaren oinarrietan eta horren produktu eta zerbitzuen ekoizpen- eta kontsumo-prozesuetan; azkenik, gizarte-usadio eta ohiturak ere egokitu beharko dira.

Trantsizio esanguratsu horri esker, arriskuak arrisku, gizarte-, ingurumen-, ekonomia- eta enpresa-, aukera nabarmenak sortuko dira, eta hainbat eragilek aukera horiek baliatu ahal izango dituzte, ekonomia berri baten oinarriak finkatzeko, eta epe ertain eta luzean bideragarriak izango diren enpresek, testuinguru berrian aberastasuna eta enplegua sortuz eta gizartearen ongizate- eta kohesio estandar altuak sustatuz.

inadaptación a los cambios de diversas especies de fauna y flora, incluyendo cultivos consolidados a día de hoy. La magnitud y trascendencia de los cambios en ciernes justifica la necesidad de aprobar la presente ley, incorporando en el ordenamiento jurídico del territorio de la Comunidad Autónoma la variable del cambio climático, al tiempo que se sienten unas bases adecuadas para la transición energética. Por otro lado, aunque esta transición se complete con éxito y se alcancen los objetivos de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, la evidencia científica indica que el cambio climático es un hecho que tendrá consecuencias inevitables durante décadas, lo que exige un esfuerzo de adaptación de toda la sociedad y, en especial, del sistema institucional y económico, para mitigar las consecuencias y los costes de estas en el medio y largo plazo y mejorar la resiliencia del territorio.

La respuesta a este reto requiere establecer el marco jurídico que permita definir y poner en marcha estrategias, planes de acción y herramientas para conseguir la neutralidad en la emisión de gases de efecto invernadero en el horizonte 2050, estableciendo objetivos intermedios para 2030 y 2040, y avanzar hacia un territorio más resiliente al cambio climático, activando los mecanismos y órganos de coordinación interinstitucional en materia de transición energética y cambio climático.

Así mismo, en línea con el Pacto Verde Europeo, la transición energética y las políticas de mitigación y adaptación al cambio climático deben ir de la mano de la transformación digital de los sectores productivos y del sector público, con el fin de optimizar los avances realizados en ambos ámbitos. Así pues, las administraciones públicas deben aprovechar las oportunidades que ofrece esta doble transición, verde y digital, para cumplir con los objetivos climáticos y energéticos, incorporando los avances ofrecidos por la tecnología y la digitalización.

VII

El proceso de transformación hacia una sociedad sostenible supone un reto de gran magnitud a nivel ambiental, energético y social. Implicará, en un horizonte temporal de unas tres décadas, una modificación radical del sistema energético vasco y una transformación profunda de las bases de la economía vasca y de sus procesos productivos y de consumo de productos y servicios, además de una adaptación de los usos y costumbres sociales.

Esta significativa transformación, aun comportando diversos riesgos, dará paso a notables oportunidades sociales, ambientales, económicas y empresariales que pueden ser aprovechadas por los diversos agentes para sentar las bases de una nueva economía, con empresas viables en el medio y largo plazo, generando riqueza y empleo en el nuevo contexto y promoviendo altos estándares de bienestar y cohesión social.



Aspiegiturak, gaitasunak, ekoizpen-prozesuak eta prozesu logistikoak, kontsumo moduak eta enpresek eta instituzioek eskainitako produktuak eta zerbitzuak egokitu beharko dira karbono-aztarna txikiagoa sortzeko, eta, modu horretan, eskuragarri dauden baliabide mugatuak erabileran hobetzeko ekoizpenari eta efizientziari dagokienez, EAEko enpresak tokiko, Estatuko eta Europako merkatuetan lehiatu eta kokatu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa izango da enpresa-estrategia berriak eta negozio-eredu berritzaileak ezartzea jasangarritasun sozial eta ekonomikoan oinarrituta.

Gainera, trantsizio energetikoa lortzeko, inbertsio publiko eta pribatu handiak egin beharko dira hurrengo hamarkadetan, energia-efizientzian, kontsumoen elektrifikazioan, energia berriztagarrietan, biltegitratze-sistemetan, hidrogeno berriztagarrian, sare energetiko digitaletan eta horiei lotutako beste teknologietan. Inbertsio horiek gure lurraldean etekin ekonomikoa sortzeko, trantsizio energetikoko estrategiak garapen teknologiko eta industrialeko estrategiekin osatu eta babestu behar dira, zeinek energia- eta ingurumen-inbertsioak garapen-aukeratzat baliatzea ahalbidetuko duten instituzio publikoentzat eta enpresa-sektoreentzat, bai eta horiei lotutako balio-kateentzat ere, produktu eta zerbitzu lehiakorrek garatuz, negozio eredu berriak identifikatuz eta enpresen arteko lankidetzaz, aukera horiei ekiteko.

Eraldaketa hori guztia egitean, gainera, energia-teknologien eta irtenbide desberdinen arteko oreka lortu beharko da, naturan oinarritutako irtenbideak ere barnean direla, era horretan eskuragarri dauden baliabideak modu efizientean esleitu ahal izateko, azken xedea kontuan hartuta, hau da, 2030. urteari begira nabarmenki murriztea berotegi-efektuko gasen emisioak, Europako helburuekin bat, eta lehenbailehen zero emisio garbiko ekonomia lortzea.

Ildo horretan, EAEko zientzia- eta teknologia-sistemaren indarrak eta eragile publiko eta pribatuen berrikuntza arloko lankidetzaren paper dinamizatzaileak, klusterrak dinamizatze erakundeek eta erakunde zientifiko eta teknologikoek zeregin azpimarragarria izango dute. Industria sare indartsua, ahalmen teknologikoa, kapital fisikoa eta giza kapitala sektore energetikoan eta beste balio-kate egonkortu batzuetan pilaturik, hala nola, potentzia-elektronikan, biltegitratzean edo digitalizazio-zerbitzuen sektorean, ardatza izan behar dute egitear dagoen eraldaketari eragiteko.

Lege honetan ezarritako helburuak betetzeko, EAEko administrazio publikoak zuzenean engeiatuko dira eta honako hauek sustatuko dituzte: energia-aurrezpena eta energia-efizientzia, energia berriztagarrien ezarpena, eskala eta modalitate desberdinetan, trantsizioa bultzatzen duten irtenbide

Las infraestructuras, las capacidades, los procesos productivos y logísticos, las formas de consumo y los productos y servicios ofrecidos por las empresas y las instituciones deberán adaptarse para alcanzar una menor huella de carbono y, de esta manera, mejorar en términos de productividad y eficiencia en el uso de los limitados recursos disponibles, que permitan a las empresas vascas, a su vez, competir y posicionarse en los mercados locales, estatales y europeos. Para ello, será necesario implementar nuevas estrategias empresariales y modelos de negocio innovadores basados en la sostenibilidad social y económica.

Además, la transición energética requerirá grandes inversiones públicas y privadas en las próximas décadas en eficiencia energética, electrificación de consumos, energías renovables, sistemas de almacenamiento, hidrógeno renovable, redes energéticas digitales y otras tecnologías asociadas. Para que estas inversiones puedan generar beneficios en nuestro entorno, las estrategias para la transición energética deben ser complementadas y apoyadas con estrategias de desarrollo tecnológico e industrial que permitan aprovechar las inversiones energéticas y medioambientales como una oportunidad de desarrollo para las instituciones públicas y los sectores empresariales y las cadenas de valor asociadas, a través del desarrollo de productos y servicios competitivos, de la identificación de nuevos modelos de negocio y de la cooperación interempresarial para abordar estas oportunidades.

Toda esta transformación deberá hacerse, además, alcanzando un equilibrio entre las distintas tecnologías energéticas y las distintas soluciones, incluidas las soluciones basadas en la naturaleza, de tal manera que se asignen los recursos disponibles de manera eficiente, teniendo en cuenta el fin último, esto es, reducir de forma significativa las emisiones de gases de efecto invernadero en el horizonte 2030, en línea con los objetivos europeos, y alcanzar una economía con cero emisiones netas lo antes posible.

En este sentido, la fortaleza del sistema vasco de ciencia y tecnología y el papel dinamizador de la colaboración en innovación por parte de agentes públicos y privados, organizaciones dinamizadoras de clústeres e instituciones científicas y tecnológicas van a jugar un papel destacado. La robustez del tejido industrial, el bagaje tecnológico, el capital físico y humano acumulado en sectores como el energético y otras cadenas de valor consolidadas como la electrónica de potencia, el almacenamiento o los servicios de digitalización deben suponer una palanca sobre la que traccionar la transformación en ciernes.

Al objeto de cumplir con los objetivos establecidos en esta ley, las administraciones públicas vascas se implicarán directamente y promoverán el ahorro y la eficiencia energética, la implantación de energías renovables en sus diversas modalidades y escalas, la adopción de soluciones y prácticas



eta jardunbide zirkularrak hartzea, batez ere, descentralizazioan, hurbiltasunean eta eskuragarri dauden baliabideen aprobetxamendu optimoan oinarrituta. Elikadura osasuntsuak eta gertukoak, testuinguru horretan, zeregin erabakigarria izan behar du, Europar Batasunaren estrategiekin bat etorriz.

Prozesu hori guztia trantsizio bidezkoaren irizpidea betez gauzatu beharko da, kontuan hartuta haren kostuen eta kargen banaketa ekitatiboa, inor atzean utzi gabe, arreta berezia eskainita sektore ekonomiko, lurralde eta biztanleria zaurgarrienei eta pertsonen genero-, adin- edo disfuncion-aldagaia integratuta, modu horretan trantsizioa ez dadin bidegabekerien eta desparekotasunen kausa bihurtu.

VIII

Lege honi esker, modu efizientean egokituko dira Euskadiko errealitatera bai araudi-esparrua bai nazioarteko konpromisoak, eta zero emisio garbiko ekonomia eta lurralde erresilientea lortzeko trantsiziorako erabil daitezkeen estrategiak eta tresnak konfiguratzeko dira plangintza baten eta ibilbide-orri baten esparruan, zeinak bat etorriko diren EAEko errealitate sozioekonomikoarekin eta datozen urteetako erronka eta aukerekin.

Horregatik guztiarengatik, lege hau lagungarria izango da trantsizio energetiko eta klimatikoa gauzatzeko erronka globalari erantzuna emateko, aldi berean EAEko ekonomiaren lehiakortasunaren oinarriak mantenduta eta hobetuta, trantsizio teknologiko-digitala eta soziala oinarri izanda.

Lege honen babes legala EAEko Autonomia Estatutuaren 11.1.a) eta 11.2.c) artikuluetan jasota dago, izan ere, haien arabera Euskal Autonomia Erkidegoak legegintza-garapeneko eta bere lurraldean betearazteko eskumenak ditu, hurrenez hurren, ingurumen eta ekologiararen arloan eta araubide energetikoan. Legeak 75 artikulua ditu, sei kapitulutan egituratuta.

I. kapitulua xedapen orokorreari buruzkoa da, eta bertan legearen xedea eta helburuak azaltzen dira.

II. kapitulua gobernantzarri buruzkoa da, eta bertan arautzen dira EAEko administrazio publikoek trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin lotuta dituzten eskumenak eta funtzioak, eta koordinazio-, lankidetzaz- eta partaidetza-organoen funtzioak egikaritzeko diseinua egiten da, arreta berezia jarrita Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoan, laguntza eta sustapenerako kide anitzeko organo teknikoa den heinean.

III. kapituluan, legearen helburuak betetzeko plangintza-tresnak jasotzen dira: Epe Luzeko Ibilbide

circulares que impulsen la transición, basándose, fundamentalmente, en la descentralización, la proximidad, y el óptimo aprovechamiento de los recursos disponibles. La alimentación sana y de proximidad está llamada a jugar, en este contexto, un papel determinante, en línea con las estrategias de la Unión Europea.

Todo el proceso se deberá llevar a cabo bajo el criterio de una transición justa que tenga en cuenta la distribución equitativa de los costes y cargas derivados, sin dejar a nadie atrás, prestando especial atención a los sectores económicos, territorios y población más vulnerable, integrando la variable de género, edad o disfunción de las personas, de manera que la transición no se convierta en una nueva causa de injusticias y desigualdades.

VIII

Esta ley coadyuvará a adaptar de forma eficiente a la realidad de Euskadi tanto el marco normativo como los compromisos internacionales, configurando las estrategias e instrumentos que pueden utilizarse para realizar la transición a una economía con cero emisiones netas y un territorio resiliente en el marco de una planificación y una hoja de ruta alineada con la realidad de la socioeconomía vasca y con los retos y oportunidades a los que se enfrentará en los próximos años.

Por todo ello, la presente ley ayudará a dar respuesta al reto global de llevar a cabo la transición energético-climática manteniendo y mejorando las bases de competitividad de la economía vasca y apoyándose en la transición tecnológico-digital y social.

La presente ley, que encuentra su amparo legal en los artículos 11.1.a) y 11.2.c) del Estatuto de Autonomía del País Vasco, para el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio en materia de medio ambiente y ecología y en materia de régimen energético, respectivamente, contiene 75 artículos, que se estructuran en seis capítulos.

El capítulo I trata sobre las disposiciones generales y plasma el objeto de la ley y sus finalidades.

El capítulo II trata sobre la gobernanza, regula las competencias y funciones de las administraciones públicas vascas en relación con la transición energética y el cambio climático, y diseña el ejercicio de funciones por parte de los diferentes órganos de coordinación, cooperación y participación en la materia, con especial atención a la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático como órgano técnico colegiado de apoyo y fomento.

El capítulo III contempla los distintos instrumentos de planificación con el fin de hacer



Orria, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak eta toki-erakundeek eta lurralde historikoek klimaren eta energiaren arloan eratzten dituzten planak.

IV. kapitulua bi ataletan banatuta dago, eta atal horietan arautzen dira trantsizio energetikoa, batetik, eta neutraltasuna sustatzeko bestelako politika sektorialak, bestetik.

V. kapitulua EAEko lurraldearen eta gizartearen erresilientzia bermatzeko neurriei buruzkoa da.

VI. kapituluan lege honen xedapenak betetzen laguntzeko zeharkako tresnak diseinatzen dira. Bi atal ditu: lehenengoa ikerketa, hezkuntza, sentsibilizazioa eta lehiakortasuna sustatzeari buruzkoa da; bigarrenak energia berriztagarrien kanona sortzen du eta horren diru-sarreraren helburua ezartzen du.

Lehen xedapen gehigarriak Gobernu Kontseiluak Epe Luzeko Ibilbide Orria eta lehendabiziko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Estrategia onartzeko duen epea ezartzen du.

Bigarren xedapen gehigarriak lurralde historikoetako eta toki-erakundeetako klima- eta energia-planak onartzeko epea ezartzen du.

Hirugarren xedapen gehigarriak aurrekontu arloko jarraibideak onartzeko epea ezartzen du, legearen helburuak betetzeko aurrekontu-partidak identifikatu eta sortzeko.

Laugarren xedapen gehigarriak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoaren funtzionamendu-erregelamendua onartzeko epea ezartzen du.

Bosgarren eta seigarren xedapen gehigarriek aukera ezartzen dute energiaren arloko helburu eta betebeharrak sektorialak eta legean ezarritako helburu kuantitatiboak berrikusi ahal izateko, onartuko diren plangintza- edo araugintza-tresnen bidez.

Zazpigarren xedapen gehigarriak hidrokarburoen ustiapenean eta erauzketan desinbertsioa antolatzeke plan bat onartzea aurreikusten du.

Zoztigarren xedapen gehigarriak epea ezartzen du Eusko Jaurlaritzan energiaren arloan eskumena duen sailak EAEko Autokontsumoko Ibilbide Orria onetsi dezan.

Xedapen iragankorrak energia eta klima estrategia sektorialeko eta Energia Trantsizioa eta Klima Aldaketako 2021-2024 Planaren indarraldia jasotzen du.

efectivos los objetivos de la ley: la Hoja de Ruta de Largo Plazo, las estrategias de transición energética y cambio climático y los planes locales y de los territorios históricos en materia de clima y energía.

El capítulo IV, dividido en dos secciones, procede a regular la transición energética y otras políticas sectoriales que contribuyen a la neutralidad.

El capítulo V hace referencia a las medidas para asegurar la resiliencia del territorio y la sociedad vasca.

El capítulo VI diseña los instrumentos transversales que permitan facilitar el cumplimiento de las disposiciones de esta ley. Cuenta con dos secciones: la primera está dedicada al fomento de la investigación, educación, sensibilización y competitividad; la segunda crea el canon de energías renovables y establece el destino de sus ingresos.

La disposición adicional primera establece el plazo para la aprobación por el Consejo de Gobierno de la Hoja de Ruta de Largo Plazo y de la primera Estrategia de Transición Energética y Cambio Climático.

La disposición adicional segunda establece el plazo para la aprobación de los planes de clima y energía de los territorios históricos y de las entidades locales.

La disposición adicional tercera establece el plazo para la aprobación de las directrices en materia presupuestaria para la identificación y la creación de las partidas presupuestarias que se destinan al cumplimiento de los objetivos de la ley.

La disposición adicional cuarta establece el plazo para la aprobación del reglamento de funcionamiento de la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático.

Las disposiciones adicionales quinta y sexta establecen la posibilidad de que los objetivos y las obligaciones sectoriales en materia energética, así como los objetivos cuantitativos establecidos en la ley puedan ser revisados a través de los instrumentos de planificación o normativos que se aprueben.

La disposición adicional séptima prevé la aprobación de un plan para ordenar la desinversión en la explotación y extracción de hidrocarburos.

La disposición adicional octava establece el plazo en el que el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de energía deberá aprobar la Hoja de Ruta de Autoconsumo Vasco.

La disposición transitoria contempla la vigencia de las estrategias sectoriales de energía y clima y del Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2021-2024.



Azken xedapenetako lehenak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea aldatzen du, energia-jarduketaren planen izena lege honetara egokitzeko, hau da, klima- eta energia-planak.

Azken xedapenetako bigarrenak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea aldatzen du, Ingurumeneko Aholku Kontseiluak garatu beharreko eginkizunei dagokienez.

Azken xedapenetako hirugarrenak ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Uraren Legea, aldatzen du: alde batetik, Uraren Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluari agentziaren langile-plantilla onartzeko funtzioa esleitzen dio, eta, bestetik, lege horretan aurreikusitako arau-hausteengatik zehatzeko ahalaren erabilera berrantolatzen du.

Azken xedapenetako laugarrenak aldaketa zehatz batzuk egiten ditu Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean, araua errazago aplikatu ahal izan dadin.

Azken xedapenetako bosgarrenak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea aldatzen du, klima-aldaketa arintzearen eta klima-aldaketara egokitzearen arloko jarduketak ingurumena babestearekin lotutako ekintzei ekiteko urteko aurrekontu-partidan sartzeko. Era berean, abenduaren 9ko 10/2021 Legea aldatzen da, arau-hauste astun gisa tipifikatzen diren egitate jakin batzuk lege horren zehapen-araubidean sartzeko.

Azken xedapenetako seigarrenak aurreikusten du lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean ezarritako irizpideen arabera zehatuko dela, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako zehapen-araubidearen arabera.

Azken xedapenetatik zazpigarrenak Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen dio lege hau erregelamendu bidez garatzeko.

Amaitzeko, azken xedapenetako zortzigarrenak lege honetan jasotako energia berriztagarrien kanona indarrean jartzeko data ezartzen du, eta azken xedapenetako bederatzigarrenak lege osoa indarrean jartzeko data.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta helburuak

1. Lege honek, Europako zein Espainiako legediak xedatutakoaren arloan, esparru juridiko

La disposición final primera modifica la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, para adecuar la denominación de los planes de actuación energética a la presente ley, esto es, planes de clima y energía.

La disposición final segunda modifica la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, en lo que se refiere a las funciones a desarrollar por el Consejo Asesor de Medio Ambiente.

La disposición final tercera modifica la ley 1/2016, de 23 de junio, de Aguas, atribuyendo, por un lado, al Consejo de Administración de la Agencia Vasca del Agua la función de aprobar su plantilla de personal y, por otro, reordenando el ejercicio de la potestad sancionadora en relación con las infracciones previstas en dicha ley.

La disposición final cuarta modifica la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi, con el objeto de facilitar la aplicación de esta norma.

 - a) Realizar el seguimiento de los últimos avances científicos que se vayan produciendo sobre el clima y que tengan o puedan tener afección en el territorio y la sociedad vasca. En particular, se considerarán los informes del Grupo Intergubernamental sobre el Cambio Climático (IPCC),
 - b) Investigar, analizar y proporcionar conocimiento científico para poder identificar los riesgos asociados al cambio climático, establecer planes de actuación y anticipar medidas.
 - c) Participar en foros científicos de intercambio de conocimiento, y cooperar con otros comités y grupos de trabajo en materia de cambio climático.

- | | |
|---|--|
| <p>d) Datu zientifikoetan oinarrituta, klimaren bilakaera orokorra kontuan hartzea, bereziki Euskadin, bai eta horren ondorioak ere. Landutako informazio guztia herritarrentzat eskuragarri egongo da.</p> <p>e) Klima-aldaketari eta horrek maila globalean eta tokikoan dituen ondorioei buruzko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, modu dibulgatiboan.</p> <p>f) Azterketan karbono-aurrekontuen kontzeptua sartzea, urteko isurketen geldikina identifikatzera bideratuta, lege honetan ezarritako helburu klimatiko orokorrak lortzeko.</p> | <p>d) Informar y publicar con base en datos científicos sobre la evolución climática general y en particular en Euskadi, así como de sus consecuencias. Toda la información elaborada estará accesible para la ciudadanía.</p> <p>e) Concienciar y sensibilizar de forma divulgativa, sobre el cambio climático y sus efectos a nivel global y local.</p> <p>f) Incorporar en su análisis el concepto de presupuestos de carbono, orientando a identificar el remanente de emisiones anuales para conseguir los objetivos climáticos generales establecidos en esta ley.</p> |
|---|--|
-
- | | |
|--|---|
| <p>3. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoak, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegora funtzionalki atxikita, autonomia organiko eta independentzia funtzional osoz jarduten du bere jarduera garatzean. Bere kideek ezin izango dute inongo entitate publiko edo pribaturen jarraibiderik eskatu edo onartu, eta independentzia osoz jardungo dute edozein enpresa- edo merkataritza-interesen aurrean. Balizko interes-gatazken deklarazioa sinatuko dute urtero; deklarazio hori erregelamendu bidez arautuko da eta publikoa izango da.</p> <p>4. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoak lantalde-izaera dauka, eta bere erabakiek ez dute eragin zuzenik hirugarrenen aurrean. Nolanahi ere, klima-eremuan eragina duen politika publiko orok, Batzorde Zientifikoaren urteko txostenarekin bat ez badator, berariazko atal bat jaso beharko du, eta, bertan, berariaz justifikatu beharko ditu arrazoi sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak edo beste edozein, Batzorde Zientifikoak ezarritako gomendioetatik aldentzea justifikatzen dutenak.</p> | <p>3. El Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático, adscrito funcionalmente a la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático, actúa con autonomía orgánica y plena independencia funcional en el desarrollo de su actividad. Sus miembros no podrán solicitar o aceptar instrucciones de ninguna entidad pública o privada y actuarán con independencia de cualquier interés empresarial o comercial. Firmarán anualmente una declaración de posible conflicto de intereses que se regulará reglamentariamente y será pública.</p> <p>4. El Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático tiene la consideración de grupo de trabajo, no teniendo sus acuerdos efectos directos frente a terceros. En cualquier caso, cualquier política pública con incidencia en el ámbito climático que contradiga el informe anual del Comité Científico deberá recoger un apartado específico en el que justifique, haciendo mención expresa, las razones de índole social, económica, ambiental o de cualquier otra en las que se justifica su apartamiento de las recomendaciones marcadas por el Comité Científico.</p> |
|--|---|

8. artikulua. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoaren osaera

1. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoak sei kidek osatzen dute, talde parlamentarioek ordezkariaren arabera modu proportzionalean proposatuta eta trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuta, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin lotutako zientzia edo diziplinetan hamar urtetik gora modu profesionalean jardun duten eta trantsizio

Artículo 8. Composición del Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático

1. El Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático está formado por seis miembros propuestos por los grupos parlamentarios en base proporcional a su representatividad y designados por la persona titular del departamento competente en materia de transición energética y cambio climático entre personas expertas pertenecientes a diferentes ciencias o disciplinas que puedan aportar conocimiento en materia de transición



energetikoarekin eta klima-aldaketaren arloan ezagutza eman dezaketen adituen artean. Izendapena lau urterako izango da, eta behin bakarrik berritu ahal izango da.

2. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoko kideak izendatzean, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez onetsi baitzen 1/2023 emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina. Era berean, izendapenak kontuan hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan gaitasuna izatea.

9. artikulua. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoaren funtzionamendua

1. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoaren funtzionamendua bere barne-arauak gidatzen dute. Batzordeak barne-funtzionamenduko arauak onartu behar ditu, Euskal Sektore Publikoaren maitzaren 12ko 3/2022 Legeak ezarritakoaren arabera, eta erabakiak adostasunez hartuko ditu.
2. Batzordearen eginkizunak betetzeko, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoa arduratuko da administrazio-laguntza emateaz.
3. Batzordearen jarduerak, aplikatu beharreko araudiaren arabera, dagozkien aurrekontu-transferentzien bidez finantzatuko dira, aurrekontu-baliabideen arabera.

Zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren V. kapituluaren arabera arautuko da batzordeko kideek dietak jasotzea.

4. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren arloko Batzorde Zientifikoaren txostenak eta ebaluazioak herritarren eskura jarri behar dira trantsizio energetiko eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den sailaren web-atari instituzionalean.

10. artikulua. Parte-hartze soziala

1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen arloan, herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko dute, eta modu eraginkorrean bermatuko dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua eta, bereziki, gazteen parte-hartzea.

energética y cambio climático con más de diez años de ejercicio profesional en dichas materias. La designación será por un periodo de cuatro años, renovable una sola vez.

2. La designación de los miembros del Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático garantizará una representación equilibrada de mujeres y hombres, de acuerdo con lo establecido en el artículo 3.10 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Asimismo, la designación tendrá en cuenta la capacitación en las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 9. Funcionamiento del Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático

1. El funcionamiento del Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático se rige por sus normas internas. El Comité debe aprobar las normas de funcionamiento interno de acuerdo con lo establecido por la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, y adoptará sus decisiones por consenso.
2. Para el ejercicio de las funciones del Comité, la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático se encargará de prestar el apoyo administrativo.
3. Las actividades del comité serán financiadas, conforme a la normativa aplicable, mediante las correspondientes transferencias presupuestarias, de acuerdo con sus disponibilidades presupuestarias.

La percepción de dietas por los miembros del comité se regulará por lo previsto en el capítulo V del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

4. Los informes y evaluaciones del Comité Científico en materia de Transición Energética y Cambio Climático deben estar a disposición de la ciudadanía en el portal web institucional del departamento competente en materia de transición energética y cambio climático.

Artículo 10. Participación social

1. Las administraciones públicas vascas fomentarán, en el ámbito de sus competencias, la participación activa de la ciudadanía, y garantizarán de manera efectiva el objetivo de igualdad de mujeres y hombres y, en especial, la participación de la juventud.



- | | |
|--|---|
| <p>2. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko politika diseinatzeko eta haren jarraipena egiteko parte-hartze publikoa gauzatzeko, lege honetan aurreikusitakoaz gain, Ingurumeneko Aholku Kontseilua baliatuko da. Hala, aholku-kontseilua izango da EAEko administrazio publikoen eta gizarte, ekonomia eta ezagutzaren ordezkari-tza-sektoreen arteko harremanerako eta partaidetzarako organoa.</p> | <p>2. La participación pública en el diseño y seguimiento de la política en materia de transición energética y cambio climático se articulará, además de lo previsto en el resto de la ley, a través del Consejo Asesor de Medio Ambiente, como órgano de relación y participación de las administraciones públicas vascas y los sectores representativos de intereses sociales, económicos y del conocimiento.</p> |
| <p>3. Ingurumeneko Aholku Kontseiluak zeregin hauek izango ditu trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan:</p> <p>a) Lege honetan aurreikusitako xedeen eta plangintza-tresnen betetze-mailaren bilakaera aztertzea.</p> <p>b) Jarduketa-proposamenak egitea politika energetikoen eta klimatikoen arloan.</p> | <p>3. Serán funciones del Consejo Asesor de Medio Ambiente, en relación con la transición energética y el cambio climático, las siguientes:</p> <p>a) Analizar la evolución del cumplimiento de los objetivos y de los instrumentos de planificación previstos en esta ley.</p> <p>b) La formulación de propuestas de actuación en materia de políticas energéticas y climáticas.</p> |
| <p>4. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean edo haren ordezkari arauan zehaztutako tresna eta bideen bitartez sustatu ahal izango dute parte-hartze publiko hori.</p> | <p>4. Las entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán promover dicha participación pública a través de los instrumentos y cauces que se regulan en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, o norma que la sustituya.</p> |
| <p>5. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek bidea emango dute parte-hartze publikoko prozesuetan lortutako informazioa eta ondorioak trukatzeko eta zabaltzeko.</p> | <p>5. El Gobierno Vasco y las entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco facilitarán el intercambio y la difusión de la información y las conclusiones que se obtengan en los procesos de participación pública.</p> |
| <p>6. Euskadiko Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren helburuen esparruan, ordezkari-tza handieneko gizarte-eragileen parte-hartzea sustatuko da, lege honen helburuak betetzen laguntzeko, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik trantsizio bidezko eta jasangarriaren bidez.</p> | <p>6. En el marco de los objetivos de la Mesa de Diálogo Social de Euskadi, se promoverá la participación de los agentes sociales más representativos, con el fin de contribuir al cumplimiento de las finalidades de la presente ley mediante una transición justa y sostenible desde el punto de vista social, económico y medioambiental.</p> |

11. artikulua. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Euskal Itun Soziala

1. Eusko Jaurlaritzak trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko gizarte-itun bat ezartzea sustatuko du, lege honen helburuak eta bertan aurreikusitako plangintza-tresnak garatzen laguntzeko.
2. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Euskal Itun Soziala onartzeko, Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko prozesu bat diseinatu eta bultzatuko du, autonomia- zein eskualde-mailako deliberazio-prozesuen bidez. Prozesu horietan hainbat eragile politiko, sozial eta ekonomiko sartuko dira. Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean diseinatu da prozesu hori.

Artículo 11. Pacto Social Vasco sobre Transición Energética y el Cambio Climático

1. El Gobierno Vasco impulsará la adopción de un pacto social sobre transición energética y cambio climático que contribuya al desarrollo de los objetivos de la presente ley y de los instrumentos de planificación que en ella se prevén.
2. Para la adopción del Pacto Social Vasco sobre Transición Energética y Cambio Climático, el Gobierno Vasco diseñará e impulsará un proceso participativo a través de procesos deliberativos tanto autonómicos como comarcales en los que se incluya a diversos actores políticos, sociales y económicos. Dicho proceso se diseñará en el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente ley.



12. artikulua. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarra

1. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan herritarren parte-hartzea bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarra eratuko du.
2. Batzarra hausnarketa eta ezagutza kolektiboa sortzeko foroa izango da, eta herritarrei aukera emango die informazioa jasotzeko, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko klima neutraltasunera lehenbailehen iristeko eta Euskal Autonomia Erkidegoa erresilienteago bihurtzeko behar diren transformazio handien konponbideei buruz, ikuspegi bidezko eta solidarioan.
3. Dekretu bidez arautuko da Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren osara, antolamendua eta funtzionamendua, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 19. artikuluan edo lege horren ordezkotza arauan ezarritako esparruan.
4. Batzarraren osarak berdintasun-printzipioa errespetatu beharko du, eta hori zozketa geruzatu baten bidez bermatuko da, funtsezko aldagai soziodemografikoei dagokienez, hala nola, sexua, errenta edo lanbide-kualifikazioa.

Bere funtzionamendua honako printzipio hauek arautuko dute: ordezkagarritasuna, inpartzialtasuna, independentzia, gardentasuna eta informaziorako sarbidea.
5. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren txostenak Eusko Legebiltzarrean trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen batzordeari aurkeztu beharko zaizkio.
6. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren laguntza-organo iraunkor gisa jardungo du, eztabaida-estandarrek betetzen direla ezartzeko eta bermatzeko, eta batzarrean egiten diren parte-hartze prozesuetan jarraipen eta ebaluazioa egiteko. Eginkizun horiek betetzean, bulegoak herritarren partaidetzarako gunerik horren funtzionamenduarekiko independentziaz eta inpartzialtasunaz jardungo duela bermatuko du.

Artículo 12. Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático

1. Con el fin de impulsar la participación ciudadana en materia de transición energética y cambio climático, el Gobierno Vasco configurará la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi.
2. La asamblea será un foro para generar reflexión y conocimiento colectivo, permitiendo a la ciudadanía informarse, deliberar y alcanzar consensos sobre cuáles deben ser las soluciones a las grandes transformaciones que es necesario acometer para alcanzar la neutralidad climática lo antes posible y para hacer a la Comunidad Autónoma del País Vasco más resiliente a los impactos del cambio climático, con una perspectiva justa y solidaria.
3. La composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi serán reguladas mediante decreto en el marco de lo que establece el artículo 19 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, o norma que la sustituya.
4. La composición de la asamblea deberá respetar el principio de igualdad, que será garantizado mediante un sorteo estratificado en relación con variables sociodemográficas claves tales como sexo, renta o cualificación profesional.

Su funcionamiento se regirá por los principios de representatividad, imparcialidad, independencia, transparencia y acceso a la información.
5. Los informes de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático deberán ser presentados ante la comisión competente en materia de transición energética y cambio climático del Parlamento Vasco.
6. La Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático actuará como órgano permanente de apoyo a la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi, con el fin de establecer y garantizar el cumplimiento de los estándares deliberativos y realizar el seguimiento y evaluación de los procesos de participación en el seno de la asamblea. En el ejercicio de estas funciones, la oficina actuará garantizando su independencia e imparcialidad con respecto al funcionamiento de este espacio de participación ciudadana.

13. artikulua. Erakundeen arteko koordinazioa trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan

1. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren bidez gauzatuko da trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan erakundeen artean egin beharreko koordinazioa.
2. Aurreko apartatuan aurreikusitako helburuak betetzeko, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari dagokio zeregin hauek betetzea:
 - a) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea.
 - b) Lege honetan aurreikusitako xedeen eta plangintza-tresnen betetze-mailaren bilakaera aztertzea, 19.1 artikuluan aurreikusitako jarraipen-txostenean oinarrituta.
 - c) Koordinazio-neurriak proposatzea, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren jarduketak eraginkorrak izan daitezen.
 - d) Legez edo erregelamenduz esleitutako gainerako zereginak betetzea.
3. Lehendakariaren dekretu bidez, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko bi pertsona izendatuko dira, hurrenez hurren, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den sailaren ordezkari izan daitezen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan.

14. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko lankidetzak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek elkarlanean jardungo dute beste autonomia-erkidegoekin, eskualdeekin eta mugaz haraindiko erakundeekin, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren gaineko ekimenak sustatzeko.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak herrialdeen eta eskualdeen arteko lankidetzak eta elkarlana indartuko ditu lehentasuntzat jotako eremuetan hainbat arlo jorratzeko, hala nola, arintze-moduak, klima-aldaketarako egokitzapena, teknologien garapena eta transferentzia edo gaikuntza.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak nazioarteko sareekin beharrezkoa den lankidetzak sustatuko du, eta parte-hartze aktiboa trantsizio energetikoaren eta klima-

Artículo 13. Coordinación interinstitucional en materia de transición energética y cambio climático

1. La coordinación interinstitucional en materia de transición energética y cambio climático se hará efectiva a través del Consejo Vasco de Políticas Públicas Locales.
2. A los fines previstos en el apartado anterior, corresponden al Consejo Vasco de Políticas Públicas Locales el ejercicio de las siguientes funciones:
 - a) Emitir informes, dictámenes y propuestas en materia de transición energética y cambio climático.
 - b) Analizar la evolución del cumplimiento de los objetivos y de los instrumentos de planificación previstos en esta ley sobre la base del informe de seguimiento previsto en el artículo 19.1.
 - c) Proponer medidas de coordinación para dotar de eficacia a las actuaciones en materia de transición energética y cambio climático.
 - d) Ejercer las demás funciones que se le atribuyan legal o reglamentariamente.
3. Por decreto del lehendakari se designarán dos personas representantes de las áreas de transición energética y de cambio climático, respectivamente, pertenecientes al departamento competente en materia de transición energética y cambio climático, en el Consejo Vasco de Políticas Públicas Locales.

Artículo 14. Cooperación en materia de transición energética y cambio climático

1. Las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco colaborarán con otras comunidades autónomas, regiones y entidades transfronterizas con el fin de promover iniciativas de transición energética y cambio climático.
2. La Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco reforzará la colaboración y cooperación entre países y regiones en aquellas áreas que se consideren prioritarias, desde cuestiones relacionadas con la mitigación hasta aspectos vinculados con la adaptación al cambio climático, el desarrollo y la transferencia de tecnologías o la capacitación.
3. La Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco promoverá la necesaria cooperación con redes internacionales y la participación activa en foros



aldaketaren arloko esperientziak partekatzeko foroetan.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen lankidetzaren eta elkartasun-jarduerek zeharkakotasunez txertatu beharko dituzte klima-aldaketa eta bidezko energia-trantsizioa, ikuspegi ekosozialaz gain, ingurumen-erronka globalak kontuan hartuta, horien inpaktuak betez ere planetako lurralde pobretuei eragiten badie.

III. KAPITULUA TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA- ALDAKETAREN ARLOKO PLANGINTZA

15. artikulua. Plangintza-tresnak

1. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza honako tresnen bitartez gauzatuko da:
 - a) Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria.
 - b) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak.
 - c) Lurralde historikoen eta toki-erakundearen klima- eta energia-planak.
2. Administrazio bakoitzaren eskumenen barnean, planetan jasoko dira emisioak murrizteko trantsizio energetikoko ekimenak, egokitzapen-neurriak eta ekonomia eta enplegua bultzatzeko garapen teknologikoko jarduketak, modu horretan klimaren arloko helburuak egokiro uztar daitezten trantsizio energetikoaren estrategiarekin eta sektore ekonomiko deberdinen jardueren gaineko politika industrialarekin.
3. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren plangintzak neurriak, tresnak, araudi-garapenak, finantzaketa-mekanismoak eta laguntza- eta zerga-programak txertatuko ditu, bereziki kaltetutako eskualdeei, sektore ekonomiko edo industrialei edo biztanleria-segmentu jakinei euskarria emateko, energia- eta klima-trantsizio bidezkoa eta inklusiboa lortzeko helburuarekin, arlo sozial, ekonomiko eta ingurumenekoan.

Plangintzak pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko neurriak jaso beharko ditu, pertsona guztiek beren etxeetan bizi-baldintza duinak izateko behar duten energia eskuratu ahal izan dezaten.

4. Plangintzaren diseinuak, gauzatzeak, jarraipenak eta ebaluazioak herritarren eta

donde compartir experiencias en materia de transición energética y cambio climático.

4. Las actuaciones de cooperación y solidaridad de las administraciones públicas vascas deberán incorporar de manera transversal el cambio climático y la transición energética de forma justa, incluyendo un enfoque ecosocial y atendiendo a los desafíos medioambientales globales cuyos impactos afectan especialmente a las poblaciones de los países empobrecidos.

CAPÍTULO III PLANIFICACIÓN EN MATERIA DE TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y CAMBIO CLIMÁTICO

Artículo 15. Instrumentos de planificación

1. La planificación en materia de transición energética y cambio climático se llevará a cabo a través de los siguientes instrumentos:
 - a) Hoja de Ruta de Largo Plazo de Transición Energética y Cambio Climático.
 - b) Estrategias de transición energética y cambio climático.
 - c) Planes de clima y energía de los territorios históricos y las entidades locales.
2. Los planes, dentro de los ámbitos competenciales de cada Administración, contemplarán iniciativas de transición energética para la mitigación de emisiones, medidas de adaptación y actuaciones de desarrollo tecnológico para el impulso de la economía y el empleo, de manera que los objetivos climáticos estén interrelacionados con la estrategia de transición energética, la política industrial y la actividad de los diferentes sectores económicos.
3. La planificación en materia de transición energética y cambio climático incorporará medidas, herramientas, desarrollos normativos, mecanismos de financiación, programas de apoyo y fiscales para dar soporte a comarcas, sectores económicos o industriales o segmentos de población concretos especialmente afectados, con el objetivo de alcanzar una transición energética y climática justa e inclusiva en materia ecológica, social y económica.

La planificación deberá incorporar medidas para luchar contra la pobreza energética, de modo que todas las personas tengan acceso a la energía necesaria para disponer de unas condiciones dignas de vida en sus hogares.

4. El diseño, la ejecución, el seguimiento y la evaluación de la planificación garantizará la



eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartzea bermatuko du. Halaber, erabakiak hartzean emakumeen parte-hartzea bermatuko da, genero-ikuspegia txertatuz eta honako helburu hauek lortzen lagunduko duten ekintzak sustatuz:

- a) Eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzea, bizitzaren jasagarritasuna sustatuz, klima-aldaketa arintzeari dagokionez.
- b) Klima-aldaketara egokitzeak genero-ikuspegia txerta dezala eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona guztiengana irits dadila sustatzea.
- c) Administrazioan zeharkakotasuna bultzatzea, genero-ikuspegia eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren ikuspegia ezartzeko eta bidezko trantsizio energetikoa lortzeko.

16. artikulua. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria

1. Lege honen xedea betetzeko, eraldaketa-prozesuan erritmo egoki bat ezarri beharko da, bat etorrita nazioarteko, Europako eta Estatuko gidalerroekin eta, aldi berean, Euskadiko testuinguru sozioekonomikora egokituta.
2. Eusko Jaurlaritzak, energiaren eta klima-aldaketaren arloko sail eskudunak proposatuta, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria onetsiko du, artikulua honetako 1. apartatuan aurreikusitako xedea betetzeko, EAEko Administrazio orokorreko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak, Tokiko Politiken Euskal Kontseiluak, Ingurumeneko Aholku Kontseiluak eta Batzorde Zientifikoak txostena egin ondoren.
3. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria dagoen ebidentzia zientifiko eta teknologikoaren arabera egingo da, eta klima-neutraltasuna, lurraldearen erresilientzia eta bidezko trantsizioa lortzeko bidea definituko du, Euskadiko testuinguru sozioekonomikoa kontuan hartuta. Edukian kontuan hartu beharreko alderdien artean, honako hauek hartuko dira aintzat: arintze- eta energia-jarraibideak eta -helburuak, egokitzapen-sektoreak eta -estrategiak, eragindako kolektiboak eta bidezko trantsizio neurriak, teknologia- eta enpresa-garapenerako aukerak eta inbertsioak. Epe Luzeko Ibilbide Orriak Autokontsumoaren Ibilbide Orria izango du.

participación de la ciudadanía y de los agentes sociales y económicos. Se garantizará, asimismo, la participación de las mujeres en la toma de decisiones, incorporando el enfoque de género y promoviendo acciones que contribuyan a alcanzar los siguientes objetivos:

- a) Transformar el modelo social y económico promoviendo la sostenibilidad de la vida en relación con la mitigación del cambio climático.
- b) Promover que la adaptación al cambio climático integre la perspectiva de género y que alcance a todas las personas en situación de vulnerabilidad.
- c) Impulsar la transversalidad en la Administración para implantar la perspectiva de género y el enfoque de lucha contra el cambio climático y la consecución de una transición energética justa.

Artículo 16. Hoja de Ruta de Largo Plazo de Transición Energética y Cambio Climático

1. Con el fin de hacer efectivo el objeto de esta ley se deberá establecer un ritmo en el proceso de transformación necesaria acorde con las directrices internacionales, europeas y estatales, y adaptado al contexto socioeconómico de Euskadi.
2. El Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de energía y cambio climático, aprobará la Hoja de Ruta de Largo Plazo de Transición Energética y Cambio Climático para los fines previstos en el apartado primero de este artículo, previo informe de la Comisión de Transición Energética y Cambio Climático de la Administración general del País Vasco, del Consejo Vasco de Políticas Locales, del Consejo Asesor de Medio Ambiente y del Comité Científico.
3. La Hoja de Ruta de Largo Plazo de Transición Energética y Cambio Climático se elaborará de acuerdo con la evidencia científica y tecnológica existente y definirá la senda para alcanzar la neutralidad climática, la resiliencia del territorio y la transición justa, teniendo en cuenta el contexto socioeconómico de Euskadi. Entre los aspectos a tener en cuenta en su contenido se considerarán las directrices y objetivos de mitigación y energéticos, los sectores y estrategias de adaptación, los colectivos afectados y medidas de transición justa, las oportunidades de desarrollo tecnológico y empresarial e inversiones. La Hoja de Ruta de Largo Plazo incorporará la Hoja de Ruta de Autoconsumo.



4. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzeko Ibilbide Orria berrikusi eta, hala dagokionean, eguneratu egin beharko da, lortzen diren aurrerapen teknologikoekin bat egiteko, eta 17.3 artikuluan xedatutako plangintza-aldiekin bat eta nazioartean hartzen diren konpromisoekin bat etortzeko. Ibilbide-orriaren berrikuspen eta eguneratzeetan, artikuluko bigarren apartatuan adierazitako organoen txostenak kontuan izan beharko dira, eta Batzorde Zientifikoaren gomendioak aintzat hartu.

4. La Hoja de Ruta de Largo Plazo de Transición Energética y Cambio Climático deberá ser revisada y actualizada, en su caso, de acuerdo con los avances tecnológicos que se alcancen y con los periodos de planificación del artículo 17.3 y de los nuevos compromisos internacionales que se adopten. En las revisiones y actualizaciones de la hoja de ruta se deberá contar con los informes de los órganos que se señalan en el apartado segundo de este artículo y tomar en consideración las recomendaciones del Comité Científico.

17. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak

Artículo 17. Estrategias de transición energética y cambio climático

1. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiek lege honen helburuak betetzeko planen, estrategien eta politika sektorialen esparru integratua eta transbertsala osatzen dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren politikaren tresna orokorra ere badira.
2. Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2030erako Estrategia eta trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren ondorengo estrategiak onetsiko ditu, energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den sailak proposatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak, Tokiko Politiken Euskal Kontseiluak eta Ingurumeneko Aholku Kontseiluak txostena egin ondoren.
3. Klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren estrategiak gehienez ere hamar urtean behin egingo dira, eta bost urtean behin ebaluatu, Epe Luzeko Ibilbide Orria eta ezagutza zientifikoaren aurrerapenetan eta legeriaren bilakaeran oinarrituta. Horrez gain, helburu kuantitatiboak eta sektorialak proposatuko dituzte, bai eta horiek lortzeko beharrezkoak diren jarduketak, tresnak eta baliabideak ere.
4. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategien oinarritzko edukia hauxe izango da, gutxienez:
- Jarduketa-esparruak.
 - Egoeraren diagnosis eta joerak.
 - Helburuak, lerroak eta neurriak, estrategia-jomugarako hauek aintzat hartuta: emisio-arintzea, energia-efizientzia eta energia berriztagarriak, klima-aldaketarekiko egokitzapena, energiaren eta klima-aldaketaren gaineko garapen teknologiko industrialak eta bidezko trantsizioa.

1. Las estrategias de transición energética y cambio climático serán el marco integrado y transversal de los planes, estrategias y políticas sectoriales que permitan cumplir con los objetivos de esta ley, y son el instrumento general de la política de transición energética y cambio climático en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. El Gobierno Vasco aprobará la Estrategia de Transición Energética y Cambio Climático 2030, y las estrategias de transición energética, y cambio climático posteriores, a propuesta del departamento competente en materia de energía y cambio climático, previo informe de la Comisión de Transición Energética y Cambio Climático de la Administración general del País Vasco, del Consejo Vasco de Política Locales y del Consejo Asesor de Medio Ambiente.
3. Las estrategias de transición energética y cambio climático se elaborarán con una periodicidad no superior a diez años y se evaluará con una periodicidad de cinco años, con base en la Hoja de Ruta de Largo Plazo, los avances del conocimiento científico y la evolución en la legislación, y propondrán objetivos cuantitativos y sectoriales, así como las actuaciones, herramientas y recursos necesarios para alcanzarlos.
4. El contenido básico de las estrategias de transición energética y cambio climático, como mínimo, será el siguiente:
- Marcos de actuación.
 - Diagnóstico de situación y tendencias.
 - Objetivos, líneas y medidas con el horizonte de la estrategia en materia de mitigación de emisiones, eficiencia energética y renovables, de adaptación al cambio climático, de desarrollo tecnológico-industrial sobre energía y cambio climático, así como en materia de transición justa.

- | | |
|--|--|
| <p>d) Energiaren eta klima-aldaketaren arloko tresna transbertsalak, honako gai hauekin lotuta:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bidezko trantsiziorako mekanismoak. 2. Ekonomia-, finantza- eta zerga-mekanismoak. 3. Tresna arau-emaile berriak. 4. Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-lerroak. <p>e) Jasangarritasunaren aldeko komunikazio-, partaidetza- eta hezkuntza-arloetako jarduketako jarduketak.</p> <p>f) Nazioarteko lankidetzaren sustatzeko gidalerroak.</p> <p>g) Inbertsioak eta beharrezkoak diren bestelako baliabideak.</p> <p>h) Estrategiaren ebaluazio-, jarraipen- eta inplementazio-sistema.</p> <p>i) Epe luzeko ibilbide Orriaren berrikuspena.</p> | <p>d) Instrumentos transversales en materia de energía y cambio climático en relación con las siguientes cuestiones:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.º Mecanismos para la transición justa. 2.º Mecanismos económicos, financieros y fiscales. 3.º Nuevos instrumentos normativos. 4.º Líneas de investigación, desarrollo e innovación. <p>e) Líneas de actuación en materia de comunicación, participación y educación por la sostenibilidad.</p> <p>f) Directrices para el fomento de la cooperación internacional.</p> <p>g) Inversiones y otros recursos necesarios.</p> <p>h) Sistema de evaluación, seguimiento e implementación de la estrategia.</p> <p>i) Revisión de la Hoja de Ruta de Largo Plazo.</p> |
|--|--|
5. Neurrien helburua izango da ekoizpen-prozesuak eta enpresa-jarduerak dibertsifikatzen eta birmoldatzen laguntzea, merkatuan lehiakorren diren eta karbono-aztarna baxua duten jardueretarantz, enplegu duina babestera eta klima-aldaketaren efektuekin zaurgarrienak diren biztanleria-sektoreak babestera.
5. Las medidas estarán orientadas a apoyar la diversificación y reconversión de los procesos productivos y de la actividad empresarial e industrial hacia actividades competitivas en el mercado y con baja huella de carbono, a la protección del empleo digno y de los sectores de la población más vulnerables a los efectos del cambio climático.

18. artikulua. Lurralde historikoen eta toki-erakundearen klima- eta energia-planak

Artículo 18. Planes de clima y energía de los territorios históricos y las entidades locales

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako eta toki-erakundeetako administrazio guztiek energiari, klima-aldaketa arintzeari eta horretara egokitzeari lotutako jarduketak txertatu beharko dituzte beren eskumeneko sektore- eta lurralde-plangintzetan. Horretarako, kontuan hartuko dituzte beren kontsumo energetikoaren ezaugarriak, berotegi-efektuko gasen emisioak, karbono-hustulekuak eta klima-aldaketaren gainean eragiten dieten arriskuak.
1. Todas las administraciones de los territorios históricos y de las entidades locales del País Vasco deberán integrar actuaciones relacionadas con la energía y la mitigación y adaptación al cambio climático en la planificación sectorial y territorial de su competencia. Para ello, tendrán en cuenta la caracterización de su consumo energético, las emisiones de gases de efecto invernadero, los sumideros de carbono y, asimismo, los riesgos del cambio climático que les afecten.
2. Lurralde historikoek eta 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, beren eskumenen esparruan, klima- eta energia-planak onartu beharko dituzte; plan horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa jaso beharko dute, eta klimaren aldagaia
2. Los territorios históricos y los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco de más de 5.000 habitantes deberán aprobar, en el marco de sus competencias, planes de clima y energía que incorporen lo dispuesto en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, y la integración de la variable climática desde



txertatu beharko dute, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegitik, lege honen xede eta edukiarekin lerrokatuta.

Plan horiek ekarpenak egingo dizkiete trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren Euskadiko estrategien helburuei, eta berrikusi egin beharko dira, gutxienez helburuok aldatzen direnean. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek banan-banan edo eskualdeka egin ahalko dituzte klima- eta energia-planak.

Aipatutako arau-testuan ezarritakoaz gain, plan horiek honako eduki hau izango dute gutxienez:

- a) Berotegi-efektuko gasen emisioak aztertzea eta ebaluatzea.
- b) Elementu kalteberak identifikatzea eta ezaugarritzea.
- c) Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko helburuak eta estrategiak, hirigintza-plangintzan eta udal-ordenantzetan egin daitezkeen aldaketa egokiak barne.
- d) Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.
- e) Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko arauak. 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalen kasuan, bi urtean behin, beren planen betetze-mailari buruzko txosten bat egin eta onartu behar dute.
- f) Mugikortasun-plan bat egitea nahitaezkoa denean, Euskadiko mugikortasun jasagarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen arabera, plan hori tokiko planekin koordinatuko da.

3. Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den sailak jarraibideen gida bat egingo du, eta gida horretan zehaztuko da zer tresna, metodologia eta baliabide erabili ahal izango dituzten EAEko udalerriek klima- eta energia-planak egiteko.

19. artikulua. Ebaluazio-, jarraipen- eta inplementazio-sistema

1. Eusko Jaurlaritzan energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den sailak, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategia bakoitza onartu eta bost urtera, ebaluazio-, jarraipen eta inplementazio-txostena egingo du helburuen, programen, jarduketan

la perspectiva de la mitigación y la adaptación al cambio climático, alineándose con el objeto y el contenido de la presente ley.

Dichos planes contribuirán a los objetivos de las estrategias vascas de transición energética y cambio climático, y deberán ser revisados al menos cuando varíen estos. Los municipios menores de 5.000 habitantes podrán elaborar los planes de clima y energía de forma individual o comarcal.

Además de lo establecido en el mencionado texto normativo, estos planes tendrán el siguiente contenido mínimo:

- a) El análisis y la evaluación de emisiones de gases de efecto invernadero.
- b) La identificación y la caracterización de los elementos vulnerables.
- c) Los objetivos y las estrategias para la mitigación y la adaptación al cambio climático, que incluya las posibles modificaciones adecuadas del planeamiento urbanístico y las ordenanzas municipales.
- d) Las acciones de sensibilización y formación.
- e) Las reglas para la evaluación y seguimiento del plan. En el caso de los ayuntamientos de municipios de población superior a 5.000 habitantes deben elaborar y aprobar, cada dos años, un informe sobre el grado de cumplimiento de sus planes.
- f) Cuando sea obligatoria la formulación de un plan de movilidad, de acuerdo con la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, movilidad sostenible de Euskadi, este plan se coordinará con los planes locales.

3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de energía y cambio climático elaborará una guía de instrucciones en la que se establecerán los instrumentos, metodologías y herramientas que podrán emplear los municipios del País Vasco para elaborar sus planes de clima y energía.

Artículo 19. Sistema de evaluación, seguimiento e implementación

1. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de energía y cambio climático, a los cinco años desde la aprobación de cada estrategia de transición energética y cambio climático, elaborará un informe de evaluación, seguimiento e implementación



eta adierazleen betetze-mailari buruz, eta, hala dagokionean, horiek betetzeko gomendioak eta neurri berriak proposatuko ditu.

2. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategien aldi bakoitzaren indarraldia bukatu ondoren, energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailak ezarritako helburuen, jarduketan eta adierazleen betetze-mailaren azken txostena idatziko du, eta, hala dagokionean, hurrengo plangintza-aldirako gomendioak emango ditu.
3. Jarraipen-, ebaluazio- eta inplementazio-txostenetan eta gomendioetan, horietan, EAEko gainerako administrazio publikoek egiten dituzten ekarpenak jaso beharko dira, eta herritar guztien eskura jarri.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren euskal estatistika-planek energia-trantsizioari eta klima-aldaketari buruzko adierazle eta datu-serie nagusiei buruzko informazioa jasoko dute.

IV. KAPITULUA KLIMA-NEUTRALITASUNA

1. atala Trantsizio energetikoa

20. artikulua. Trantsizio energetikoaren gidalerro orokorrak

Klima-neutraltasunerako trantsizio energetikoa otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, ezarritako helburu eta printzipioekin eta Europar Batasunetik datozen gidalerro, helburu eta betebeharrak aintzat hartuta gauzatuko da, gidalerro hauei jarraikiz:

- a) Enpresek, etxeek, EAEko administrazio publikoek eta gainerako kontsumitzaileek sektoreka ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte, energia-efizientziari eta ekoizpen elektriko eta termikorrako energia berriztagarriei eta mugikortasun jasangarriari dagokienez.
- b) Energia berriztagarrien hedapen azkar eta ordenatua bultzatuko da, biltegiratze ahalmenaren nahikotasuna bermatuz, sektore guztien beharrak asetzeko.
- c) EAEko administrazio publikoek energia biltegiratzearekin lotutako proiektuak sustatu eta bultzatuko dituzte. Halaber, sorkuntza berriztagarriko proiektuak lagunduko dituzte, bereziki alderdi kualitatibo bereizgarriak

sobre el cumplimiento de los objetivos, programas, actuaciones e indicadores y propondrá, en su caso, recomendaciones y nuevas medidas para su cumplimiento.

2. Al finalizar cada periodo de vigencia de las estrategias de transición energética y cambio climático, el departamento del Gobierno Vasco competente en energía y cambio climático elaborará un informe final de cumplimiento de los objetivos, actuaciones e indicadores establecidos y propondrá, en su caso, recomendaciones para el siguiente periodo de planificación.
3. Estos informes de evaluación, seguimiento e implementación y recomendaciones deberán recabar las aportaciones que realicen el resto de las administraciones públicas vascas y se pondrán a disposición de la sociedad en general.
4. Los planes vascos de estadística de la Administración general del País Vasco recogerán información sobre los principales indicadores y series de datos en relación con la transición energética y el cambio climático.

CAPÍTULO IV NEUTRALIDAD CLIMÁTICA

Sección 1.ª Transición energética

Artículo 20. Directrices generales de la transición energética

La transición energética hacia la neutralidad climática se llevará a cabo de acuerdo con los objetivos y principios que se establecen en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y atendiendo a los objetivos y obligaciones que se deriven de la Unión Europea, siguiendo las siguientes directrices:

- a) Las empresas, los hogares, las administraciones públicas vascas y demás consumidores deberán cumplir con las obligaciones que sectorialmente se establezcan en materia de eficiencia energética, energías renovables para la producción eléctrica y térmica y movilidad sostenible.
- b) Se impulsará un despliegue rápido y ordenado de energías renovables con suficiente capacidad de almacenamiento para satisfacer las necesidades de todos los sectores.
- c) Las administraciones públicas vascas promoverán y favorecerán proyectos relacionados con el almacenamiento de energía. Así mismo, apoyarán proyectos de generación renovable, especialmente aquellas



- dituztenak, hala nola, teknologia berritzaileak, sistema digitalak, lurraldean integratzea, tokiko enplegua sortzea, ingurumen-inpaktuak murriztea edo bizi-zikloan jasangarritasuna hobetzea.
- d) EAEko administrazio publikoek teknologia eta energia-bektore berriak erabiltzea bultzatuko dute, betiere iturri berriztagarrietatik etorri gero eta Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzorde Zientifikoaren aldeko txostena edukiz gero.
- e) Energia garraiatzeko eta banatzeko sareak sare adimendun eta planifikatu bihurtzea sustatuko da, efizientzia eta horniduraren efizientzia eta segurtasuna hobetzeko eta produktu eta zerbitzu berriei leku emateko.
- f) Jendarte osoak trantsizio energetikoan zeregin aktiboa izan dezala sustatuko da, autokontsumoaren bidez, komunitate energetikoen bidez edo instalazio berriztagarrien instalazioetan eta biltegitratzean parte hartuz.
- g) EAEko administrazio publikoek finantzaketa-tresnak sortuko dituzte, jarduera ekonomikoko sektore guztietan energia-efizientziako proiektuak sustatzen laguntzeko, eta energia berriztagarriak eta garraio efizientea eta jasangarria ezartzen.
- h) EAEko administrazio publikoek arreta berezia jarriko dute despoblazio-arriskua duten eremu geografikoetan, gizarte- eta lurralde-koehesioaren printzipioak kontuan hartuz. Horretarako, kooperatibak edo kontsumo-taldeak eta hurbileko ekoizleen taldeak bultzatuko dituzte, besteak beste, karbono gutxiko ekonomia sustatzeko, zero kilometroko kontsumoarekin.
- i) Karbono gehien eragiten duten erregaiak ordeztzea zenbait erabilerratan, besteak beste, garraio astunean eta itsas garraioan, eta horien ordeztzea energia berriztagarriak edo trantsizioak ezarriko dira, modu horretan deskarbonizazio-prozesuan aurrera eragiteko.
- que cuenten con aspectos cualitativos diferenciales, tales como tecnologías innovadoras, sistemas digitales, integración en el territorio, creación de empleo local, reducción de impactos medioambientales o mejoras de sostenibilidad en el ciclo de vida.
- d) Las administraciones públicas vascas fomentarán el uso de nuevas tecnologías y vectores energéticos, si provienen de fuentes renovables y cuentan con el informe favorable del Comité Científico para la Transición Energética y el Cambio Climático.
- e) Se impulsará la transformación de las redes de transporte y distribución de energía en redes inteligentes y planificadas que permitan mejorar la eficiencia y la seguridad de suministro y dar cabida a nuevos productos y servicios.
- f) Se fomentará que el conjunto de la sociedad tenga un papel activo en la transición energética, a través del autoconsumo, de comunidades energéticas, o participando en las instalaciones de energía renovable y/o de almacenamiento.
- g) Las administraciones públicas vascas crearán instrumentos y herramientas de financiación para favorecer la promoción de proyectos de eficiencia energética y la implantación de energías renovables y transporte eficiente y sostenible en todos los sectores de actividad económica.
- h) Las administraciones públicas vascas prestarán especial atención a aquellas zonas que presenten riesgo de despoblamiento, teniendo en consideración los principios de cohesión social y territorial. Para ello impulsarán, entre otras acciones, las cooperativas o grupos de consumo y de productores de proximidad, con el objetivo de potenciar una economía baja en carbono con consumo de proximidad.
- i) La sustitución de los combustibles más intensivos en carbono en aplicaciones como el transporte pesado y marítimo a través de energías renovables o de transición que permitan avanzar en la descarbonización.

21. artikulua. Energia-efizientziaren helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan energiaren azken kontsumoan, gutxienez, % 12 aurreztuko da 2030. urtean, eta % 37ko aurrezpena 2050. urtean, 2021. urtea erreferentziatzat hartuta.

Artikulu honetan ezarritako helburuak gutxienezkoak izango dira, eta gorantz berrikusi ahal izango dira, Europar Batasuneko edo Estatuko erakundeek ezarritako helburuekin bat etorri.

Artículo 21. Objetivos de eficiencia energética

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi el ahorro en el consumo final de energía deberá ser, al menos, de un 12 % en el año 2030 y un 37 % en el año 2050, tomando como base de referencia el año 2021.

Los objetivos establecidos en el presente artículo tendrán carácter de mínimos y podrán ser revisados al alza en coherencia con los objetivos fijados por las instituciones de la Unión Europea o del Estado.



22. artikulua. Energia-efizientziaren gidalerroak

1. EAEko Administrazio orokorrak energia-efizientzia eta eskariaren kudeaketa sustatu eta erraztuko ditu energia-kontsumitzaileen sektore eta ekoizpen-sektore guztietan.
2. EAEko administrazio publikoek neurriak proposatuko dituzte lege honetan ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko, bai eta kontsumitzaileen sektore publiko edo pribatuek bete beharreko araugintza-, ekonomia- eta zerga-neurri alternatiboak, edo informazio eta komunikaziokoak ere.
3. Aurrezte- eta efizientzia-neurri espezifikoak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta lege honetan ezarritako planetan eta estrategietan, neurri sektorial zehatzak txartatuko dira eta, hala dagokionean, horien nahitaezkotasuna, bai eta garatu beharreko jarduketak finantzatzeko mekanismoak. Planek eta estrategiek, besteak beste, garrantzi berezia eman beharko diote energia-kontsumoa murrizteari, honako hauen bidez:
 - a) Gertutasuneko produktuen kontsumoa eta ekonomia zirkularra sustatzea.
 - b) Ekoizpen-prozesuetako soberazko energia termikoa aprobetxatzea.
 - c) Motorrik gabeko mugikortasuna sustatzea.
 - d) Energia-beharrak minimizatuko dituen hirigintza-diseinua.
 - e) Energiaren erabilera efizientean hezteak.
 - f) Instalazio termikoen efizientzia sustatzea eta eraikuntzaren, birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen sektorean energia-efizientzia sustatzea.
 - g) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasunekoak diren azpiegitura eta ekipamendu handien proiektuetan, energia-efizientziari buruzko hainbat aukera ebaluatzea.
 - h) Argiteria publikoa pixkanaka egokitzea, energia-kontsumo efizientea eta argi-kutsadura murriztea ahalbidetzeko.

Artículo 22. Directrices de eficiencia energética

1. La Administración general del País Vasco promoverá y facilitará la eficiencia energética y la gestión de la demanda en todos los sectores consumidores de energía y sectores productivos.
2. Las administraciones públicas vascas propondrán medidas para asegurar el cumplimiento de los objetivos establecidos en la presente ley, inclusive medidas alternativas de tipo regulatorio, económico, fiscal o de información y comunicación, que habrán de ser ejecutadas por los diferentes sectores consumidores, públicos o privados.
3. Las medidas específicas de ahorro y eficiencia serán establecidas reglamentariamente y en los planes y las estrategias establecidas en esta ley, incorporando medidas sectoriales concretas y, en las que corresponda, la obligatoriedad de estas medidas, así como los mecanismos de financiación de las actuaciones a desarrollar. Los planes y las estrategias deberán, entre otros aspectos, dar especial relevancia a la reducción del consumo energético, a través de:
 - a) El fomento del consumo de productos de proximidad y la economía circular.
 - b) El aprovechamiento de la energía térmica excedentaria de los procesos productivos.
 - c) El fomento de la movilidad no motorizada.
 - d) El diseño urbanístico que minimice las necesidades energéticas.
 - e) La educación en el uso eficiente de la energía.
 - f) El fomento de la eficiencia de las instalaciones térmicas, así como del sector de la edificación, la rehabilitación y la regeneración urbana.
 - g) La evaluación de diferentes alternativas en relación con la eficiencia energética en aquellos proyectos de grandes infraestructura y equipamientos cuya titularidad corresponda a las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma.
 - h) La adaptación progresiva del alumbrado público a fin de permitir el consumo eficiente de energía y la reducción de la contaminación lumínica.



4. Produktibitatea eta zerbitzu-prestazioa handitzen dituzten enpresa-estrategiak eta negozio-eredu berritzaileak sustatuko dira, energia-efizientzia materialen eta denboraren erabilerekin uztartzen duten heinean.
5. Energia-efizientzia hobetzeko ekimenak eta proiektuak sustatuko dituzten mekanismoak abian jartzea bultzatuko da.

23. artikulua. Helburuak energia berriztagarrietan

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan energia berriztagarriek azken energia-kontsumoan gutxienez % 32ko partaidetza izan beharko dute 2030ean.

Artikulu honetan ezarritako helburua gutxienekoa izango da, eta gorantz berrikusi ahal izango da, Europar Batasuneko edo Estatuko erakundeek ezarritako helburuekin bat etorritz.

24. artikulua. Energia berriztagarrien gidalerroak

1. EAEko administrazio publikoek energia berriztagarriek azken energia-kontsumoan partizipazioko helburuak betetzea bultzatuko dute, eta, horretarako, lurraldeko ingurumen-balioen kontserbazioarekin bat datorren hedapen ordenatua, planifikatua bermatuko dute.
2. EAEko administrazio publikoek sustatuko dute, ahal den neurrian, proiektatutako energia-kontsumo berriztagarriak lortzeko behar diren energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan instalatzea, energia berriztagarrien hedapen endogenoari lotutako aukera sozioekonomikoak aprobetxatzeko eta egungo kanpoko energia-mendetasuna murrizteko, hau da, subiranotasun energetikoa handitzeko.
3. Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala da energia berriztagarrien, termikoen zein elektrikoen, garapen ordenatua bermatzeko tresna. Horretarako, aintzat hartuko ditu ingurumen-irizpideak eta natura-ondarea kontserbatzekoak, teknikoak, ekonomikoak eta soziolaboralak, prozesuari lotutako eragile guztiek proiektuen izapidetzea eta ezarpena bermeekin kudeatu ahal izan dezaten.
4. Lurraldeari dagokionez, EAEko administrazio publikoek antolamenduko tresna arau-emaileak onetsiko dituzte energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, itsasoko energiak barne, industria-eta gizarte-garapen orekatuarekin bateragarriak

4. Se impulsarán las estrategias empresariales y los modelos de negocio innovadores que incrementen la productividad y la prestación de servicios, aunando la eficiencia energética con la eficiencia en el uso de materiales y de tiempo.
5. Se potenciará la puesta en marcha de mecanismos que promuevan iniciativas y proyectos para la mejora de la eficiencia energética.

Artículo 23. Objetivos en energías renovables

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi la participación de las energías renovables en el consumo final energético deberá ser, al menos, de un 32 % en el año 2030.

El objetivo establecido en el presente artículo tendrá carácter de mínimo y podrá ser revisado al alza en coherencia con los objetivos fijados por las instituciones de la Unión Europea o del Estado.

Artículo 24. Directrices en energías renovables

1. Las administraciones públicas vascas impulsarán el cumplimiento de los objetivos de participación de energías renovables en el consumo final energético, garantizando un despliegue ordenado, planificado y acorde con la conservación de los valores ambientales del territorio.
2. Las administraciones públicas vascas fomentarán que, en la medida de lo posible, las energías renovables necesarias para alcanzar los consumos energéticos renovables proyectados se instalen en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el objetivo de aprovechar las oportunidades socioeconómicas vinculadas al despliegue endógeno de energías renovables y con el objetivo de reducir la actual dependencia energética exterior, es decir, de aumentar la soberanía energética.
3. El Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables es el instrumento que debe servir para garantizar un desarrollo ordenado de las energías renovables, tanto térmicas como eléctricas, atendiendo a criterios ambientales y de preservación del patrimonio natural, técnicos, económicos y sociolaborales, de manera que todos los agentes implicados en el proceso puedan gestionar la tramitación e implantación de los proyectos con garantías.
4. A nivel territorial, las distintas administraciones públicas vascas aprobarán instrumentos normativos de ordenación que, propiciando el uso de las energías renovables, incluídas las energías marinas, sean compatibles con un

eta lurraldeari zein ingurumenari begira modu jasangarrian ezarrita, natura-ondarea errespetatuz.

5. Administrazio publikotik instalazio berriztagarriak sustatzeko, finantzaketa-mekanismoak ezarriko dira, aldeko erregulazioa garatuko da eta lurralde-interes estrategikoko proiektu berriztaileetan parte hartuko da, ekimen pribatuarekin batera edo zuzenean, inbertsio propioekin. Horrela teknologiak erakutsi eta esperimentatuko dira, merkatuan irtenbide berriztaileak sartzeari baliozkotu eta bizkortu ahal izateko.
6. EAEko administrazio publikoek herritarren energia-komunitateen eta energia berriztagarrien komunitateen garapena sustatuko dute, sorkuntza kontsumo-puntuetara hurbiltzeko eta energia-sistemaren demokratizazio handiagoa lortzeko, arreta berezia jarri eremu ahulenetan eta herritarrek teknologia berriztagarrien proiektuetan parte har dezatela sustatzeko.
7. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, energia elektriko eta termiko berriztagarria biltegitratzeko sistemak garatzea eta ezartzea bultzatuko dute, baita autokontsumoa eta ibilgailu elektrikoaren erabilera ere.
8. EAEko ekonomiaren deskarbonizazio-prozesuan aurrera egiteko, jatorri berriztagarriko erregai alternatiboak sortzea bultzatuko da, haien ezaugarri teknikoak, ingurumen-eragina eta inpaktu ekonomikoa kontuan hartuta.
9. Erregelamendu bidez ezarriko dira azpiegitura, ekipamendu eta instalazio publiko eta pribatuetan energia berriztagarrien erabilera progresiboa sustatzeko beharrezko neurriak, bai eta, hala badagokio, horien nahitaezotasuna ere.

25. artikulua. Energia berriztagarriak sustatzea eta kudeatzea

1. Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko eredu energetikoaren aldaketaren bultzatzaile gisa, sistema energetiko demokratiko, sozial eta bidezkoa sustatuko du, une oro lurraldearen kudeaketa integrala EAEko energia-beharretara bideratutako energia-iturri berriztagarrien dibertsifikazioarekin uztarturik.
2. Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen eta horri atxikitako sozietate publikoen bitartez, partaidetza publikoa sustatuko du formula desberdinetan energia berriztagarriak garatzeko proiektuan, teknologia

desarrollo industrial y social equilibrado y una implantación territorial y ambiental sostenible, que respete el patrimonio natural.

5. El fomento de instalaciones renovables desde la Administración pública se realizará mediante el establecimiento de mecanismos de financiación, el desarrollo de una regulación favorable y la participación en proyectos innovadores de interés estratégico territorial, acompañando a la iniciativa privada o directamente con inversiones propias, para la demostración y experimentación de tecnologías que permitan validar y acelerar la llegada al mercado de soluciones innovadoras.
6. Las administraciones públicas vascas promoverán el desarrollo de las comunidades ciudadanas de energía y las comunidades de energías renovables para acercar la generación a los puntos de consumo y para conseguir una mayor democratización del sistema energético con especial atención a las zonas más vulnerables y fomentar la participación de la ciudadanía en proyectos de tecnologías renovables.
7. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, impulsarán el autoconsumo, el desarrollo e implantación de sistemas de almacenamiento de energía eléctrica y térmica renovable, y el uso del vehículo eléctrico.
8. De cara a avanzar en el proceso de descarbonización de la economía vasca, se apoyará la generación de combustibles alternativos de procedencia renovable, teniendo en cuenta sus características técnicas, su incidencia ambiental y su impacto económico.
9. Reglamentariamente se establecerán las medidas necesarias para fomentar la utilización progresiva de energías renovables en las infraestructuras, equipamientos e instalaciones públicas y privadas, así como, en su caso, su obligatoriedad.

Artículo 25. Fomento y gestión de las energías renovables

1. El Gobierno Vasco, como impulsor del proceso de transición energética en Euskadi, promoverá un modelo energético democrático, social y justo, donde se compagine la gestión integral del territorio con la diversificación de las fuentes de energías renovables encaminada a cubrir las necesidades energéticas vascas.
2. El Gobierno Vasco, a través del Ente Vasco de la Energía y de sus sociedades adscritas, fomentará la participación pública en proyectos de desarrollo de energías renovables en sus diversas tecnologías y escalas, por medio de



eta eskala desberdinetan, lankidetzak publiko-publikoa, publiko-komunitarioa, publiko-pribatua edo horien arteko edozein konbinaziotan.

3. Eusko Jaurlaritzan energiaren arloan eskumena duen sailak energia berriztagarrien instalazioak ezartzea sustatuko du, baita energia biltegitratzeko sistemak ere eta horietarako finantzaketa-mekanismoak eta laguntzak. Era berean, sinplifikazio administratiboa bultzatuko du energia berriztagarrien instalazioak izapidetzeko.

26. artikulua. Azalera-emakidak edo eskubideak ematea

1. EAEko administrazio publikoek jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak eman ahal izango dituzte, edo azalera-eskubideak aitortu bere titulartasuneko ondare-ondasunen gainean, energia berriztagarrien komunitateen alde edo legez eraturako herritarren komunitate energetikoen alde, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzeko helburuarekin edo energia biltegitratzeko edo komunitate horien definizioan zehaztutako xedea bilatzen duten beste ekimenetarako.
2. Helburu horretarako jabari publikoko emakidak, bai eta azalera-eskubidea ere, entitate mota horrentzat gordetako lehiaketa publiko bitartez eman ahal izango dira, edo doako lagapen zuzenaren bitartez, eta honako alderdi hauek ezarri beharko dira, nahitaez, oinarrietan:
 - a) Zein ondasunen gainean erutzen den zehazki emakida edo azalera-eskubidea.
 - b) Emakidaren edo azalera-eskubidearen gehieneko iraupena, eta izan ditzakeen luzapenak, aplikagarri zaion ondare publikoaren araudiak ezartzen duen gehieneko denbora kontuan izanik.
 - c) Ordaindu beharreko urteroko kanona edo sortutako energia aprobetxatzeko lankidetzak-mekanismoa, halakorik izanez gero.
 - d) Sorkuntza berriztagarriko gutxieneko potentzia edo biltegitratzekoa eta bere oinarritzko ezaugarriak.
 - e) Instalazioak abian jartzeko gehieneko denbora.
 - f) Emakida egin duen Administrazio publikoak egikaritutako dituen lankidetzak-eta fiskalizazio-mekanismoak.

fórmulas variables de colaboración público-pública, público-comunitaria o público-privada, o cualquier combinación de ellas.

3. El departamento del Gobierno Vasco con competencia en materia de energía fomentará la implantación de instalaciones de energías renovables, así como sistemas de almacenamiento energético, entre otros, y de mecanismos de financiación como las ayudas. Así mismo, impulsará la simplificación administrativa para la tramitación de las instalaciones de energías renovables.

Artículo 26. Otorgamiento de concesiones o derechos de superficie

1. Las administraciones públicas vascas podrán otorgar concesiones sobre bienes demaniales, o constituir derechos de superficie sobre bienes patrimoniales de su titularidad a favor de las comunidades de energías renovables y las comunidades ciudadanas de energía legalmente constituidas para el desarrollo de proyectos de generación de energías renovables o almacenamiento energético u otras iniciativas que busquen el objeto descrito en la definición de estas comunidades.
2. Las concesiones demaniales, así como el derecho de superficie, para esta finalidad se podrán conceder mediante concurso público reservado para este tipo de entidades o mediante cesión gratuita y directa, y se tendrán que establecer necesariamente en las bases los siguientes aspectos:
 - a) La determinación exacta de los bienes sobre los cuales se constituye la concesión o el derecho de superficie.
 - b) La duración máxima de la concesión o del derecho de superficie y, en su caso, las oportunas prórrogas, hasta el máximo previsto en la normativa de patrimonio público aplicable.
 - c) El canon anual a satisfacer o el mecanismo de colaboración para el aprovechamiento de la energía generada, si procede.
 - d) La potencia mínima de generación renovable o almacenamiento a instalar y sus características básicas.
 - e) El plazo máximo de puesta en marcha de estas instalaciones.
 - f) Los mecanismos de colaboración y fiscalización a ejercer por parte de la Administración pública concedente.

- g) Emakida amaitzean edo ebaztean, nola egingo den itzulketa emakida egin duen Administrazio publikoaren alde.
- h) Emakidaren hutsaltze- eta itzultze-eskubidea, bai eta azalera-eskubidea ebaztea ere, instalazioaren mantentzean, segurtasunean edo gutxiegi erabiltzeagatik ez-betetze larriko kasuak daudenean.

- g) La forma en que se ejecutará la reversión a favor de la administración pública concedente una vez agotado el plazo de concesión o resuelta esta.
- h) El derecho de rescisión de la concesión y su reversión, así como la resolución del derecho de superficie, para los casos graves de incumplimiento del mantenimiento de las instalaciones y de su seguridad, o de infrutilización.

27. artikulua. Tokiko parte-hartzea sustatzea energia berriztagarrien proiektuetan

1. EAEko administrazio publikoek energia berriztagarrien proiektuen garapena bultzatu eta erraztu beharko dute, era horretako jardueretan herritarren parte-hartzea sustatuz. Tratamendu berezia emango zaie garapen ekonomiko txikiagoa edo biztanleriaren jaitsiera duten eremu geografikoei, Euskadi kohesionatzeko, bai lurralde mailan, bai gizarte mailan.
2. Aurreko apartatuari jarraikiz, bereziki sustatuko da tokiko herritarren parte-hartzea herritarren energia-komunitateek, energia berriztagarrien komunitateek edo beste partaidetza-eskema batzuek sustatzen dituzten proiektuetan, ordenamendu juridikoan jasotzen diren moduan.
3. Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, energia-komunitateek sustatzen ez dituzten eta hura garatzeko gaitzen duen administrazio-baimena lortzeko prozedura hasi ez duten energia berriztagarrien proiektuetarako, proiektuok nork sustatu dituen alde batera utzita, gutxienez proiektuaren potentzia osoaren % 20 eskaini beharko zaie herritarrei eta industria eta saltokiei, lehentasunez aprobetxamendu berriztagarriko instalazioa kokatuta dagoen udalerrian edo udalerririk mugakideetan edo dagokien eskualdean.

Aurreko paragrafoan ezarritako erreserba eguzki-energia fotovoltaikoko eta energia eolikoko proiektuei baino ez zaie aplikatuko, baldin eta, banaka edo batera, kokapen bakoitzeko 5 MW-etik gorako potentzia badute.

Eskaintza egiaztatzeko sistema erregelamendu bidez garatuko da, lege hau indarrean jartzen denetik gehienez urtebeteko epean.

28. artikulua. EAEko enpresen sarbidea energia elektriko berriztagarria

EAEko Administrazio publikoak partaidetza izanez gero, akordioak sustatuko ditu 5 MW baino

Artículo 27. Promoción de la participación local en proyectos de energías renovables

1. Las administraciones públicas vascas deberán promover y facilitar el desarrollo de proyectos de energías renovables, fomentando con ello la participación ciudadana en ese tipo de actividades. Se dará un tratamiento especial a aquellas zonas geográficas con menor nivel de desarrollo económico o reducción de población, a fin de cohesionar Euskadi tanto a nivel territorial como social.
2. De acuerdo con el apartado anterior, se fomentará especialmente la participación ciudadana local en proyectos que se promuevan desde las comunidades ciudadanas de energía, las comunidades de energías renovables u otros esquemas participativos, tal y como se recojan en el ordenamiento jurídico.
3. A partir de la entrada en vigor de la presente ley, y para aquellos proyectos de energía renovables que no sean promovidos por comunidades energéticas y no hayan iniciado el procedimiento para la obtención de la autorización administrativa que habilite para su desarrollo, independientemente de por quién hayan sido promovidos, se deberá ofrecer, como mínimo, un 20 % de la potencia total del proyecto a la ciudadanía y a las industrias y comercios, prioritariamente en el municipio donde se ubique la planta de aprovechamiento renovable o en los municipios limítrofes o comarca a la que pertenezcan.

La reserva establecida en el párrafo anterior se aplicará exclusivamente a los proyectos de energía solar fotovoltaica y energía eólica que de manera individual o conjunta tengan una potencia total por emplazamiento superior a los 5 MW.

El sistema de acreditación de la oferta se desarrollará reglamentariamente en el plazo máximo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente ley

Artículo 28. Acceso de las empresas vascas a la energía eléctrica renovable

La Administración pública vasca promoverá acuerdos de compra de energía eléctrica por parte de



gehiagoko sorkuntza berriztagarriko proiektuetan, EAEko enpresek energia elektrikoa eros dezaten.

29. artikulua. Administrazioak energia berriztaezinak bertan behera uztea

EAEko administrazio publikoek energia fosilak erabiltzen dituzten eta beren jabetzako eraikinetan dauden ekipamenduen ordez jatorri berriztagarriko energiak erabiltzen dituzten beste batzuk jarriko dituzte modu progresiboan, erregelamendu bidez ezartzen diren epe eta baldintzetan.

30. artikulua. Eraikinetan hurbileko berriztagarriak sustatzea

Eraikuntzaren sektorean energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, erregelamendu bidez ezarriko dira energia horiek *in situ* edo eraikinen inguruetan ekoiztea errazteko neurriak.

31. artikulua. Mugikortasun jasangarria

1. EAEko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriagoa sustatuko dute, eta, horretarako, sustatuko dituzte oinezkoen eta txirindularien mugikortasun aktiboa, garraio publikoa eta efizienteagoak diren eta gutxiago kutsatzen duten garraio moduak, aintzakotzat hartuta aurrezpen-irizpideak, energia-efizientziako irizpideak eta produktuaren, ondasunaren edo zerbitzuaren kostu eta balio-bizitzako irizpideak, eta, horrekin batera, garraioaren deskarbonizazioa bultzatzen duten energia alternatiboen erabilera ere sustatuko dute.
2. EAEko administrazio publikoek mugikortasun jasangarriko planak egin eta garatuko dituzte, Euskadiko mugikortasun jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen arabera, eta lege honetan ezarritako printzipioak jasoko dituzte plan horietan, emisioak murrizteko helburuak zehaztuta.
3. EAEko administrazio publikoek garraio eredu efiziente eta jasangarriagoak garatzea bultzatuko dute. Horien ezaugarriak izango dira teknologia garbiko ibilgailuak erabiltzea, multimodalitatea, intermodalitatea eta uztartzea mugikortasun alternatiboko formak eta herritarren beharrei erantzuten dieten mugikortasun-zerbitzuak. Halaber, emisio gutxiago sortzen dituzten garraio moduak sustatuko dituzte, kudeaketa-sistemak hobetuko dituzte eta bultzatuko dituzte garraio publikoaren erabilera, gidatze efizientea, trakzio- eta motor-sistemetak teknologia berriak, energia alternatiboen erabilera eta teknologia digitalak.

las empresas vascas en aquellos proyectos de generación eléctrica renovable de más de 5 MW en los cuales tenga participación.

Artículo 29. Abandono de energías no renovables por parte de la Administración.

Las administraciones públicas vascas procederán a la sustitución progresiva de los equipamientos que utilicen energías fósiles y se encuentren ubicados en los edificios de los que sean propietarias por otros que funcionen con energías de origen renovable, en los plazos y condiciones que se establezcan reglamentariamente.

Artículo 30. Fomento de renovables de proximidad en las edificaciones

Con el fin de promover el uso de energías renovables en el sector de la edificación se establecerán, reglamentariamente, las medidas para facilitar la producción de dichas energías *in situ* o en las proximidades de las edificaciones.

Artículo 31. Movilidad sostenible

1. Las administraciones públicas vascas, en el marco de sus respectivas competencias, fomentarán una movilidad más sostenible mediante la promoción de la movilidad activa peatonal y ciclista, el transporte público y los modos de transporte más eficientes y menos contaminantes, siguiendo criterios de ahorro y eficiencia energética, de coste y de vida útil del producto, bien o servicio, así como la utilización de energías alternativas que contribuyan a la descarbonización del transporte.
2. Las administraciones públicas vascas elaborarán y desarrollarán sus planes de movilidad sostenible de acuerdo con la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi, e incorporarán en estos los principios establecidos en la presente ley, determinando sus objetivos de reducción de emisiones.
3. Las administraciones públicas vascas impulsarán el desarrollo de modelos de transporte más eficientes y sostenibles, caracterizados por el uso de vehículos con tecnologías limpias, la multimodalidad, la intermodalidad y la convivencia de formas de movilidad alternativa y servicios de movilidad que den respuesta a las necesidades de la población. Así mismo, fomentarán los modos de transporte con menores emisiones, mejorarán sus sistemas de gestión e impulsarán el uso del transporte público, la conducción eficiente, las nuevas tecnologías en sistemas de tracción y de motores, el uso de energías alternativas y las tecnologías digitales.

- | | |
|---|---|
| 4. EAEko administrazio publikoek garraio jasangarria sustatzen jarraituko dute, ibilgailuak berrituz eta parke mugikorrean energia alternatiboak modu progresiboan txertatuz, trafikoaren emisioak urrunetik neurtzeko teknologiak erabiliz, politika publikoen plangintza bidezkoagoa eta eraginkorragoa egin ahal izateko, eta ibilgailu partekatua sistemak ere sustatuko dituzte. | 4. Las administraciones públicas vascas continuarán promoviendo el transporte sostenible mediante la renovación de vehículos y la progresiva incorporación de energías alternativas en el parque móvil, haciendo uso de tecnologías de medición remota de las emisiones del tráfico que permitan una planificación más justa y eficiente de las políticas públicas, así como sistemas de vehículo compartido. |
| 5. Karga eta hornidurako azpiegiturak hedatzea bultzatuko da, eta mugikortasunaren konektagarritasuna eta digitalizazioa modu progresiboan ezartzea. | 5. Se promoverá el despliegue de las diferentes infraestructuras de recarga y repostaje, así como la progresiva implantación de la conectividad y digitalización de la movilidad. |
| 6. EAEko administrazio publikoek modu aktiboan jokatuko dute garraio-sektorean sortzen diren aldaketetan, bai teknologiari begira, bai eskaintzaren eta eskaeraren aldetekari begira. Halaber, bidea emango dute negozio-eredu berriak txertatzeko mugikortasunaren balio-kateko eremu eta katebegi guztietan. | 6. Las administraciones públicas vascas mantendrán una posición activa dentro de los cambios que se generen en el sector del transporte, tanto en relación con la tecnología como en cambios en la oferta y demanda, facilitando la incorporación de nuevos modelos de negocio, en todos los ámbitos y eslabones de la cadena de valor de la movilidad. |
| 7. Portuak abiaburu eta helmuga dituzten trenbide-azpiegiturak garatzea bultzatuko da, ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko eta pertsonen eta salgaien garraioaren deskarbonizazioa errazteko. | 7. Se impulsará el desarrollo de las infraestructuras de transporte ferroviario con origen y destino en puertos, para mejorar la competitividad de la economía y facilitar la descarbonización del transporte de personas y mercancías. |
| 8. Garraio lehiakor eta jasangarria lortzeko behar diren politikak definitu eta koordinatuko dira, Euskadi arlo honetan erreferente izan dadin Europan. | 8. Se definirán y coordinarán las políticas necesarias para lograr un transporte competitivo y sostenible que propicie la posición de referencia de Euskadi en Europa en este ámbito. |
| 9. Pertsonentzako garraio publikoaren sare koordinatua eta integratua eta azpiegitura logistiko multimodalaren sare garatzea sustatuko da, eta garraio modu jasangarrienak erabiltzea sustatuko da, bereziki, trenbide-sistemari dagokionez. | 9. Se promoverá el desarrollo de una red de transporte público de personas coordinada e integrada y una red de infraestructuras logísticas multimodal, fomentando el uso de los modos de transporte más sostenibles, especialmente el sistema ferroviario. |
| 10. EAEko administrazio publikoek garraioaren erabilera efizientea sustatuko dute, eta gizartea kontzientziatuko dute garraio jasangarriaren beharraz, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegietatik. | 10. Las administraciones públicas vascas fomentarán un uso eficiente del transporte, concienciando a la sociedad de la necesidad de un transporte sostenible desde distintas ópticas: social, medioambiental y económica. |
| 11. Kolektibo zaugarrienei zuzendutako garraio-alternatibak garatzeko neurriak bultzatuko dira. | 11. Se promoverán medidas para el desarrollo de alternativas de transporte para los colectivos más vulnerables. |
| 12. Bizikletaren erabilera sustatuko da, azpiegitura espezifikoak instalatuz eta bizikleta partekatuko sistema publikoak ezarri. | 12. Se fomentará el uso de la bicicleta, mediante la instalación de infraestructuras específicas y la implementación de sistemas públicos de bicicleta compartida. |



2. atala**Neutraltasuna sustatzen duten beste sektore- eta lurralde-politika batzuk****32. artikulua. Ekonomia zirkularra**

1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, bizi-zikloaren ikuspegia aintzat hartu beharko dute ekonomia zirkularren arloan ezartzen dituzten neurrietan, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea sustatzeko eta hau izango dute helburutzat:
 - a) Klimatikoki neutroa den ekonomia lortzeko eraldatze-prozesuari estu lotutako jarduera, industria eta merkatu berrien garapena sustatzea, produktuen balioari eustera, haien balio-bizitza luzatzera, erabilera optimizatuko ereduak garatzera edota bizialdiaren amaierara iritsitakoan lehengo balioa berreskuratzera bideratuta.
 - b) Industria-jarduerei laguntzea, ekonomia zirkularra sar dezaten haien prozesuetan.
 - c) Lehengaien ordeaz, hondakinak baliatuta sortutako azpiproduktuak edo bigarren mailako lehengaiak erabil daitezzen sustatzea, horrela ekonomia zirkularra bultzatzeko.
 - d) Hondakin-sorreraren murrizketa eta hondakinen kudeaketaren eta balorizazioaren optimizazioa sustatzea.
 - e) Hiri-hondakinen gaikako bilketa handitzea, bereziki, materia organikoarena eta plastikozko ontziena.
 - f) Zabortegetan utzitako hondakin biodegradagarriak murriztea.
 - g) Hondakinen bilketa- eta garraio-prozesuan bertan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko bide ematen duten ereduak ezar daitezzen bultzatzea.
 - h) Hondakinak eta hondakin-urak kudeatzeko instalazioetan berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzeko eta biogasa aprobetxatzeko neurriak ezartzea.
 - i) Proiektu jasangarriak, zirkularrak eta karbono-neutraltasuna dutenak lehenestea finantzaketa-lerroetan eta beharrezko izapidetzeetan.
2. Hondakinak kudeatzeko eta ura tratatzeko instalazioek beren karbono-aztarna kalkulatu

Sección 2.ª**Otras políticas sectoriales y territoriales que contribuyen a la neutralidad****Artículo 32. Economía circular**

1. Las medidas que se adopten por las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, en materia de economía circular deberán considerar el enfoque de ciclo de vida para fomentar la reducción de la emisión de gases de efecto invernadero y tendrán como finalidad:
 - a) Fomentar el desarrollo de nuevas actividades, industrias y mercados estrechamente vinculados con el proceso de transformación en una economía neutra climáticamente y orientados a mantener el valor de los productos, a alargar su vida útil, a modelos de uso optimizado o a recuperar su valor tras el fin de su vida.
 - b) Apoyar las actividades industriales en la incorporación de la economía circular en sus procesos.
 - c) Promover la sustitución de materias primas por subproductos o materias primas secundarias procedentes de la valorización de residuos, favoreciendo la economía circular.
 - d) Promover la reducción en la generación de residuos y la optimización de su gestión y valorización.
 - e) Incrementar la recogida selectiva de residuos urbanos, en especial de materia orgánica y envases plásticos.
 - f) Reducir los residuos biodegradables depositados en vertederos.
 - g) Impulsar la implantación de modelos de recogida y transporte de residuos que incluyan la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero en el propio proceso.
 - h) Establecer medidas de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero y de aprovechamiento de biogás en las instalaciones de gestión de residuos y de aguas residuales.
 - i) Priorizar el apoyo a los proyectos sostenibles, circulares y neutros en carbono en las líneas de financiación y tramitaciones necesarias.
2. Las instalaciones de gestión de residuos y tratamiento de aguas deberán calcular su



eta plan bat egin beharko dute azterna minimizatzeko, azterna zero edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalazioek duten betebeharrak, zein den karbono-azternaren kalkularen irismena, planak, gutxienez, zer eduki jasoko duen, zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den.

huella de carbono y elaborar un plan dirigido a minimizarla, para que esta sea cero o negativa, si fuera técnica y económicamente viable. Reglamentariamente se establecerán las instalaciones afectadas por dicha obligación, el alcance del cálculo de la huella de carbono, el contenido mínimo del plan, el plazo en el que deberá estar redactado y la frecuencia de su actualización.

33. artikulua. Industria-prozesuen deskarbonizazioa

1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen arloan, industria-jardueren eremuan berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa progresiboa bultzatuko dute, ezartzen dituzten plangintza eta neurrien bidez, eta helburu hauek izango dituzte:

- a) Energia-efizientzia eta zirkulartasuna, elektrifikazioa, hidrogeno berdea eta deskarbonizazioa bultzatzen duten energia-iturri alternatiboak sustatzea, egungo industria-sarea eraldatzeko.
- b) Trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren aukerak baliatzea, balio erantsi handiko industria- eta ekonomia-jarduera berria sortzeko.
- c) Prozesuetan ekonomia zirkularra txertatzea, energia-kontsumoa gutxitzeko, lehengai gutxiago erabiltzeko eta karbono-azterna murrizteko.
- d) Ingurumen-ziurtagiriak sustatzea, zehazki: karbono-azternaren gainekoa, antolakundeentzat, eta ingurumen-azternaren gainekoa produktu eta zerbitzuentzat.
- e) Degradatutako lurzorua industria-erabileretarako berreskuratzea eta berronartzea.
- f) Sektorea bultzatzea, babes-programen bidez, emisioak murriztu ditzan haren jardueran.
- g) Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea industria-garapenerako arlo eta balio-kateetan, trantsizio energetikorako eta klimatikorako irtenbideak emateko.

2. Industria-garapen berriak eraldatzean, berrantolatzean, sustatzean eta sortzean trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren

Artículo 33. Descarbonización de procesos industriales

1. La planificación y las medidas que se adopten por las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, en materia de actividades industriales, impulsarán la reducción progresiva de las emisiones de gases de efecto invernadero, y tendrán como finalidad:

- a) El fomento de la eficiencia energética y circularidad, la electrificación, el hidrógeno verde y el uso de fuentes de energía alternativa que impulsen la descarbonización para transformar el tejido industrial actual.
- b) El aprovechamiento de las oportunidades de la transición energética y climática para generar nueva actividad industrial y económica de alto valor añadido.
- c) La incorporación de la economía circular en sus procesos, orientada a la reducción del consumo energético y la disminución de la utilización de las materias primas y de su huella de carbono.
- d) El fomento de certificaciones ambientales, específicamente la huella de carbono para organizaciones, y la huella ambiental para productos y servicios.
- e) La recuperación y regeneración de suelos degradados para usos industriales.
- f) El impulso al sector, a través de los programas de apoyo, para que se favorezca la reducción de emisiones en su actividad.
- g) El fomento de la investigación, el desarrollo tecnológico y la innovación en ámbitos y cadenas de valor de desarrollo industrial que aportan soluciones para la transición energética y climática.

2. La transformación, reordenación, promoción y creación de nuevos desarrollos industriales deberá incluir la perspectiva de la transición



ikuspuntua txertatu beharko da: zehazki, balio-bizitzan sor ditzaketen berotegi-efektuko gasen emisioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, eta emisio horiek murrizteko edo konpentsatzeko neurriak.

3. EAEko administrazio publikoek ekonomiaren deskarbonizazioan aurrera egiteko ezagutza indartzea bermatuko dute industria-sektoreetan.
4. EAEko administrazio publikoek epe luzeko jarduketako plan sektorialak egitea bultzatuko dute.
5. Euskal Autonomia Erkidegoaren dauden industria-instalazioek beren karbono-aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute aztarna minimizatzeko, aztarna zero edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalaziok duten betebeharrak, zein den karbono-aztarnaren kalkularen irismena, planak gutxienez zer eduki jasoko duen, eta zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den.

34. artikulua. Merkataritzako, turismoko eta zerbitzuen sektoreko gainerako azpisektoreetako jarduerak

1. EAEko administrazio publikoek beren eskumenen barruan hartutako neurriek eta plangintzek berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa progresiboa sustatuko dute merkataritzako, turismoko eta beste zerbitzu batzuetako jardueren arloan, eta hau izango dute helburutzat:
 - a) Energia-efizientzia sustatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea eta ezartzea.
 - b) Ingurumen-ziurtagiriak sustatzea.
 - c) Sektorea bultzatzea, jardueran emisioak murrizten laguntzen duten babes-programen bitartez.
 - d) Tokiko eta hurbileko merkataritza sustatzea.
2. Merkataritzako, turismoko eta beste zerbitzu batzuetako garapen berriak birgaitzean, berrantolatzean, sustatzean eta sortzean trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren ikuspuntua txertatu beharko da, zehazki, bizitza erabilgarrian sor ditzaketen berotegi-efektuko gasen emisioak eta horiek murrizteko edo konpentsatzeko neurriak.

energética y del cambio climático. En concreto, las emisiones de gases de efecto invernadero directas e indirectas que su ejecución pueda generar a lo largo de su vida útil, así como las medidas para reducirlas o compensarlas.

3. Las administraciones públicas vascas garantizarán el reforzamiento del conocimiento en los sectores industriales para avanzar en la descarbonización de la economía.
4. Las administraciones públicas vascas impulsarán la elaboración de planes sectoriales de actuación a largo plazo.
5. Las instalaciones industriales radicadas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi deberán calcular su huella de carbono y elaborar un plan dirigido a minimizarla para que esta sea cero o negativa, si fuera técnica y económicamente viable. Reglamentariamente se establecerán las instalaciones afectadas por dicha obligación, el alcance del cálculo de la huella de carbono, el contenido mínimo del plan, así como el plazo en el que deberá estar redactado y la frecuencia de su actualización.

Artículo 34. Actividades de comercio, turismo y resto de subsectores del sector servicios

1. La planificación y las medidas que se adopten por las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, en materia de actividades comerciales, turismo y otros servicios, impulsarán la reducción progresiva de las emisiones de gases de efecto invernadero y tendrán como finalidad:
 - a) El fomento de la eficiencia energética y el uso e implantación de energías renovables.
 - b) El fomento de certificaciones ambientales.
 - c) El impulso al sector a través de los programas de apoyo que favorezcan en su actividad la reducción de emisiones.
 - d) El fomento del comercio local y de proximidad.
2. La rehabilitación, reordenación, promoción y creación de nuevos desarrollos comerciales, turísticos y de otros servicios deberá incluir la perspectiva de la transición energética y del cambio climático, en concreto, las emisiones de gases de efecto invernadero que su ejecución pueda generar a lo largo de su vida útil, así como las medidas para reducirlas o compensarlas.

- | | |
|--|---|
| <p>3. EAEko administrazio publikoek bermatuko dute turismo jasangarriko ereduak sustatzeko neurriak txertatzen direla. Beste ekintza batzuen artean, turismo-jarduera eta -establezimenduetarako ingurumen-ziurtagiriak erabilera bultzatuko da.</p> | <p>3. Las administraciones públicas vascas garantizarán la incorporación de medidas encaminadas hacia la promoción de un modelo de turismo sostenible. Entre otras acciones, se impulsará el uso de certificaciones ambientales para las actividades y los establecimientos turísticos.</p> |
| <p>4. EAEko administrazio publikoek ekonomia-aren deskarbonizazioan aurrera egiteko ezagutza indartzea bermatuko dute merkataritza, turismo eta beste zerbitzu batzuen sektoreetan.</p> | <p>4. Las administraciones públicas vascas garantizarán el reforzamiento del conocimiento en los sectores de comercio y turismo y otros servicios para avanzar en la descarbonización de la economía.</p> |
| <p>5. Merkataritzako eta turismoko establezimenduek eta zerbitzuen sektorearen gainerako azpisektoreek beren karbono-aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute aztarna minimizatzeko, aztarna zero edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalazioak duten betebeharrak, zein den karbono-aztarnaren kalkularen irismena, planak gutxienez zer eduki jasoko duen, eta zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den.</p> | <p>5. Los establecimientos de comercio y turismo y el resto de subsectores del sector servicios deberán calcular su huella de carbono y elaborar un plan dirigido a minimizarla para que esta sea cero o negativa, si fuera técnica y económicamente viable. Reglamentariamente se establecerán las instalaciones afectadas por dicha obligación, el alcance del cálculo de la huella de carbono, el contenido mínimo del plan, así como el plazo en el que deberá estar redactado y la frecuencia de su actualización.</p> |

35. artikulua. Nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-jarduerak

Artículo 35. Actividades agrícolas, ganaderas, forestales y pesqueras

- | | |
|--|---|
| <p>1. EAEko administrazio publikoek beren eskumenen barruan hartutako neurriak eta plangintzek berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa progresiboa eta hustuleku-gaitasuna handitzea sustatuko dute nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-jardueretan eta hau izango dute helburutzat:</p> | <p>1. La planificación y las medidas que se adopten por las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, en materia de actividades agrícolas, ganaderas, forestales y pesqueras fomentarán tanto la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero como el incremento de su capacidad de sumidero y tendrán como finalidad:</p> |
| <p>a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren arloetan erabiltzen diren makinetan energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta ezarpena sustatzea.</p> | <p>a) El fomento de la eficiencia energética de la maquinaria utilizada en el ámbito agropecuario y pesquero, así como del uso e implantación de energías renovables.</p> |
| <p>b) Helburu hauek betetzen dituzten ekoizpen-sistemak sustatzea, zeinek baliabide naturalak eta ekosistemetak zerbitzuak babesteko baitituzte, bai eta karbonoa finkatzeko gaitasuna sustatu, emisioak eta ur-kontsumoa murriztu, ekonomia zirkularra bultzatu, lurzoruen emankortasunari eutsi eta ekoizpen osasuntsu eta jasangarriak bermatu ere.</p> | <p>b) El fomento de sistemas de producción que protejan los recursos naturales y los servicios de los ecosistemas, potencien la capacidad de fijación de carbono, reduzcan las emisiones y el consumo de agua, impulsen la economía circular, mantengan la fertilidad del suelo y aseguren unas producciones sanas y sostenibles.</p> |
| <p>c) Lurzoruen degradazioa, batez ere, higadura saihesten duten nekazaritza- eta basogintza-jardunbideak erabiltzea, aldi berean, lurzoruen materia organikoa kontserbatzen laguntzeko.</p> | <p>c) La utilización de prácticas agrícolas y forestales que eviten la degradación del suelo, en particular, la erosión, contribuyendo a la vez a la conservación de la materia orgánica del suelo.</p> |
| <p>d) Ongarri kimikoak zentzuz erabiltzea, eta, ahal den heinean, horien ordez,</p> | <p>d) La utilización racional de fertilizantes químicos, sustituyéndolos, en la medida</p> |



- ustiapenetik bertatik edo ingurutik edo hondakin organikoetatik datozen jatorri organikoko ongarriak erabiltzea.
- e) Karbono-bahiketa indartzea, materia organikoa, landare-estaldurak eta basoberritzeak hobeto kudeatuz, ekosistemak leheneratuz eta kontserbazio-laborantzaren bitartez.
- f) Lurzoruaren karbono organikoaren bilakaera kontrolatzea, hura handitzeko neurriak ezartzeko tresna gisa.
- g) Degradatutako lurzoruak berreskuratzea, lurzoru horiek basoberritzeko, berriz ere naturalizatzeko edo lurzoruko karbono-edukia handitzen laguntzen duten beste erabilera batzuetarako.
- h) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu ekologikoak eta hurbileko produktuen kontsumoa sustatzea eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpeneko sistema estentsiboak bultzatzea.
- i) Honako hauek ahalbidetuko dituen basogintza-kudeaketa sustatzea: basoetako sute-arriskua murriztea, baso-biomasa baliatzea eta nekazaritza- eta baso- eta larre-mosaikoak leheneratzea, fisiologikoki baldintza klimatikoetara hobeto egokitutako tokiko espezieetatik abiatuta eta baso-baliabideak sustatzea, hala zurgintzakoak nola zurgintzakoak ez direnak.
- j) Zura modu jasangarrian erabil dadila sustatzea, bereziki etxebizitzetan eta altzari publikoetan, eta baso-biomasa energia-iturritzat erabil dadila.
- k) Mindak, simaurrak eta nekazaritzako eta arrantzako hondakinak zuzen kudea daitezela sustatzea, teknika erabilgarri onenak baliatuta, energia eskuratzea barne hartuta eta ekonomia zirkularra sustatuta.
- l) Nekazaritzako elikagaien sektoreak sortutako soberakinak, materia organikoa, azpiproduktuak eta hondakinak zuzen kudea daitezela sustatzea.
- m) Sektorea bultzatzea, bere jardueran berotegi-efektuko emisioak murriztea errazten duten babes-programen bitartez.
- de lo posible, por fertilizantes de origen orgánico procedentes de la propia explotación o del entorno, o de residuos orgánicos.
- e) La potenciación del secuestro de carbono mediante una mejora de la gestión de la materia orgánica, las cubiertas vegetales y las repoblaciones forestales, la restauración de ecosistemas y el cultivo de conservación.
- f) El control de la evolución del carbono orgánico del suelo como herramienta para la adopción de medidas que contribuyan a su aumento.
- g) La recuperación de suelos degradados para su reforestación, renaturalización o para otros usos que favorezcan el incremento del contenido en carbono del suelo.
- h) La promoción de los productos agroganaderos ecológicos y el consumo de productos de proximidad y de sistemas extensivos de producción agrícola y ganadera.
- i) El fomento de una gestión forestal que permita reducir el riesgo de incendios forestales, aprovechar la biomasa forestal y recuperar los mosaicos agroforestales y de pastos a partir de especies locales más adaptadas fisiológicamente a las condiciones climáticas, y promover los recursos forestales, tanto los madereros como los no madereros.
- j) El fomento del uso sostenible de la madera, principalmente en viviendas y mobiliario público, así como el uso de biomasa forestal como fuente energética.
- k) El fomento de la correcta gestión de los purines, estiércoles, residuos agrarios y pesqueros, incorporando las mejores técnicas disponibles, incluyendo la obtención de energía y promoviendo la economía circular.
- l) La promoción de una correcta gestión de los excedentes, materia orgánica, subproductos y residuos generados en el sector agroalimentario.
- m) El impulso al sector a través de programas de apoyo que favorezcan la reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero en su actividad.

- | | |
|---|---|
| <p>n) Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea sektorea garatzeko arloetan, trantsizio energetikorako eta klimatikorako irtenbideak emateko.</p> | <p>n) El fomento de la investigación, el desarrollo tecnológico y la innovación en ámbitos de desarrollo sectorial que aporten soluciones para la transición energética y climática.</p> |
| <p>2. Abeltzaintza-ustiapenek eta nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-jarduerak beren karbono-aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute aztarna minimizatzeke, aztarna zero edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalaziok duten betebeharrak, zein den karbono-aztarnaren kalkularen irismena, planak gutxienez zer eduki jasoko duen, zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den.</p> | <p>2. Las explotaciones ganaderas, así como las actividades agrícolas, forestales y pesqueras, deberán calcular su huella de carbono y elaborar un plan dirigido a minimizarla para que esta sea cero o negativa, si fuera técnica y económicamente viable. Reglamentariamente se establecerán las instalaciones afectadas por dicha obligación, el alcance del cálculo de la huella de carbono, el contenido mínimo del plan, el plazo en el que deberá estar redactado y la frecuencia de su actualización.</p> |
| <p>3. Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, behar diren administrazio- eta sustapen-neurriak hartuko ditu 2030. urtean Europako Itun Berdean ezarritako helburua lortzeko "Baserritik Mahaira" estrategiaren esparruan, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurren % 25, gutxienez, nekazaritza ekologikoarekin maneiatzeko. Abeltzaintza ekologikoa eta hurbileko merkatuak ere sustatuko dira.</p> | <p>3. El Gobierno Vasco, en el marco de sus competencias, adoptará las medidas administrativas y de fomento precisas para coadyuvar para que en el año 2030 se alcance el objetivo fijado en el Pacto Verde Europeo, en el marco de la estrategia "De la Granja a la Mesa", de que, al menos, el 25 % de las tierras agrícolas de la Comunidad Autónoma del País Vasco se manejen con agricultura ecológica. También se fomentarán la ganadería ecológica y los mercados de proximidad.</p> |

36. artikulua. Natura-ondarea kudeatzea

EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, ingurune naturala eta biodibertsitatea babesteko eta kudeatzeko arloetan emisioak murrizte aldera eta berotegi-efektuko gasak ezabatze aldera garatzen dituzten jarduketak natura-ondarearen kudeaketaren bitartez gauzatuko dira, sektoreko eragileen eskutik, eta honako hauek lortzeko izango dira:

- a) Sistema naturalak kudeatzeko eta kontserbatzeko politikak har daitezela sustatzea, bat etorrita Europar Batasunak biodibertsitatea kontserbatzeko eta hobetzeko eta epe luzean CO₂-aren hustulekuak bultzatzeko ezarri dituen eskakizunekin.
- b) Politika efizienteak hartzea hainbat sektoretan, besteak beste, nekazaritzan, lurraldearen antolamendu eta plangintzan, eraikuntzan eta azpiegiturretan, arrantza-kudeaketan, baso-kudeaketan edo turismoan. Horien helburua izango da ekintzak eta jardunbide onak saritzea, elkarrekin sistema naturalak eta biodibertsitatea kontserbatzen eta emisioak murrizten laguntzen duten heinean.
- c) Biodibertsiterako onuragarriak diren arintze-jarduketak planifikatzea eta egitea.

Artículo 36. Gestión del patrimonio natural

Las actuaciones que desarrollen las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, en relación con la protección y la gestión del medio natural y la biodiversidad, para la reducción de emisiones y remociones de gases de efecto invernadero se realizarán mediante la gestión del patrimonio natural a través de los agentes sectoriales y estarán dirigidas a:

- a) Fomentar la adopción de políticas de gestión y conservación de los sistemas naturales en línea con los requerimientos de la Unión Europea para la conservación y mejora de la biodiversidad y fomento de los sumideros de CO₂ a largo plazo.
- b) Adoptar políticas eficientes en diferentes sectores, como la agricultura, la ordenación del territorio y la planificación territorial, la edificación e infraestructuras, la gestión pesquera, la gestión forestal o el turismo, dirigidas a premiar las acciones y buenas prácticas que conjuntamente contribuyan a la conservación de los sistemas naturales y su biodiversidad y a la reducción de emisiones.
- c) Planificar y realizar actuaciones de mitigación beneficiosas para la biodiversidad.



- d) Behar den ezagutza-oinarria sortzea, elkarrekin hobeto uztartzeko, alde batetik, biodibertsitateari eta klima-aldaketari aplikatutako ikerketa-proiektuak eta, bestetik, murrizketako, egokitzapeneko eta biodibertsitatearen kontserbazioko helburuak.
- e) Lurzoruak lehen mailako karbono-hustulekutat babesten direla bermatzea.
- f) Klima-aldaketako irizpideak txertatzea biodibertsitatea kontserbatzeko politika eta neurrietan, eta biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideak txertatzea klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politika eta neurrietan.

37. artikulua. Karbono-hustulekuak

EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, karbono-hustulekuen kudeaketari lotutako jarduketak garatu beharko dituzte, honako hauek lortzeko:

- a) Baso-habitata, larreak eta belardiak, hezeguneak, itsas belardiak eta beste habitat batzuk garatzen eta leheneratzen laguntzea, klima-aldaketarekiko erresilientzia hobetzeko karbono-hustuleku gisa duten gaitasuna handituta, eta hiriguneak ere baliatuta, bereziki ingurumen-sentikortasun handiko guneak, eta, horretarako, bertako espezieen tokiko barietateak lehenetsita.
- b) Lurzoruko karbonoaren bilakaera monitorizatzea, kopuru hori handitzeko askotariko neurriak ezarrita, hala nola, nekazaritza-praktika jasangarriak.
- c) Suteak prebenitzeko programak hobetzea.
- d) Plangintza-tresnetan klima-aldaketa kontuan hartzen duten ekosistema naturalak kontserbatzeko eta leheneratzeko jarraibideak sartzea, azpiegitura berde-urdinarekin eta antzeko tresnekin.
- e) Hirietan, hiriguneetan eta hirietako eraikuntzetan karbono-hustulekuak sustatzea, eta horietan espezie autoktonoak erabil daitezkeen eta lurzoru artifizializatu ez dadila bultzatzea, azpiegitura berde-urdina sustatuta. Hiriguneetan zona berdeen azalera handitzea, eta konektore ekologikoak ezartzea hiri-periferiako zonekin eta landa-eremuekin lotzeko.

38. artikulua. Lurralde-antolamendua, hirigintza-plangintza eta hiri-berroneratzea

EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, berotegi-efektuko gasen emisioak minimizatzen lurraldearen antolamenduaren eta hirigintza-plangintzaren arloetan burutuko dituzten

- d) Crear la base de conocimiento necesaria para reforzar la integración entre proyectos de investigación aplicada en biodiversidad y cambio climático y entre los objetivos de reducción y adaptación y conservación de la biodiversidad.
- e) Garantizar la preservación de los suelos como sumideros de carbono de primer nivel.
- f) Incorporar criterios de cambio climático en las políticas y medidas de conservación de la biodiversidad, así como criterios de conservación de la biodiversidad en las políticas y medidas de lucha contra el cambio climático.

Artículo 37. Sumideros de carbono

Las administraciones públicas vascas, en sus respectivos ámbitos de competencia, deberán desarrollar actuaciones en relación con la gestión de los sumideros de carbono dirigidas a:

- a) Favorecer el desarrollo y la restauración de hábitats forestales, prados y pastos, zonas húmedas, praderas marinas y otros hábitats para mejorar la resiliencia al cambio climático, incrementando su capacidad como sumideros de carbono, incluyendo también las áreas urbanas, con especial intensidad en las zonas ambientalmente sensibles y priorizando variedades locales de especies autóctonas.
- b) Monitorizar la evolución del carbono presente en el suelo, favoreciendo su incremento a través de medidas como la implementación de prácticas agrarias sostenibles.
- c) Mejorar los programas de prevención de incendios.
- d) Incorporar pautas de conservación y restauración de ecosistemas naturales que consideren el cambio climático en los instrumentos de planeamiento, con instrumentos como la infraestructura verde-azul.
- e) Fomentar los sumideros de carbono en las ciudades y áreas urbanas, así como en los edificios urbanos, promoviendo el uso de especies autóctonas y evitando la artificialización del suelo, con impulso de la infraestructura verde-azul, y aumentando la superficie de zonas verdes dentro de las áreas urbanas, y el establecimiento de conectores ecológicos con sus zonas periurbanas y rurales.

Artículo 38. Ordenación del territorio, planeamiento urbanístico y regeneración urbana

La planificación y las medidas que las administraciones públicas vascas lleven a cabo, en el ámbito de sus competencias, en materia de ordenación del territorio y planeamiento urbanístico



plangintzek eta neurriek honakoak bultzatuko dituzte:	con objeto de minimizar las emisiones de gases de efecto invernadero impulsarán:
a) Hiri-egitura konpaktuak eta erabilera mistokoak.	a) Las estructuras urbanas compactas y mixtas en usos.
b) Eskuragarri dauden azpiegiturak eta baliabideak aprobetxatzea, eta naturan eta material jasangarrien erabileran oinarritutako irtenbideak ematen dituen azpiegitura berdea sustatzea.	b) El aprovechamiento de las infraestructuras y recursos disponibles, así como la promoción de la infraestructura verde con soluciones basadas en la naturaleza y en el uso de materiales sostenibles.
c) Energia berriztagarrien garapena ahalbidetzea.	c) Facilitar el desarrollo de las energías renovables.
d) Lurzoruaren okupazioa arrazionalizatzea eta degradatutako espazioak berrerabiltzea, energiaren, uraren eta hondakinen zein lurzoruen kudeaketaren erabilera jasangarria indartuz.	d) La racionalización de la ocupación del suelo y la reutilización de espacios degradados potenciando un uso sostenible de la energía, el agua, la gestión de residuos y de los suelos.
e) Lurzoruak berroneratu daitezten eta eraikinak birgaitu daitezten exijitzea.	e) La exigencia de regeneración de suelos y rehabilitación de edificios.
f) Hirigintza-plangintzak diseinatzean irizpideak txertatzeko betebeharra honako hauei dagokienez: euri-urak berrerabiltzea eta iragaztea, energia-efizientzia, energia berriztagarriak erabiltzea eta energetikoki jasangarriak diren eraikinak sustatzea.	f) La obligación de diseñar planificaciones urbanísticas donde se incorporen criterios de reutilización y filtración de aguas de lluvia, eficiencia energética, utilización de energías renovables y promoción de edificaciones energéticamente sostenibles.
g) Lurraldearen antolamenduaren araberako mugikortasun jasangarriko ereduak ezartzea, zeinetan kontuan hartuko baitira energia-efizientzia, mugikortasun-moduetan sozialki efizienteak eta bidezkoak diren alternatibak eta salgaien garraioa.	g) Los modelos de movilidad sostenible en función de la ordenación del territorio que tenga en cuenta la eficiencia energética, las alternativas socialmente eficientes y justas en los modos de movilidad y el transporte de mercancías.
h) Hiri- eta landa-espazioak integratzea, garraio-sistema jasangarriagoen bidez; horretarako, ardatz izango dira garraio-zerbitzuen multimodalitatea, estaldura zabala eta eskuragarritasuna.	h) La integración de los espacios urbanos y rurales mediante sistemas de transporte más sostenibles, haciendo énfasis en la multimodalidad, una amplia cobertura y la asequibilidad de los servicios de transporte.
i) Hirigintza-araudia egokitzea eraikitako parkearen birgaitze energetikorako oztupoak ahalik eta gutxien izan daitezten.	i) La adaptación de la normativa urbanística para minimizar las barreras a la rehabilitación energética del parque edificado existente.

39. artikulua. Eraikinak eraikitzea eta birgaitzea

Artículo 39. Edificación y rehabilitación de edificios

- | | |
|---|--|
| 1. EAEko administrazio publikoek, indarrean dagoen araudian ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko, eta beren eskumenen barruan, honako hauek sustatuko dituzte eraikinak eraikitzeko eta birgaitzeko arloan: | 1. Las administraciones públicas vascas, a fin de garantizar el cumplimiento de los objetivos fijados por la normativa vigente y en el ámbito de sus competencias, en materia de edificación y rehabilitación de edificios, potenciarán: |
| a) Auditoretzak egitea, eraikinetan energia zentzu eta efizientzia gehiagorekin erabiltzeko jarduketa-aukera tekniko-ekonomiko alternatibo desberdinak identifikatu eta aztertu ahal izateko; energia berriztagarrien erabileraren bidez deskarbonizatu ahal duten instalazioak | a) La realización de auditorías que posibiliten la identificación y el análisis de las distintas alternativas técnico-económicas de actuaciones para un uso más racional y eficiente de la energía en sus edificios, la implantación de instalaciones que puedan descarbonizar |



- ezartzea, eta eraikuntza efizienteagoa eta jasangarriagoa errazteko inbertsioak egitea, kasu bakoitzean aztertuta onura ekonomiko, ingurumeneko eta sozial esanguratsuenak.
- b) Eraikita dauden eraikinak eta haien instalazioak, publikoak zein pribatuak, berritzea eta birgaitzea, horien energia-konsumoa eta karbono-aztarna murrizteko.
- c) Eraikuntza- eta birgaitze-materialak erabiltzeko orduan, horien bizi-zikloaren analisia eta karbono-aztarna kontuan hartzea, onartutako arauekin, estandarrekin edo ziurtagapen-sistemekin bat.
- d) Eraikuntzan zura erabil dadila sustatzea.
- e) Eraikin berriak sustatzeko orduan, berariaz zaintzea ahalik eta kalifikazio energetiko handiena izan dezatela eta estandar jasangarrienekin bat etor daitezela gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-irizpideak aintzat hartuta.
- f) Lege honen helburuak lortzeko behar diren finantzaketa-tresnak eta -mekanismoak bultzatzea.
2. EAEko administrazio publikoek etxebizitza-parkearen birgaitze energetikoa sustatzeko politika aktiboak bultzatuko dituzte, horretarako:
- a) Alokairu-araubideko etxebizitzetan duten parke publikoa energia-aurrezpena eta -efizientzia xede hartuta birgaituko dute, energia-efizientziako ahalik eta ziurtagiri altuena lortzeko.
- b) Etxebizitza publikoen jabeekin lankidetzan arituko dira eskuragarri dauden mekanismoen bitartez, lege hau betearazteko.
3. EAEko administrazio publikoek neurriak sustatuko dituzte inbertsio-beharren inpaktua eta energiaren kostuaren hazkunde handiaren inpaktua arintzeko, besteak beste, etxebizitzetako energia-efizientziarako laguntzak eta kolektibo zaurgarrientzako kalefakziorako.
- mediante el uso de energías renovables y las inversiones para favorecer una edificación más eficiente y sostenible, analizando, en cada caso, los beneficios económicos, medioambientales y sociales más significativos.
- b) La renovación y rehabilitación de los edificios existentes y de sus instalaciones, tanto públicos como privados, con el fin de reducir su consumo de energía y su huella de carbono.
- c) El uso de materiales de construcción y rehabilitación atendiendo al análisis de su ciclo de vida y su huella de carbono, de conformidad con normas, estándares o sistemas de certificación reconocidos.
- d) El fomento del uso de la madera en la edificación.
- e) El fomento de la construcción de nuevos edificios con la máxima calificación energética posible y de acuerdo a los estándares más sostenibles con criterios sociales, ambientales y económicos.
- f) El impulso de las herramientas y mecanismos de financiación necesarios para la consecución de los objetivos de esta ley.
2. Las administraciones públicas vascas impulsarán políticas activas que fomenten la rehabilitación energética del parque de viviendas. Con este fin:
- a) Rehabilitarán su parque público de viviendas en régimen de alquiler, buscando la mejora del ahorro y la eficiencia energéticos, de manera que se alcance la máxima certificación de eficiencia energética posible.
- b) Colaborarán con las personas propietarias de vivienda pública, a través de los mecanismos disponibles, para hacer efectivo el cumplimiento de esta ley.
3. Las administraciones públicas vascas promoverán medidas para mitigar el impacto de las necesidades de inversión y de los elevados incrementos en el coste de la energía, como ayudas para la eficiencia energética en las viviendas y calefacción a los colectivos vulnerables.

40. artikulua. Titulartasun publikoko azpiegiturak eta ekipamenduak

EAEko administrazio publikoen titulartasuneko azpiegitura eta ekipamendu handien proiektuetan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeko V. tituluaren aurrekutsia, planen eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren esparruan, balorazio bat egin beharko da zehazteko zer aukera dauden erregai fosilen eta uraren kontsumoa murrizteko eta, bereziki, balio-bizitza osoan berotegi-efektuko gasen emisio zuzenak eta zeharkakoak murrizteko eta balio-bizitza osoko kontsumo energetikoaren kostuak gutxitzeko.

V. KAPITULUA LURRALDEAREN ERRESILIENTZIA: KLIMA- ALDAKETARA EGOKITZEA

41. artikulua. Lurralde-eredu egokitua eta erresilientea

Lurralde-eredua eta gizarte klima-aldaketara egokituta egon daitezen eta erresilienteak izan daitezen, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek hurrengo artikuluetan ezarritako neurriak hartuko dituzte, kapitulu honetan jasotako sektore- eta lurralde-politika publikoen multzoan txertatuta.

42. artikulua. Azpiegitura kritiko eta sentikorrek

1. Horniduraren eta komunikazioen oinarriko zerbitzuak bermatzeko, eta, halaber, larrialdi-egoeretan azpiegitura kritikoak eta bestelako azpiegitura sentikorrek abian izateko eta azpiegiturak klima-aldaketaren efektuen aurrean duten erresilientzia handitzeko, EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen eta erantzukizunen barruan, zenbait ekintza gauzatu beharko dituzte xede hauek lortzeko:

- a) Azpiegitura kritikoak eta sentikorrek identifikatzea, existitzen diren diseinu- eta protokolo-parametroak eguneratzea azpiegituraren klima-arriskuari buruzko analisia eginda, eta arriskua murrizteko ezarri beharreko neurriak identifikatzea, dokumentu batean jasota gera daitezen, arriskuen ebaluazioa, alternatiben analisi edo egokitapen-planaren formarekin.
- b) Epe luzean jarduketa-esparru estrategikoak aurrez eta modu ordenatuan eduki ahal izateko plan sektorialak egitea, sareen eta azpiegitura-zibersegurtasunaren diseinua barne, elementu kritikoaren erredundantziaren bidez.

Artículo 40. Infraestructuras y equipamientos de titularidad pública

Los proyectos de las grandes infraestructuras y equipamientos cuya titularidad corresponda a las administraciones públicas vascas deberán incluir en el marco de la evaluación ambiental de planes y proyectos previstos en el título V de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, una valoración de las diferentes alternativas relativas a la reducción del consumo de combustibles fósiles, del agua y, especialmente, a las emisiones de gases de efecto invernadero directas e indirectas en toda su vida útil, así como el coste del consumo energético correspondiente a toda su vida útil.

CAPÍTULO V RESILIENCIA DEL TERRITORIO: ADAPTACIÓN AL CAMBIO CLIMÁTICO

Artículo 41. Modelo territorial adaptado y resiliente

Con el fin de disponer de un modelo territorial y una sociedad adaptada y resiliente al cambio climático, las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco adoptarán las medidas que se establecen en los artículos siguientes, integrándolas en el conjunto de políticas públicas sectoriales y territoriales recogidas en este capítulo.

Artículo 42. Infraestructuras críticas y sensibles

1. Con el objeto de garantizar los servicios básicos de suministro y comunicaciones, así como mantener operativas las infraestructuras críticas y otras infraestructuras sensibles en situaciones de emergencia e incrementar la resiliencia de las infraestructuras ante los efectos del cambio climático, las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias y responsabilidades, deberán llevar a cabo acciones dirigidas a:

- a) Identificar todas las infraestructuras críticas y sensibles, actualizar los parámetros de diseño y protocolos existentes, incorporando un análisis del riesgo climático de la infraestructura correspondiente, así como identificar las medidas necesarias a ejecutar para reducirlo, en forma de documento de evaluación de riesgos, análisis de alternativas y plan de adaptación.
- b) Elaborar planes sectoriales que permitan disponer de forma anticipada y ordenada de unos marcos estratégicos de actuación a largo plazo, incluyendo el diseño de redes y ciberseguridad de infraestructuras con redundancia de elementos críticos.



- c) Azpiegiturak indartzea, muturreko gertakari meteorologikoen aurrean azpiegiturek duten erantzun-gaitasuna hobetzeko, haien diseinua berrikuntza eginez eta gertakari kritikoen aurrean epe laburrean erantzuteko planak ezarri.
2. Azpiegitura kritiko eta sentikorrek klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak minimizatzen duten plan bat egin beharko dute, eta arrisku horiek murrizteko behar diren neurriak prestatu. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalaziok duten betebeharrak, planak gutxienez zer eduki jasoko duen, zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den.

43. artikulua. Lurraldea, hiri-egitura eta eraikuntza babestea

1. Lurralde- eta hirigintza-plangintza eta -kudeaketak eta hiri-inguruneetako esku-hartzeak, klima-aldaketaren ondorioetara egokitze aldera, helburu hauek izango dituzte:
- a) Lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresnetan txertatzea zaurgarritasunaren eta klima-arriskuaren analisia eta klima-aldaketara egokitzea.
- b) Klima-aldaketaren aurrean erresilientzia duen hiri-azpiegitura konpaktua eta erabilera mistokoa bultzatzea.
- c) Hirigintza eta eraikuntza arloetan klima-aldaketara egokitzeko tokian tokiko eredu berriak garatzea, lurzoruen iragazkortasuna eta hirietako gune berdeak sustatuz.
- d) Hirigintza-plangintzak diseinatzean honako hauek txertatzeko betebeharrak: bero-boladak saihesteko irizpideak, eururak erregulatzeko, berrerabiltzeko eta iragazteko sistemak, hiri-azpiegitura berdea, uholde-arriskuak minimizatzen duten neurriak eta egokitzapen-erakinen sustapena. Zehazki, hiriguneetan, hirigintza-plangintzarekin bateragarri egin beharko da uholdeak prebenitzeko arazo hidraulikoaren konponbidea.
- e) Hiria berronertzeko esku-hartzeak baliatzea egokitzapen-neurriak txertatzeko, printzipio bioklimatikoak ezarri hiri- eta arkitektura-diseinuan.

- c) Reforzar las infraestructuras para incrementar su capacidad de respuesta ante eventos meteorológicos extremos, innovando en su diseño y estableciendo planes de respuesta en el corto plazo ante eventos críticos.

2. Las infraestructuras críticas y sensibles deberán elaborar un plan dirigido a minimizar los riesgos derivados del cambio climático y articular las medidas necesarias para su reducción. Reglamentariamente se establecerán las instalaciones afectadas por dicha obligación, el contenido mínimo del plan, el plazo en el que deberá estar redactado y la frecuencia de su actualización.

Artículo 43. Protección del territorio, de la estructura urbana y de la edificación

1. La planificación y gestión territorial y urbanística y las intervenciones en el medio urbano, a efectos de su adaptación a las repercusiones del cambio climático, tendrá los siguientes objetivos:
- a) Integrar el análisis de vulnerabilidad y riesgo climático y la adaptación al cambio climático en los instrumentos de ordenación territorial y planeamiento urbanístico.
- b) Impulsar una estructura urbana resiliente al cambio climático, compacta y mixta en usos.
- c) Desarrollar nuevos modelos de adaptación al cambio climático en el ámbito local en las áreas de urbanismo y edificación, fomentando la permeabilización del suelo y los espacios verdes urbanos.
- d) La obligación de diseñar planificaciones urbanísticas donde se incorporen criterios para evitar olas de calor, sistemas de regulación, reutilización y filtración de aguas de lluvia, infraestructura verde urbana, minimización del riesgo de inundabilidad y promoción de edificaciones adaptativas. En particular, en las zonas urbanas se deberá compatibilizar la resolución de la problemática hidráulica de prevención de inundaciones con el planeamiento urbanístico.
- e) Aprovechar las intervenciones de regeneración urbana para incorporar medidas de adaptación, implantando principios bioclimáticos en el diseño urbano y arquitectónico.

- | | |
|---|--|
| <p>f) Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea, ekosistemak eta gizartearentzako zerbitzuak berroneratzeko mekanismo gisa, lurraldeen eta hiriguneen erresilientzia eta herritarren osasuna mantentzeko eta hobetzeko.</p> <p>g) Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea, okupazioa arrazionalizatuz, eta degradatutako gunak berrerabiltzea, energiaren eta uraren erabilera jasangarria bultzatuta eta hondakinen, lurzoruen eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria eginda.</p> | <p>f) Promocionar la infraestructura verde y las soluciones basadas en la naturaleza como mecanismos para regenerar los ecosistemas y los servicios que proporcionan a la sociedad, para mantener y mejorar la resiliencia territorial y de los núcleos urbanos, así como la salud de la población.</p> <p>g) Limitar la artifizialización del suelo, racionalizando su ocupación, y reutilizar espacios degradados, potenciando un uso sostenible de la energía y el agua, y la gestión de residuos, de suelos y de la biodiversidad.</p> |
|---|--|
2. Klima-aldaketara egokitzea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko plangintza- eta kudeaketa-tresnetan integratzea errazteko, erreferentzia gisa hartu beharko da Eusko Jaurlaritzaren atarian georreferentziatutako informazioa, klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak emandako datu klimatikoak eskualdeka eta eguneratuta jasotzen dituen.
2. Con el fin de facilitar la integración de la adaptación al cambio climático en los instrumentos de planificación y de gestión en materia de ordenación del territorio y urbanismo, se deberá tomar como referencia la información georreferenciada en el portal del Gobierno Vasco que incorpore los datos climáticos regionalizados actualizados y facilitados por el departamento competente en materia de cambio climático.

44. artikulua. Ingurune urtar kontinental, itsas ingurunea eta itsasbatterrekoa babestea

Itsas ingurunea eta itsasbatterrekoa planifikatzeko eta kudeatzeko orduan, klima-aldaketaren efektuekiko erresilientzia handitzea izango da helburua, honako hauek lortzeko:

- a) Klima-aldaketak itsasbatterraren eta jabari publiko hidraulikoko eremuaren erresilientzian sortzen dituen arrisku nagusiak identifikatzea, ebaluatzea eta horien jarraipena egitea.
- b) Klima-aldaketaren inpaktua minimizatzea kostaldeko eremuetan eta, bereziki, ingurune naturalean, urbanizatutako zonetan eta turismoaren sektorean.
- c) Itsas mailaren igoerak eta itsasoarekin lotutako bestelako gertaera meteorologikoek ondasunetan, herritarrengan eta tokiko jarduera ekonomikoan duten inpaktua kalkulatzeko.
- d) Uholde-eremuetako ebakuazio-protokoloak egokitzea eta modernizatzea ingurune guztietan, eta muturreko gertakari meteorologikoen aurreko alerta goiztiarreko sistemak garatzea eta indartzea.
- e) Urbanizatu gabeko eremuak uhaldien aurreko egokitzapen- eta erresilientzia-zona gisa kontserbatzea, bai itsas ingurunean bai ingurune kontinentalean.
- f) Presioa minimizatzea ingurune urtarrean, kontinentalean zein itsasokoa, eta haren

Artículo 44. Protección del medio acuático continental, marino y del litoral

La planificación y gestión del medio marino y del litoral se orientará al incremento de su resiliencia a los efectos del cambio climático, con el fin de alcanzar los siguientes objetivos:

- a) Identificar, evaluar y hacer seguimiento de los principales riesgos derivados del cambio climático para la resiliencia del litoral y del entorno del dominio público hidráulico.
- b) Minimizar el impacto del cambio climático en zonas costeras, en especial sobre el medio natural, las zonas urbanizadas y el sector turístico.
- c) Estimar el impacto de las crecidas por la subida del nivel del mar y otros eventos meteorológicos relacionados con el mar sobre los bienes, la ciudadanía y la actividad económica local.
- d) Adaptar y modernizar los protocolos de evacuación de zonas inundables en cualquiera de los medios y desarrollar y reforzar los sistemas de alerta temprana ante eventos meteorológicos extremos.
- e) Conservar entornos no urbanizados como zonas de adaptación y resiliencia ante crecidas, tanto en el medio marino como en el continental.
- f) Minimizar la presión sobre el medio acuático continental y marino y sobre su biodiversidad,



biodibertsitatean, ingurune horretako erresilientzia eta klima-aldaketara egokitzeko gaitasuna babestuz eta sustatuz.

protegiendo y favoreciendo su resiliencia y su capacidad de adaptación al cambio climático.

45. artikulua. Baliabide hidrikoak eta lehorteen eta uholdeen kudeaketa

Plangintza eta kudeaketa hidrologikoan klima-aldaketaren arriskuak jorratzeko, honakoak egin beharko dira:

- a) Beste politika sektorial batzuetan ere baliabide hidrikoen kudeaketa txertatzea, ura modu arduratsuago eta jasangarriagoan erabiltzeko eta lehorteen edo uholdeen aurrean erantzuteko gaitasuna handitzeko.
- b) Uraren plangintzan eta kudeaketan klima-aldaketak eragiten dituen arrisku nagusiak identifikatzea, ebaluatzea eta horien jarraipena egitea, honako hauek barnean hartuta: emarien eta eskuragarri dauden baliabideen gaineko inpaktuak, ur-premien gaineko inpaktuak eta ur-masen eta horiekin lotutako eremu babestuen egoeraren gaineko inpaktuak, bai eta ur-goraldiek herritarrengan, ondasunetan eta tokiko jardura ekonomikoan dituzten inpaktuak ere.
- c) Klima-aldaketaren aurrean egokitzeko eta erresilientzia handitzeko irizpideak txertatzea, horrela neurriak identifikatzeko, ebaluatzeko eta aukeratzeko, bereziki, uraren erabilera efikazari buruzko irizpideak txertatzea, kontrolatu gabeko kontsumoak murrizteko irizpideak barne, eta eskaria kudeatzeko planak garatzea.
- d) Ekosistemen eta gizarteari ematen dizkieten zerbitzuen leheneratze progresiboa eta integrala lortzeko neurriak aplikatzea, uraren zikloa kudeatzeko.
- e) Plan hidrologikoak eta Uholde eta Lehorte Arriskuen Kudeaketa Plana eguneratzea sektore-araudiaren arabera, zaugarritasunak eta arriskuak detektatuta eta klima-aldaketaren eta muturreko gertakarien inpaktuak murrizteko inbertituz.

46. artikulua. Natura-ondarea babestea

Klima-aldaketaren arriskuen aurrean ondare naturala babesteko, EAEko administrazio publikoek, beren eskumen-eremuen barruan, honako helburuak lortzeko jarduketak gauzatuko dituzte:

- a) Ekosistemen dibertsitatea, erresilientzia eta kontserbazio-egoera ona bermatzea, konektibitate ekologikoa handitzea, zerbitzu ekosistemikoak zaintzea eta sustatzea eta egungo presioak murriztea.

Artículo 45. Recursos hídricos y gestión de sequías e inundaciones

Con el fin de abordar los riesgos derivados del cambio climático, en la planificación y la gestión hidrológicas, se deberá:

- a) Integrar la gestión de los recursos hídricos en otras políticas sectoriales, para potenciar un uso más responsable y sostenible del agua e incrementar la capacidad de respuesta ante situaciones de sequía o inundaciones.
- b) Identificar, evaluar y hacer seguimiento de los principales riesgos derivados del cambio climático en la planificación y gestión del agua, incluyendo los impactos sobre los caudales y los recursos disponibles y sobre las necesidades de agua y el estado de las masas de agua y las zonas protegidas relacionadas, así como de los impactos de las crecidas sobre ciudadanía, bienes y actividad económica local.
- c) Incluir criterios de adaptación y aumento de la resiliencia ante el cambio climático para la identificación, evaluación y selección de medidas, en particular, criterios relativos al uso eficaz del agua, incluyendo la reducción de consumos incontrolados y el desarrollo de planes de gestión de la demanda.
- d) Aplicar medidas para la restauración progresiva e integral de los ecosistemas y de los servicios que proporcionan a la sociedad, para la gestión del ciclo del agua.
- e) Actualizar, según su normativa sectorial, los planes hidrológicos, el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación y de Sequías, detectando vulnerabilidades y riesgos e invirtiendo para reducir los impactos del cambio climático, así como los de los eventos extremos.

Artículo 46. Protección del patrimonio natural

Con el fin de proteger el patrimonio natural frente a los riesgos derivados del cambio climático, las administraciones públicas vascas llevarán a cabo, en sus respectivos ámbitos competenciales, actuaciones dirigidas a alcanzar los siguientes objetivos:

- a) Asegurar la diversidad y resiliencia de los ecosistemas y su buen estado de conservación, incrementar la conectividad ecológica, preservar y fomentar los servicios ecosistémicos y reducir las presiones existentes.



- | | |
|--|--|
| <p>b) Klima-aldaketak lurzoruan, landare-estalkian eta uretan sortzen dituen efektuak saihestea edo minimizatzea, eta, hala dagokionean, aurreko baldintzetara leheneratzea.</p> <p>c) Azpiegitura berdea sustatzea, klima-aldaketaren inpaktua murrizteko naturagune babestuen ondoko eremuetan.</p> <p>d) Itsas eremuaren eta eremu kontinentalaren arteko trantsizio-eremuetan eta ibai-inguruneetan dauden ekosistemen azalera babestea, leheneratzea eta handitzea, eta beste irtenbide natural batzuk klima-aldaketaren inpaktuaren aurrean.</p> <p>e) Naturaguneek klima-aldaketekiko duten erresilientzia handitzea eta espazio horiek baliatzea landa eta hiri-periferiako zonen erresilientzia hobetzeko.</p> <p>f) Klima-aldaketa natura-ondarea kudeatzeko tresnetan txertatzea.</p> | <p>b) Evitar o minimizar los efectos derivados del cambio climático en el suelo, la cubierta vegetal y el agua, restaurando, en su caso, sus condiciones anteriores.</p> <p>c) Fomentar la infraestructura verde para reducir los impactos del cambio climático en las áreas adyacentes a los espacios protegidos.</p> <p>d) Proteger, restaurar y ampliar la superficie de los ecosistemas situados en las zonas de transición entre el ámbito marino y el continental y en los entornos fluviales, y otras soluciones naturales ante el impacto del cambio climático.</p> <p>e) Aumentar la resiliencia de los espacios naturales ante los cambios en el clima, aprovechando estos espacios para mejorar la resiliencia de zonas rurales y periurbanas.</p> <p>f) Incorporar el cambio climático en los instrumentos de gestión de patrimonio natural.</p> |
|--|--|

47. artikulua. Nekazaritza-basogintza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorea

EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, honako helburuak lortzeko jarduketak egingo dituzte lehenengo sektorearen zaurgarritasunari eta arriskuari lotuta:

- a) Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, akuikultura eta basogintzaren arloan eremu zaurgarrienak identifikatzea, eta eremu horiek egokitzeko ikerketa sustatzea, eta egokiro baliatzea sektorerako aukerak, bai eta espazio degradatuak edo aldez aurretik beste erabilera batzuetan erabilitakoak berroneratzeko eta berrerabiltzeko alternatibak ere.
- b) Higadura minimizatzen, lurzorua materia organikoa gordetzen eta tokiko ekoizpena areagotzen duten laborantza-jardunbide onenak erabil daitezten sustatzea.
- c) Sektorearen ezagutza handitzea, klima-aldaketara egokitzean eta natura-ondarea kontserbatzean aurrera egiteko.
- d) Sistema naturalak kudeatzea eta kontserbatzea, horien kontserbazio-egoera hobetzeko eta erresilientzia sustatzeko.
- e) Landa-ingurunearen erresilientzia areagotzea, eta ekosistemen zerbitzuak hornitzeko laguntza.

48. artikulua. Industriako, merkataritzako, turismoko jarduerak eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak

Larrialdiko egoeretan industria, merkataritza eta turismoko jarduerak eta zerbitzuen sektoreko

Artículo 47. Sector agroforestal, ganadero y pesquero

Las administraciones públicas vascas llevarán a cabo, en sus respectivos ámbitos competenciales, actuaciones dirigidas a alcanzar los siguientes objetivos en relación con la vulnerabilidad y riesgo del sector primario:

- a) Identificar las áreas más vulnerables en materia de agricultura, ganadería, pesca, acuicultura y bosques y fomentar la investigación para su adaptación, así como aprovechar las oportunidades que pueden aparecer para el sector y las alternativas de regeneración y reutilización de espacios degradados o previamente utilizados en otros usos.
- b) Fomentar el uso de las mejores prácticas agrarias que minimicen la erosión, preserven la materia orgánica del suelo y aumenten la producción local.
- c) Aumentar el conocimiento del sector para avanzar en la adaptación al cambio climático y la conservación del patrimonio natural.
- d) Gestionar y conservar los sistemas naturales para mejorar su estado de conservación y fomentar su resiliencia.
- e) Incrementar la resiliencia del medio rural y la contribución a la provisión de los servicios de los ecosistemas.

Artículo 48. Actividades industriales, de comercio, turismo y resto de las actividades del sector servicios

Con el objeto de garantizar el desarrollo de las actividades industriales, de comercio, turismo y el resto



gainerako jarduerak garatzen direla bermatzeko eta klima-aldaketaren efektuen aurrean duten erresilientzia areagotzeko, aldi berean aldaketa horren ondoriozko aukerak detektatuta, EAEko administrazio publikoek honako hauek lortzeko ekintzak gauzatu beharko dituzte:

- a) Sektore zaurgarrienak identifikatzea, horiek egokitzeko ikerketa sustatzea eta sortzen diren aukerak baliatzea.
- b) Sektoreen ezagutza handitzea, klima-aldaketara egokitzean aurrera egiteko.
- c) Plan sektorialak egin daitezela bultzatzea, haien bidez aurrez eta modu ordenatuan eskura izan daitezkeen epe luzeko jarduketan esparru estrategikoak.

49. artikulua. Osasun-sistema

Klima-aldaketak osasun publikoan sortzen dituen efektuei buruzko ezagutza hobetzea sustatuko dute EAEko administrazio publikoek, eta mekanismoak garatuko dituzte klima-aldaketaren efektuek biztanleen osasunean sor ditzaketen arriskuak prebenitzeko eta horien aurrean babesteko, arrisku emergenteak barne.

50. artikulua. Larrialdietako arreta, babes zibila eta segurtasuna

EAEko administrazio publikoek egokitu eta eguneratu egingo dituzte larrialdi, babes zibil eta segurtasunaren arloetako prebentzio eta analisi, arreta, erantzun eta jarraipenerako sistemak, baita kontingentzia-planak ere, horietan klimaren aldagaia txertatzeko eta, horrela, klima-aldaketaren inpaktuei aurre egin ahal izateko, muturreko gertakariak ere barnean hartuta.

VI. KAPITULUA TRANSIZIO ENERGETIKOAREKIN ETA KLIMA- ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ZEHARKAKO TRESNAK

1. atala

Ikerketa, hezkuntza, lehiakortasuna eta zeharkako beste tresna batzuk sustatzea

51. artikulua. Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa

1. Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren plan, programa eta proiektuak ingurumen-ebaluazioko prozeduretan klima-aldaketaren gaineko efektuak identifikatzeko, azaltzeko eta ebaluatzeko orduan, arlo horretan aplikatu beharreko araudian ezarritakoa beteko da, eta klima-aldaketaren arloan unean-unean eskuragarri dauden informazio eta teknika eguneratuenak erabiliko dira.

de las actividades del sector servicios en situaciones de emergencia e incrementar su resiliencia ante los efectos del cambio climático, detectando, asimismo, las oportunidades derivadas de dicho cambio, las administraciones públicas vascas deberán llevar a cabo acciones dirigidas a:

- a) Identificar los sectores más vulnerables y fomentar la investigación para su adaptación, así como aprovechar las oportunidades que puedan aparecer.
- b) Aumentar el conocimiento de los sectores para avanzar en la adaptación al cambio climático.
- c) Impulsar la elaboración de planes sectoriales que permitan disponer de forma anticipada y ordenada de unos marcos estratégicos de actuación a largo plazo.

Artículo 49. Sistema de salud

Las administraciones públicas vascas fomentarán la mejora del conocimiento sobre los efectos del cambio climático en la salud pública y desarrollarán mecanismos de prevención y protección de los riesgos de la salud de la población a los efectos del cambio climático, incluidos los riesgos emergentes.

Artículo 50. Atención de emergencias, protección civil y seguridad

Las administraciones públicas vascas adaptarán y actualizarán los sistemas de prevención y análisis, atención, respuesta y seguimiento de emergencias, protección civil y seguridad y los planes de contingencia, para integrar en ellos la variable climática y poder así hacer frente a los impactos del cambio climático, incluidos los eventos extremos.

CAPÍTULO VI INSTRUMENTOS TRANSVERSALES EN RELACIÓN CON LA TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y EL CAMBIO CLIMÁTICO

Sección 1.ª

Fomento de la investigación, educación, competitividad y otros instrumentos transversales

Artículo 51. Evaluación ambiental de planes, programas y proyectos

1. La identificación, descripción y evaluación de los efectos en relación con el cambio climático en los procedimientos de evaluación ambiental de planes, programas y proyectos que se desarrollen en la Comunidad Autónoma del País Vasco se realizará de acuerdo con lo dispuesto en la normativa aplicable al efecto, debiéndose utilizar las informaciones y las técnicas más actualizadas en materia de cambio climático que estén disponibles en cada momento.



2. Bereziki kontuan hartuko dira plan, programa eta proiektuok gauzatzean sor ditzaketen edota haien balio-bizitzan sortzen diren berotegi-efektuko gasen emisioak, emisio horiek murriztu edo konpentsatzeko neurriak eta ingurune horretako klima-arriskuaren areagotzea minimizatzeko behar diren egokitze-neurriak.

52. artikulua. Ezagutza eta hezkuntza sustatzea

1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko ezagutza, gaitasunak eta hezkuntza sustatzeko ekintzak bultzatuko dituzte, aurrerapausoak egiteko karbono-neutraltasuna lortze aldera eta klima-aldaketara egokitze aldera, baita gizarte erresiliente bat garatzeko ere.
2. Helburu horiek lortzeko, hezkuntzaren arloan eta ingurumen, energia eta klima-aldaketaren arloan, bai eta lege honen aplikazio esparruan eragina duten sektoreko beste arlo batzuetan ere, eskudunak diren EAEko administrazio publikoek beren jarduketak koordinatuko dituzte helburu horiek plangintza-tresnetan txertatzeko, eta kontuan izango dute gizarte-eragileen, enpresen, elkarteen eta hezkuntza arautuko eta ez-arautuko zentroen ikuspegia.
3. Eusko Jaurlaritzan hezkuntza-arloan eta ingurumen, energia eta klima-aldaketaren arloan eskudunak diren sailek hezkuntza formaleko eta informaleko prestakuntza-ibilbideetan klima-aldaketa nola jorratzen den berrikusiko dute energiaren eta klima-aldaketaren arloan aurrera egiteko gaikuntza sustatu dadin, eta irakasleen prestakuntza bultzatuko dute.
4. EAEko administrazio publikoek beren zerbitzura dauden langile guztiei zuzendutako prestakuntza jarraitua sustatuko dute lege honen xede diren arloetan eragiten duten heinean.
5. Biztanleria-segmentu jakinei dagokienez, bidezko trantsizio bermatzeko, pertsonen gaitasunak eguneratzea eta garatzea sustatuko duten ekintzak jarriko dira abian.

53. artikulua. Ikerketa, garapena eta berrikuntza

1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, ikerketaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren arloko ekintzak sustatuko dituzte, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren prozesua, karbono-neutraltasunerantz aurrera egitea,

2. Se tendrán en cuenta especialmente las emisiones de gases de efecto invernadero que su ejecución pueda generar, así como las emisiones generadas a lo largo de su vida útil, las medidas incluidas para reducirlas o compensarlas, así como las medidas de adaptación necesarias para minimizar el incremento del riesgo climático sobre el medio.

Artículo 52. Fomento del conocimiento y la educación

1. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, impulsarán acciones destinadas a fomentar el conocimiento, las capacidades y la educación en materia de transición energética y cambio climático que permitan el avance hacia la neutralidad en carbono y la adaptación al cambio climático, así como una sociedad resiliente.
2. Con el fin de lograr estos objetivos, las administraciones públicas vascas competentes en materia de educación y en materia de medio ambiente, energía y cambio climático, así como en otras materias sectoriales con afección al ámbito de aplicación de esta ley, coordinarán sus actuaciones para integrar tales objetivos en sus instrumentos de planificación, y tendrán en cuenta la visión de los agentes sociales, empresas, asociaciones y centros de educación reglada y no reglada.
3. Los departamentos competentes en materia de educación y en materia de medio ambiente, energía y cambio climático del Gobierno Vasco revisarán el tratamiento del cambio climático en los diversos itinerarios formativos de la educación formal e informal, para que fomente la capacitación para avanzar en materia de energía y cambio climático, impulsando la formación del profesorado.
4. Las administraciones públicas vascas promoverán la formación continuada dirigida a todo el personal a su servicio con incidencia en los ámbitos objeto de la presente ley.
5. En el caso de segmentos de población concretos, para garantizar una transición justa, se pondrán en marcha acciones para fomentar la actualización y desarrollo de las capacidades de las personas.

Artículo 53. Investigación, desarrollo e innovación

1. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, promoverán acciones de investigación, desarrollo tecnológico e innovación que impulsen el proceso de transición energética y cambio climático y el avance hacia la



- klima-aldaketara egokitzea eta lurraldearen erresilientzia bultzatzeko.
2. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, lehenatasunez babestuko dituzte teknologia eta proiektu berritzaileak, honako hauek ahalbidetzeko: lege honen helburuak betetzea, egungo indarguneak eta gaitasunak garatzea, negozio-aukera berriak baliatzea eta, laburbilduz, enpresa, industria eta lurraldearen lehiakortasuna hobetzeko.
3. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, energia-efizientzia, energia berriztagarriak, karbonoa atzitzeko, biltegitratzeko eta erabiltzeko sistemak eta ekonomia zirkularra babestuko dituzte Euskadin, bai eta EAEko industria punta-puntakoa izaten laguntzen duten teknologiak ere.
4. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arleko ikerketa, garapen teknologikoa eta ezagutzaren transferentzia lehenatasunezkatzat jotzen dira zientzia, teknologia eta berrikuntzaren estrategietan; hala, neurriak sustatuko dira eragile zientifiko eta teknologikoen eta ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari indartzeko.
5. Ikerketa, garapen eta berrikuntza programa sektorialetan txertatu behar dira, misioen bidezko ikuspegiarekin, erronkei erantzuteko norabide argi, neurgarri eta tenporalarekin, sektore arteko gorako orientazioarekin eta oinarritzat hartuta teknologia berriak, irtenbide jasangarriak eta berrikuntza disruptiboak.
6. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko ikerketaren eta ezagutzaren transferentziaren garrantzia Euskal Autonomia Erkidegoko I+G+B estrategiara eramango da.
7. Kontuan hartuko da emakumeek eta gizonek eremu horretan duten egoera eta posizio desberdina, eta emakume ikertzaileen lana indartuko da, bai eta ikerketa-taldeetan parte hartzea eta ikertzaile nagusi gisa duten rola ere, ekintza positiboak hartuz.
- neutralidad en carbono, la adaptación al cambio climático y la resiliencia del territorio.
2. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, apoyarán de forma prioritaria aquellas tecnologías y proyectos innovadores que permitan cumplir los objetivos de esta ley y desarrollar las fortalezas y las capacidades existentes, aprovechar nuevas oportunidades de negocio y, en suma, mejorar la competitividad empresarial, industrial y territorial.
3. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, apoyarán la eficiencia energética, las energías renovables, los sistemas de captura, almacenamiento y uso de carbono y la economía circular en Euskadi y las tecnologías que propicien una industria vasca de vanguardia.
4. La investigación, el desarrollo tecnológico y la transferencia de conocimiento en materia de transición energética y cambio climático se considera una prioridad dentro de las estrategias de ciencia, tecnología e innovación y se promoverán medidas que refuercen la colaboración entre los agentes científicos y tecnológicos y la iniciativa pública y privada.
5. La investigación, el desarrollo y la innovación deben integrarse en los programas sectoriales, mediante una orientación con enfoque de misiones respondiendo a retos, con dirección clara, medible y temporal, con orientación intersectorial y ascendente, basado en las nuevas tecnologías, las soluciones sostenibles y la innovación disruptiva.
6. La importancia de la investigación y la transferencia de conocimiento en materia de transición energética y cambio climático se trasladará a la estrategia de I+D+I de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
7. Se tendrá en cuenta la distinta situación y posición de mujeres y hombres en este ámbito, potenciando el trabajo de las mujeres investigadoras y su participación en los grupos de investigación y su rol como investigadoras principales mediante la adopción de acciones positivas.

54. artikulua. Sentsibilizazioa eta informazio publikoa

1. EAEko Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, inplikaturako eragile ekonomiko eta sozialen, herritarren eta administrazio publikoen esku jarriko dute trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko plangintzaren jarraipenari eta garapenari buruzko informazioa, eta haien parte-hartzea

Artículo 54. Sensibilización e información pública

1. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, pondrán a disposición de los agentes económicos y sociales implicados, de la ciudadanía y de las propias administraciones públicas la información del seguimiento y desarrollo de la planificación en materia de transición



eta erantzunkidetasuna sustatuko dituzte.

2. Energiari eta klima-aldaketari buruzko informazioa publikoki eskuratzeko eskubidea gauzatzean, komunikazio inklusiboa eta ez-sexista dela ziurtatu beharko da. Horrez gain, arrakala digitala ere kontuan hartu beharko da, informazioa herritar guztiengana ere iristen dela ziurtatzeko, hainbat komunikazio-kanal erabilita, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazioaren irisgarritasuna bermatzeko.
3. EAEko administrazio publikoek trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak gauzatu dituzte. Ildo horretan, herritarrak informatu eta sentsibilizatu dituzte klima-aldaketaren ondorioez eta trantsizio energetikoari heltzeko beharraz, horretarako komunikazio-kanpainak eginez.

55. artikulua. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroa

1. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroa sortzen da, Eusko Jaurlaritzako energiaren eta klima-aldaketaren arloko sail eskudunari atxikita. Jarduera publiko eta pribatuen titularrak erregistroan doan inskribatuko dira, publikoki jasota gera dadin klima-ekintzari lotuta zer konpromiso hartzen dituzten beren jardueretan, lehenengo sektoreko jarduerak ere barnean direla.
2. Erregistro horretako atal batean nahitaez inskribatu beharko dira erregelamenduz ezarritako jarduerak, eta beste atal batzuk egongo dira, klima-ekintzaren arloan konpromisoak borondatez hartzen dituzten erakundeek horien berri eman dezaten.
3. Erregistroak atal hauek izango ditu gutxienez:
 - a) Karbono-aztarnaren kalkulua eta murrizketa, erakundeen karbono-aztarna nahitaez inskribatzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari buruzko informazioa emateko.
 - b) Karbono-aztarnaren kalkulua eta murrizketa, digitala barne, erakundeen karbono-aztarna modu boluntarioan inskribatzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari buruzko informazioa emateko. Atal honetan,

energética y cambio climático, promoviendo su participación y corresponsabilización.

2. Se deberá asegurar que la comunicación sea inclusiva y no sexista en el derecho de acceso público a la información en materia de energía y cambio climático. Además de ello, se deberá tener en cuenta la brecha digital para asegurar que la información también llegue a toda la población utilizando diversos canales de comunicación, y garantizar, asimismo, la accesibilidad de la información para las personas con discapacidad.
3. Las administraciones públicas vascas llevarán a cabo acciones que tendrán por finalidad sensibilizar a la ciudadanía en materia de transición energética y cambio climático. En este sentido, informarán y sensibilizarán a la ciudadanía sobre los efectos del cambio climático y la necesidad de abordar la transición energética, realizando campañas de comunicación a tal fin.

Artículo 55. Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático

1. Se crea el Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático, adscrito al departamento competente en materia de energía y cambio climático del Gobierno Vasco, en el que las personas titulares de actividades públicas o privadas se inscribirán de forma gratuita, a fin de que consten públicamente los compromisos asumidos en relación con la adopción de actuaciones en acción climática ligadas a su actividad, incluyendo las del primer sector.
2. El registro constará de una sección donde se inscriban obligatoriamente las actividades que se establezcan reglamentariamente y otras secciones para aquellas organizaciones que quieran dar a conocer sus compromisos en materia de acción climática de forma voluntaria.
3. El registro tendrá al menos las siguientes secciones:
 - a) Cálculo y reducción de huella de carbono para la inscripción obligatoria de la huella de carbono de las organizaciones e informar sobre la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero.
 - b) Cálculo y reducción de huella de carbono, incluida la digital, para la inscripción voluntaria de la huella de carbono de las organizaciones e informar sobre la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero. En esta



- osagarri modura, erakundearen ingurumen-aztarna ere erregistratu ahal izango da.
- c) Erregistroan modu boluntarioan inskribatu daitezkeen proiektu energetikoak, berotegi-efektuko gasen emisioak arintzeari buruzkoak. Aurrezpen energetikoari, energia berriztagarriak txertatzeari edo erregai fosilak ordeztzeari buruzko informazioa ere jasoko dute.
- d) Modu boluntarioan inskribatzekoak diren industria-proiektuak, eraldaketa energetikora edo ekoizpen-prozesuak birmoldatzekoak, deskarbonizaziora bideratuta.
- e) Trantsizio energetikoko prozesua bultzatzea ahalbidetzen duten azpiegitura energetikoen proiektuak.
- f) Karbono dioxidoa xurgatzeari buruzko proiektuak, lurzoruen erabilera edo haren kudeaketa aldatuz karbono dioxidoa xurgatzen dela egiaztatzen duten proiektuak inskribatzeko; bateragarriak izan behar dute biodibertsitatearen kontserbazioarekin eta erregelamendu bidez ezarritako beste alderdi batzuekin.
- g) Karbono-aztarnaren konpentsazioa, karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen edo araubidez ezartzen diren beste proiektu batzuen atalean inskribatutako erakundeek xurgatze bidez karbono-aztarna konpentsatzeko egiten dituzten ekintzak inskribatzeko.
- h) Klima-aldaketara egokitzeko ekintzak, zaurgarritasunari eta klima-arriskuari buruzko analisia inskribatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko garatutako ekintzei buruz informatzeko.
- sección se podrá, de forma adicional, registrar la huella ambiental de la organización.
- c) Proyectos energéticos de inscripción voluntaria en el registro relativos a la mitigación de emisiones de gases de efecto invernadero, de forma que incluyan, además, información sobre ahorro energético, incorporación de energías renovables o sustitución de combustibles fósiles.
- d) Proyectos industriales de inscripción voluntaria de transformación energética o de reconversión de procesos productivos orientados a la descarbonización.
- e) Proyectos de infraestructuras energéticas que permitan impulsar el proceso de transición energética.
- f) Proyectos de absorción de dióxido de carbono, para inscribir proyectos que acrediten la absorción de dióxido de carbono a través de un cambio de uso del suelo o un cambio en su gestión compatible con la conservación de la biodiversidad, y otros que se establezcan reglamentariamente.
- g) Compensación de huella de carbono, para inscribir acciones de compensación de huella de carbono mediante absorciones realizadas por las organizaciones inscritas en la sección de proyectos de absorción de dióxido de carbono u otros que se establezcan reglamentariamente.
- h) Acciones de adaptación al cambio climático, para inscribir el análisis de vulnerabilidad y riesgo climático e informar sobre las acciones desarrolladas en materia de adaptación al cambio climático.
4. Erregelamenduz ezarriko dira erregistro horren funtzionamendua eta edukia eta bertan inskribatzeko baldintzak. Bestalde, erregistro hori publikoa izango da, bat etorrita ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justiziarako sarbiderako eskubideak zehazten dituen araudiarekin eta albo batera utzi gabe legeak datu pertsonalak babesteari buruz xedatzen duena.
4. Se establecerá reglamentariamente el funcionamiento, contenido y condiciones para la inscripción en dicho registro, que será público en los términos que establece la normativa que regula los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente, sin perjuicio de lo que establece la legislación sobre protección de datos de carácter personal.
5. Kontratazio-organismoek aukera izango dute kontratazio-prozeduraren barruan ezarritako ingurumen-arloko kontsiderazioen artean jasotzeko artikulua honetan arautzen den
5. Los órganos de contratación podrán incluir, entre las consideraciones de tipo medioambiental que se establezcan en el procedimiento de contratación, las relativas a la

erregistroan inskribatzeari buruzko kontsiderazioak, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean edo haren ordezkio arauan ezarritakoarekin.

inscripción en el registro que se regula en este artículo, de conformidad con lo que establece la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, o norma que la sustituya.

56. artikulua. Ekonomia deskarbonizatzeko digitalizazioa

1. EAEko administrazio publikoek ekonomiaren digitalizazioa bultzatzeko ekintzak hartuko dituzte lege honetan aurreikusitako klima-neutraltasuneko xedekak lortzeko.
2. Ekintza horien artean honako hauek egongo dira, besteak beste:
 - a) Muturreko meteorologia-gertakariak aurreikusteko gaitasuna hobetzea, klima-aldaketa ebaluatzea eta hondamendi naturalak eta ingurumenekoak kudeatzea.
 - b) Energia-efizientzia eta errendimendua sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorean ekonomia zirkularra ardatz hartuta, gailu digitalak berrerabiliz eta haren osagaiak berreskuratuz.
 - c) Digitalizazioaren eta teknologia berritzaileen erabilera sustatzea emisioak neurtzeko, efizientzia energetikoa bultzatzeko, airearen kalitatea hobetzeko, ekosistemak babesteko eta gizarteko eta ekonomiako sektore guztietan emisioak murriztea lortzeko.
 - d) Kontsumitzaileei eta industriari informazioa ematea produktuen jatorriari, konposizioari, bizi-zikloaren azken kudeaketari eta birziklapenari buruz.
 - e) Datu-zentroetan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako azpiegituretan energia-efizientzia handiagoa sustatzea, eta hondar-energia berrerabiltzea eta energia berriztagarrien iturriak baliatzea.
 - f) Garraio automatizatua eta konektatua babestea, mugikortasuna hobetzeko.
 - g) Digitalizazioa bultzatzea, eragile eta sektoreen karbono-aztarna kalkulatzeko beharrezko tresna gisa.

Artículo 56. Digitalización para la descarbonización de la economía

1. Las administraciones públicas vascas adoptarán acciones para impulsar la digitalización de la economía con el fin de alcanzar los objetivos en relación con la neutralidad climática previstos en esta ley.
2. Las acciones que se adopten incluirán, entre otras:
 - a) La mejora de la capacidad para predecir eventos meteorológicos extremos, la evaluación del cambio climático y la gestión de las catástrofes naturales y ambientales.
 - b) El impulso de la eficiencia energética y el rendimiento en términos de economía circular del sector de las tecnologías de la información y la comunicación, reutilizando dispositivos digitales y recuperando sus componentes.
 - c) El fomento del uso de la digitalización y de tecnologías innovadoras para la medición de las emisiones, con el objetivo de impulsar la eficiencia energética, mejorar la calidad del aire, proteger los ecosistemas y conseguir la reducción de las emisiones en todos los sectores sociales y de la economía.
 - d) La facilitación a las personas consumidoras y a la industria de información sobre el origen, composición, gestión final del ciclo de vida y reciclado de productos.
 - e) La promoción de una mayor eficiencia energética, de la reutilización de la energía residual y de la utilización de fuentes de energía renovables en los centros de datos y en las infraestructuras de las tecnologías de la información y la comunicación.
 - f) El apoyo del transporte automatizado y conectado con el fin de mejorar la movilidad.
 - g) La promoción de la digitalización como instrumento necesario para estimar la huella de carbono de los agentes y de los distintos sectores.



- h) Teknologia digitalak eta datuen partekatzea bultzatzea, energia-azpiegituren eta -aktiboen diseinua, monitorizazioa eta operazio optimizatuak errazteko energia-efizientzia, kontsumoen elektrifikazioan, energia berriztagarrietan eta hidrogeno berriztagarria eta karbono gutxikoa biltegitratzeko eta ekoizteko sistemetan.

- h) El impulso de las tecnologías digitales y la compartición de datos para facilitar el diseño, la monitorización y la operación optimizada de las diversas infraestructuras y activos energéticos en los ámbitos de eficiencia energética, electrificación de consumos, energías renovables, sistemas de almacenamiento y producción de hidrógeno renovable y bajo en carbono.

57. artikulua. Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna

1. EAEko administrazio publikoen eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio-organoek lizitazioen xede diren produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna jasotzeko betebeharrak ezarriko dituzte kontratuen administrazio-klausulen eta preskripzio tekniko partikularren agiritan.

Ondorio horietarako, erakunde lizitatuak, karbono-aztarnaren datua dutela justifikatzeko, lege honetan aurreikusitako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroko inskripzioaren indarraldia baliatu ahal izango dute egiaztagarritzat, edo, bestela, ingurumen-kudeaketako neurri baliokideen beste frogabide batzuk erabili ahal izango dituzte.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa nahitaezkoa izango da Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren gaineko Ekimenen Euskadiko Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua onesten dituen erregelamendu-arauak finkatzen diren epean.

58. artikulua. Energia kontrolatzeko, emisioak murrizteko eta egokitzeko teknikak eta teknologiak bultzatzea

1. EAEko administrazio publiko eskudunek teknika eta teknologia egokiak sustatu eta bultzatuko dituzte, jardura ekonomikoaren ekoizpen-prozesuetan txertatuta lagungarri gerta daitezkeen dena delako produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan energia-kontsumoa kontrolatu ahal izateko eta berotegi-efektuko gasen emisioak kuantifikatzeko moduan murriztu ahal izateko.

Horretarako, aldi-aldi teknologia garbien zerrenda bat onetsi eta eguneratuko da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85. artikuluan edo haren ordezko arauak aurreikusitako moduan.

2. Energia-hobekuntzarako edo ingurumena babesteko proiektuak edo jarduketak egiteko dirulaguntzak eta bestelako laguntzak emateko arauetan edo oinarri arautzaileetan, ekoizpen-

Artículo 57. Huella de carbono de productos, servicios y suministros en la compra pública

1. Los órganos de contratación de las administraciones públicas vascas y de las demás entidades del sector público incluirán en los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas particulares de sus contratos la obligación de disponer de la huella de carbono de los productos, servicios y suministros cuya contratación se licite.

A estos efectos, las entidades licitadoras podrán justificar la disposición de la huella de carbono mediante la acreditación de la vigencia de la inscripción en el Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático previsto en esta ley u otros medios de prueba de medidas equivalentes de gestión medioambiental.

2. Lo establecido en el apartado anterior tendrá carácter obligatorio en el plazo que se fije en la norma reglamentaria que apruebe la organización y funcionamiento del Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático.

Artículo 58. Promoción de técnicas y tecnologías para el control energético y la reducción de emisiones y la adaptación

1. Las administraciones públicas vascas competentes promoverán e impulsarán técnicas y tecnologías cuya introducción en los procesos productivos de las actividades económicas permitan el control de los consumos energéticos y la reducción cuantificable de emisiones de gases de efecto invernadero a lo largo de todo el ciclo del producto o proceso considerado.

A tal fin, se aprobará y actualizará periódicamente un listado de tecnologías limpias en los términos previstos en el artículo 85 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, o norma que la sustituya.

2. Las normas o bases reguladoras de la concesión de ayudas o subvenciones para la realización de proyectos o actuaciones destinados a la mejora energética y la

prozesuei buruzko balorazio-irizpideak ezarri ahal izango dira, horien bidez zehazteko ea ekoizpen-prozesuek bide ematen duten hain kutsagarriak ez diren energiak modu progresiboan sartzeko, berotegi-efektuko gasak murrizteko edo efektu murriztaile edo egokitzaila bera duten ekipamendu-ondasunak eskuratzeko.

protección del medio ambiente podrán establecer criterios de valoración relativos al empleo de procesos productivos que permitan la progresiva penetración de energías menos contaminantes, la reducción de gases de efecto invernadero o la adquisición de bienes de equipo con el mismo efecto reductor o de adaptación.

59. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko fiskalitatea

1. EAEko administrazio publikoek, trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren prozesuan, lankidetzan eta koordinazioan arituko dira, batetik, zaurgarritasuna areagotzen edo berotegi-efektuko gasen emisioa handitzen duten jardueren gaineko karga jakin batzuk ezartzea ebaluatzeko, eta, bestetik, fiskalki sustatzeko berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten, gutxitzen edo xurgatzen edo klima-aldaketara egokitzen laguntzen duten jarduketak, teknikoki eta ekonomikoki posible den heinean.
2. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko fiskalitateak helburu hauek izan behar ditu, besteak beste:
 - a) Energia berriztagarriak sustatzea.
 - b) Sareen deszentralizazioa eta autokontsumo energetikoa.
 - c) Energetikoki efizienteak diren eraikinak eta etxebizitzak.
 - d) Mugikortasun jasangarria.
 - e) Ura aurrezteak.
 - f) Biodibertsitatea hobetzeko edo biodibertsitatea ez galtzeko jarduketak.
 - g) Osasunaren gaineko inpaktuak murriztea.
 - h) Ekipamendu efizienteagoak.
 - i) Ekoizpen-prozesuak aldatzea, berotegi-efektuko gasen emisioak eta bestelako agente kutsatzaileak murrizteko eta klima-aldaketara hobeto egokitzeko.
 - j) Ekonomia zirkularreko ereduak bultzatzea, deskarbonizazioa lortzeko.
 - k) Basogintza- eta nekazaritza-kudeaketa jasangarria.
 - l) Hondakinen sorkuntzan prebenitzea eta hondakinen balorizazioa.

Artículo 59. Fiscalidad en materia de transición energética y cambio climático

1. Las administraciones públicas vascas, a lo largo del proceso de transición energética y climática, colaborarán y se coordinarán entre ellas para evaluar el establecimiento de determinados gravámenes sobre las actuaciones que hagan aumentar la vulnerabilidad o incrementen las emisiones de gases de efecto invernadero, así como para incentivar fiscalmente las actuaciones que favorezcan la mitigación, la reducción y la absorción de emisiones, y la adaptación al cambio climático, cuando sea posible técnica y económicamente.
2. La fiscalidad en materia de transición energética y cambio climático deberá tener, entre otros, los siguientes objetivos:
 - a) El fomento de las energías renovables.
 - b) La descentralización de redes y el autoconsumo energético.
 - c) Los edificios y viviendas energéticamente eficientes.
 - d) La movilidad sostenible.
 - e) El ahorro de agua.
 - f) Las actuaciones para mejorar la biodiversidad o para evitar su pérdida.
 - g) La reducción de impactos sobre la salud.
 - h) Los equipamientos más eficientes.
 - i) La modificación de los procesos de producción para reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y otros agentes contaminantes y mejorar la adaptación al cambio climático.
 - j) El impulso de los modelos de economía circular para la descarbonización.
 - k) La gestión forestal y agrícola sostenible.
 - l) La prevención en la generación de residuos y su valorización.



- | | |
|---|---|
| <p>m) Arrantza, akuikultura eta itsaski-bilketa jasangarriak bultzatzea.</p> <p>n) Sektore ekonomikoak eta sistema naturalak egokitzea eta horien zaugarritasuna murriztea.</p> | <p>m) La pesca, la acuicultura y el marisqueo sostenibles.</p> <p>n) La adaptación y reducción de la vulnerabilidad de los diferentes sectores económicos y sistemas naturales.</p> |
|---|---|
3. Era berean, EAEko administrazio publiko guztiek, beren zerga-eskumenen barruan, ingurumen-kalteak eragiten dituzten jarduketan gaineko kargak ezarri ahal izango dituzte, bai eta hobariak emateko pizgarrien eta zerga-neurrien mekanismoak ere, energia-efizientzian eta energia berriztagarrien ekoizpenean eta kontsumoan eta zero emisioko ibilgailuak erosi eta erabiltzean egindako inbertsioak direla eta, eta lehentasuna izango dute aurrezpen handiena, sektoreen deskarbonizazioa eta klima-aldaketara egokitzea lortzen duten erabilerekin.

60. artikulua. Ikuspegi energetikoa eta klimatikoa araudian eta plangintzan

1. Lege-proiektuetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sustatzen edo onartzen dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan eta plangintza-jardueran, klima-ikuspegia txertatu beharko da, lege honetan eta trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko plangintza estrategikoan adierazitako helburuekin bat etorritz.
2. Araugintzako edo plangintzako edozein ekimen izapidetzeko ardura duen organoak klima-inpaktuaren ebaluazio bat txertatu beharko du nahitaez, klima-aldaketa arintzean eta klima-aldaketara egokitzean proiektuak eragina aztertzekoa.

61. artikulua. Energiari eta klimari buruzko ikuspegia aurrekontu publikoetan

1. Energiari eta klimari buruzko ikuspegia txertatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren legearen proiektuan, aurrekontuen % 2,5 ekintza klimatikorako neurrietara bideratuz. EAEko gainerako administrazio publikoek beren aurrekontu publikoetan, bereziki diseinu-fasean, energiari eta klimari buruzko ikuspegia txerta dadin sustatuko dute.
2. Aurrekontuetan, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eragin positiboa duten jarduerak identifikatuko dira, arintzekoak zein egokitzekoak, ezartzen diren gidalerroen arabera.

Artículo 60. Perspectiva energética y climática en normativa y planificación

1. En los procedimientos de elaboración de proyectos de ley y de disposiciones de carácter general y en la actividad planificadora que promuevan o aprueben las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se deberá incorporar la perspectiva climática, de conformidad con los objetivos indicados en esta ley y en la planificación estratégica en materia de transición energética y cambio climático.
2. El órgano encargado de tramitar cualquier iniciativa normativa o planificadora deberá incorporar, con carácter preceptivo, una evaluación de impacto climático, que tendrá por objeto analizar la repercusión del proyecto en la mitigación y adaptación al cambio climático.

Artículo 61. Perspectiva energética y climática en los presupuestos públicos

1. Se deberá incorporar la perspectiva energética y climática en el proyecto de ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destinando el 2,5 % de dichos presupuestos a la adopción de medidas de acción climática. El resto de las administraciones públicas vascas promoverán la integración de la perspectiva energética y climática en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño.
2. Los presupuestos identificarán aquellas actuaciones con impacto positivo en materia de transición energética y cambio climático, tanto para la mitigación como para la adaptación, de acuerdo con las directrices que se establezcan.

Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, gauzatze-, jarraipen- eta ebaluazio-gidalerroak ezarri beharko dira, baita egoki diren gaikuntza-prozesuak ere.

A los efectos previstos en el apartado anterior, se deberán establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación.

3. Bost urtean behin, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren inpaktua eta ekarpena aztertu beharko da, isuriak murrizteari, kalteberatasuna eta arriskuak gutxitzeari, energia-politikari, adierazle sozioekonomikoei eta lehiakortasunari dagokienez. Azterketa hori Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoak egingo du.

3. Se deberá analizar, con periodicidad quinquenal, el impacto y la contribución de los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en términos de reducción de emisiones, disminución de vulnerabilidad y riesgos, política energética e indicadores socioeconómicos y competitividad. Dicho análisis será elaborado por la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático.

62. artikulua. Klimaren Gizarte Funtza

Artículo 62. Fondo Social Climático

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren urteko aurrekontuetan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 86. artikulua lehengo paragrafoan xedatutakoaren arabera sortzen den aurrekontu-partida Europako Klimarako Gizarte Funtsetik datozen baliabide ekonomikoez hornitu ahal izango da, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko, baita bidezko trantsizioa sustatzeko politikak eta ekintzak gauzatzeko tresna gisa erabiltzeko helburuarekin.
2. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezarriko ditu, lege hau indarrean jarri eta gehienez ere urtebeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Funtz Klimatikoa hornitzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta banatzeko irizpideak.
3. Klimaren Gizarte Funtzaren baliabide ekonomikoak honako hauetara bideratuko dira:
 - a) Energia eredu berri bateranzko trantsizioaren eta klima-aldaketa arintzearen eta horretara egokitzearen eremuetan jarduketak egitea, ekosistemak monitorizatzea eta leheneratzea barne.
 - b) Bidezko trantsizio-neurriak hartzea, energia-ongizaterik ezarekin eta energia-trantsizioaren ondoriozko eraldaketa sozioproduktiboak eragindako sektoreen konpentsazioarekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako neurriei dagokienez.

1. La partida presupuestaria de los presupuestos anuales de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco que se cree de conformidad con lo dispuesto en el apartado primero del artículo 86 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, se podrá dotar de los recursos económicos que, en su caso, provengan del Fondo Social para el Clima europeo, con el objetivo de servir de instrumento para la ejecución de políticas y acciones de mitigación y adaptación al cambio climático, así como para promover una transición justa.
2. El Gobierno Vasco establecerá reglamentariamente, en el plazo máximo de un año desde la entrada en vigor de la presente ley, los criterios de provisión, gestión, organización y distribución de los recursos económicos previstos en el apartado anterior.
3. Los recursos económicos del Fondo Social Climático estarán destinados a:
 - a) La realización de actuaciones en los ámbitos de la transición hacia un nuevo modelo energético y la mitigación y la adaptación al cambio climático, incluyendo el monitoreo y la restauración de los ecosistemas.
 - b) La adopción de medidas de transición justa vinculadas a la ausencia de bienestar energético y a la compensación de sectores afectados por la transformación socioprodutiva derivada de la transición energética y las medidas vinculadas a la lucha contra el cambio climático.

63. artikulua. Administrazio-izapidetzearen sinplifikazioa

Artículo 63. Simplificación de la tramitación administrativa

1. EAEko administrazio publikoek administrazio-prozeduren sinplifikazioa, arintzea eta

1. Las administraciones públicas vascas promoverán la simplificación, agilización y



gardentasuna sustatuko dituzte lege honetan ezarritako helburuei laguntzen dieten proiektuak garatzeko, beren eskumenak kaltetu gabe.

2. EAeko administrazio publiko guztiak modu efizientean koordinatuko dira dagozkien administrazio-izapidetzei lotutako betebeharrak betetzeko.

64. artikulua. Lehentasunezko inbertsioak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren esparruan, eta energia berriztagarriak sustatzeko, lehentasunezko eta presazko inbertsioetat hartuko dira, plangintzaren, administrazio-izapideen eta laguntza publikoak esleitzearen ondorioetarako, Eusko Jaurjaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak halakotzat jotzen dituen jarduketak hauek:

- a) Energiaren erregulazioa edo biltegiatzea aurreikusten dutenak.
- b) Esperimentalak.
- c) Parke eolikoak berrindartzea aurreikusten dutenak.
- d) Energia berriztagarrien instalazioak hibridatzekoak.
- e) Jabetza publikoan gauzatutakoak sortzekoak, baldin eta eragindako toki-erakundeen, irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo instalazioa kokatu nahi den udalerrian edo haren mugakide diren udalerrietan bizi diren pertsonen gutxienez % 20ren partaidetza ekonomikoa badute.
- f) Energia berriztagarrien komunitateena, herritarren energia-komunitateena eta tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuena, lege honen 24.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Gas-sisteman gas berriztagarria sortzeko eta injektatzekoak.
- h) Basogintzako biomasa eta erabilera termikorako nekazaritzako azpi produktuak aprobetxatzeko enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak.
- i) Tokiko energia-komunitateen eta herritarren energia-komunitateen proiektuak. Tokiko erakundeek Jasangarritasun Energetikoaren Funtsetik finantzaketa biguna lortu ahal izango dute energia berriztagarrien proiektuetarako.

transparencia de los procedimientos administrativos para el desarrollo de los proyectos que contribuyan a los objetivos establecidos en esta ley, sin menoscabo de sus competencias.

2. El conjunto de las administraciones públicas vascas se coordinará de forma eficiente para el cumplimiento de sus obligaciones en el ámbito de las tramitaciones administrativas correspondientes.

Artículo 64. Inversiones prioritarias

En el marco de lo establecido en el artículo 33 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y para la promoción de las energías renovables, tendrán el carácter de inversiones prioritarias y urgentes a efectos de planificación, tramitación administrativa y asignación de ayudas públicas las siguientes actuaciones cuando sean declaradas como tales por el departamento competente en materia de energía del Gobierno Vasco:

- a) Las que contemplen la regulación o el almacenamiento de energía.
- b) De carácter experimental.
- c) Las que contemplen la repotenciación de parques eólicos.
- d) De hibridación de instalaciones de energías renovables.
- e) De generación ejecutados en propiedad pública que cuenten con la participación económica de al menos un 20 % de las entidades locales afectadas, de entidades sin ánimo de lucro, o de personas residentes en el municipio en el que se pretende situar su instalación, o de los municipios limítrofes.
- f) De comunidades de energías renovables, comunidades ciudadanas de energía, y los proyectos de generación renovable con participación local, de conformidad con lo establecido en el artículo 24.6 de esta ley.
- g) De generación e inyección de gas renovable en el sistema gasista.
- h) Proyectos de pequeñas empresas o cooperativas para el aprovechamiento de la biomasa forestal y de subproductos agrícolas para usos térmicos.
- i) Proyectos de comunidades energéticas locales y comunidades ciudadanas de energía. Las entidades locales podrán obtener financiación blanda del Fondo de Sostenibilidad energética para sus proyectos de energías renovables.

- | | |
|--|---|
| j) Guztizko energia-kontsumoaren murrizketan oinarrituta kalkulaturako nekazaritza-ekoizpena desintensifikazioan laguntzen duten proiektuak. | j) Proyectos que ayuden a la desintensificación de la producción agrícola calculada sobre la base de reducción de consumo de energía total. |
| k) Basogintzako biomasa eta erabilera termikorako nekazaritzako azpiproduktuak aprobetxatzeko enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak. | k) Proyectos de pequeñas empresas o cooperativas para el aprovechamiento de la biomasa forestal y de subproductos agrícolas para usos térmicos. |
| l) Erregai fosilak erabiltzeko alternatiba desberdinak eta iraunkorrak garatzen dituzten edo karbono-hustulekuak handitzen laguntzen duten erakunde publikoek bultzatutako proiektuak. | l) Proyectos impulsados prioritariamente por organismos públicos que desarrollen alternativas diferentes y sostenibles al uso de combustibles fósiles o contribuyan al aumento de sumideros de carbono. |
| m) Ekonomia zirkularreko eta jarduera ekonomikoko proiektuak ekoizpen- eta banaketa-ziklo laburretan. | m) Proyectos de economía circular y de actividad económica en ciclos cortos de producción y distribución. |
| n) Hondakinak jatorrian bereizteko, ontziak berrerabiltzeko eta materialak berreskuratzeko proiektuak. | n) Proyectos de separación de residuos en origen, reutilización de envases y recuperación de materiales. |
| o) Minizentral hidraulikoak berreskuratzea, hobetzea edo indartzea aurreikusten dutenak. | o) Los que contemplen la recuperación, mejora o repotenciación de minicentrales hidráulicas. |
| p) Eraikinetan edo hiri-egituretan integratutako sorkuntza-instalazio esperimentalak edo berritzaileak. | p) Las instalaciones experimentales o innovadoras integradas en edificios o en estructuras urbanas para la generación. |

2. atala Energia berriztagarrien kanona

65. artikulua. Kanonaren xedea eta izaera

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzea energia berriztagarrien kanon batez zergapetuko da, ingurune naturalean eta lurraldean eragin dezaketen afekzio eta inpaktu kaltegarriak direla eta. Kanona kanonaren helburuari buruzko 73. artikuluan aurreikusitako jarduketak garatzeko bideratuko da.
2. Atal honen ondorioetarako, energia berriztagarriko instalaziotzat hartuko dira energia elektrikoa sortzeko parke eolikoak eta fotovoltaikoak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzeagatik kanona zerga zuzena, aldizkakoa eta izaera estrafiskalekoa eta benetakoa da, konpentsazio-izaerakoa eta lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarriko instalazioak zergapetzen ditu.
4. Kanonak lege hau indarrean jarri aurretik Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako

Sección 2.ª Canon de energías renovables

Artículo 65. Objeto y naturaleza del canon

1. La implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables, por las afecciones e impactos adversos sobre el medio natural y sobre el territorio que pudieran ocasionar, será gravado con un canon de energías renovables, que estará destinado a financiar el desarrollo de las actuaciones previstas en el artículo 73 relativo al destino del canon.
2. A los efectos de esta sección, se entenderá por instalaciones de energías renovables los parques eólicos y solares fotovoltaicos para la generación de energía eléctrica.
3. El canon por la implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables es un impuesto directo, periódico y de naturaleza extrafiscal y real, con carácter compensatorio, que grava las instalaciones de energías renovables en suelo no urbanizable.
4. El canon afecta tanto a las instalaciones de energías renovables implantadas en la



energia berriztagarriko instalazioei eragiten die, bai eta lege hau indarrean jarri ondoren ezartzen direnei ere, ustiapenean egon ala ez.

66. artikulua. Zerga-egitatea

Zerga-egitatea da Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzearen ondorioz ingurune naturalean eta lurraldean ikusizko eta ingurumen-inpaktu kaltegarriak sortzea.

67. artikulua. Salbuespenak

1. Kanonetik salbuetsita egongo dira autokontsumo elektrikoko instalazioak, energia elektrikoaren autokontsumoa arautzen duen indarreko araudiaren arabera definituta, eta 5 MW-etik beherako potentzia sortzen dutenak, salbu eta pertsona fisiko edo juridikoaren edo erakunde beraren beste instalazio batzuekin lotuta edo lotutako beste pertsona edo erakunde batzuekin lotuta dauden instalazio horiek sareari, ebakuazio-linea beraren bidez, 5 MW-eko edo gehiagoko potentzia ematen badiote.
2. Ondorio horietarako, lotutako pertsona edo erakundetzat hartuko dira zerga-araudian ezarritakoak.

68. artikulua. Zergadunak

1. Abenduaren 17ko Tributuen 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikuluko pertsona fisiko edo juridikoek edo entitateek ordaindu beharko dute kanona, baldin eta, edozein tituluren pean, zerga-egitatea sortzen duten parke eolikoak edo eguzki-parke fotovoltaikoak ustiatzen badituzte, nahiz eta horiek instalatzeko administrazio-baimenaren titularrak ez izan. Kontrako frogarik ezean, parke eoliko edo eguzki-parke fotovoltaiko baten ustiapena hura instalatzeko dagokion administrazio-baimenaren titular gisa agertzen den pertsonak edo erakundeak egiten duela ulertuko da.
2. Ustiapena eteten bada, zergaren zerga-egitatea sortzen duten energia berriztagarrien instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak edo erakundeak izango dira kanonaren zergadun.
3. Kanonaren zergadunak dira, erantzule solidario gisa, honako hauek:
 - a) Parke eoliko edo eguzki-parke fotovoltaiko bat instalatzeko administrazio-baimenen titularrak diren pertsonak edo erakundeak, ustiapena

Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley como a aquellas que se implanten una vez producida esta, independientemente de que se encuentren o no en explotación.

Artículo 66. Hecho imponible

Constituye el hecho imponible la generación de afecciones e impactos visuales y ambientales adversos sobre el medio natural y sobre el territorio derivados de la implantación en el suelo no urbanizable de la Comunidad Autónoma del País Vasco de instalaciones de energías renovables.

Artículo 67. Exenciones

1. Estarán exentas del canon las instalaciones de autoconsumo eléctrico, definidas de acuerdo con la normativa en vigor que regula el autoconsumo de energía eléctrica, y las de generación de potencia inferior a 5 MW, salvo que dichas instalaciones unidas a otras de la misma persona física o jurídica o entidad, o unidas a otras de personas o entidades vinculadas, entreguen a la red, a través de la misma línea de evacuación, una potencia igual o superior a 5 MW.
2. A estos efectos se considerarán personas o entidades vinculadas las establecidas en la normativa tributaria.

Artículo 68. Contribuyentes

1. Son contribuyentes del canon las personas físicas o jurídicas o entidades del artículo 35.4 de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, que, bajo cualquier título, lleven a cabo la explotación de parques eólicos o solares fotovoltaicos que generen el hecho imponible del impuesto, aunque no sean titulares de una autorización administrativa para su instalación. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que la explotación de un parque eólico o solar fotovoltaico es realizada por la persona o entidad que figure como titular de la correspondiente autorización administrativa para su instalación.
2. En caso de que cese la explotación, serán contribuyentes del canon las personas físicas o jurídicas o entidades que ostenten la titularidad de las instalaciones de energías renovables que generan el hecho imponible del impuesto.
3. Son contribuyentes del canon en calidad de responsables solidarios:
 - a) Las personas o entidades titulares de autorizaciones administrativas para la instalación de un parque eólico o solar fotovoltaico, cuando quien lleve a cabo

egiten duena baimenaren titularra den pertsona edo erakundearekin bat ez datorrenean.

- b) Instalazio eoliko edo eguzki-instalazio fotovoltaikoen pertsona edo erakunde titularrak, titulartasuna ez bada ustiapenaren pertsona edo erakunde titularra, ezta administrazio-baimenaren pertsona edo erakunde titularra ere.

la explotación no coincida con la persona o entidad titular de la autorización.

- b) Las personas o entidades titulares de las instalaciones eólicas o solares fotovoltaicas, cuando dicha titularidad no concorra en la persona o entidad titular de la explotación ni en la persona o entidad titular de la autorización administrativa.

69. artikulua. Zergaldia eta sortzapena

1. Kanonaren zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, eta urte bakoitzeko lehen egunean sortuko da.
2. Instalazio berrien kasuan, zerbitzuan jartzen den egunean sortuko da zerga, eta zergaldia sortzapenetik dagokion urte naturaleko azken egunaren arteko aldia izango da.
3. Zerga-kuota zehazten duten elementuak aldatzen dituzten instalazioen kasuan, zergaldi berri bat irekiko da aldaketak zerbitzuan jartzen diren egunetik eta dagokion urte naturaleko azken egunaren arte.
4. Instalazioak behin betiko desegitearen kasuan, zergaldia sortzen denetik parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaikoa desegiten den egunera arteko aldia izango da.

70. artikulua. Deklarazioak eta autolikidazioak aurkeztea

1. Kanona aplikatzeari dagokionez, zergadunak behartuta daude tributua kuantifikatzeko beharrezkoak diren datuak, ezaugarriak eta inguruabarrak hasieran aitortzera, bai eta alde aurretik aitortutako datuetan egindako aldaketak ere, erregelamendu bidez zehaztutako moduan, epeetan eta lekuan.

Era berean, baja-deklarazioa aurkeztu beharko dute parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaikoa desegiten bada.

